

ДЦЯЯЕЯД
LANGILERIA
BAKE FALTSUARI GERRA

TROTSKI, PORROTAREN PROFETA



2020ko iraila, Euskal Herria

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
TROTSKI, MENTXEBIKEA.....	4
“Maximilien” Lenin-en aurkaria.....	4
“Iraultza etengabearen” teoria.....	11
“Judas Trotski”-ren frakzioa.....	16
Likidatzaileen “likidazioa”.....	19
Autodeterminazio-eskubidearen “onarpena”.....	24
Boltxebikeetara “igarotzea”.....	27
TROTSKI, “BOLTXEBIKEA”.....	29
“Napoleon gorri” baten historia.....	29
Sindikatuaren “militarizazioa”.....	33
Sozialismoa eraikitzeko “ezintasuna”.....	37
Ibilbide “berri” bat.....	40
Urriko “irakaspenak”.....	46
Lenin-en “ondorengotza”.....	52
“Trotski-ren frakzioaren” kanporaketa (berriro).....	56
Munduan zeharreko “iraultza”.....	60
TROTSKI, AGENTE PROBOKATZAILEA.....	63
Iraultzarekin “etengabe” biraka.....	63
“Burokraziaren” aurkako borroka.....	69
II. Internazionalari “buelta”.....	78
Derrotismo “iraultzailea”.....	81
Moskuko “fartsa”-Epaiketak.....	83
Trotski-ren “ondarea”.....	86
ONDORIOAK.....	87

SARRERA

Oso pertsonaia ezaguna da Trotski: “Lenin-en burkide eta lagun mina”, bere “oinordekoa” izan behar zena; Urriko iraultzaren “antolatzaile nagusietakoa” eta Ejertzito Gorriaren “sortzailea”; Estatu sobietikoaren “endekapen burokratikoaren” eta “ikara estalinistaren” aurkako “ezkerreko borrokalari iraultzailea”... eta beste hainbeste mito eta kondaira, haren jarraitzaileek behin eta berriz mantra bat bailiran errepikatzen dituztenak eta burgesia inperialistaren propaganda-bideek urteetan zehar hedatzen ibili direnak, mundu osoko intelektual eta gazte erreboltarien artean honen aldeko irudia sortzeko asmoz.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Aurrera Langileria-n legenda hauek eraitsiko ditugu bere ibilbide politikoaren azterketaren bitartez.

TROTSKI, MENTXEBIKEA

Lev Davidovitx Bronstein, ‘Trotski’ ezizenez, 1879. urtean jaio zen Ukrainan, orduan inperio tsaristaren barnean, judu jatorriko baserritar aberats batzuen familian. Gaztaroan ‘populisten’ alde egin zuen lan, espetxeratzea eta barne-erbestea ekarri zionak 1899an. Han marxismoari zion ezinikusia alboratu eta sozialismo zientifikoa “besarkatu” zuen. 3 urteren buruan Londresera egin zuen ihes eta bere gartzelari baten izena hartu (hots, Trotski). Bertan ezagutu zuen Vladimir Ilitx Ulianov, ‘Lenin’, bere arerioa bilakatuko zena Errusiako Behargin Alderdi Sozial-Demokrataren (EBASD) barnean.

“Maximilien” Lenin-en aurkaria

1903. urtean EBASDaren II. Biltzarrea egin zen erbestean, lehen zati bat Bruselaren eta, poliziaren jazarpena zela eta, amaiera Londresen. Lenin-ek idatzi zituen biltzarre honetako gai-zerrenda, arautzea eta Estatutuen proiektua, besteren artean. Bere xedea ‘Zer egin?’ lanean oinarritutako mota berriko abangoardia-alderdi iraultzailea eraikitzea zen, ‘Iskra’ aldizkariaren erbesteko militanten inguruan, tsarismoko egoeran klandestinoak izan beharko zukeena. Honek ‘boltxebikeak’ (gehiengoa), Lenin-en inguruan, eta ‘mentxebikeak’ (gutxiengoa), Trotski-k babestu zituenak, desberdintzera eraman zuen Alderdiaren baitan.

Eztabaida nagusia Estatutuen arloan eman zen, Alderdiko kide izateko baldintzen inguruan: boltxebikeek baldintza gisa Alderdiko kidea honen ataletako batean lan (ilegala) garatzea eta zentralismo demokratikoan oinarritutako diziplina betetzea ipintzen zuten bitartean, mentxebikeek une jakin batean honen alde zegoen edozein, intelektual edo grebalari bat adibidez, militantetzat hartu nahi zuten. Trotski-k biltzarre honen inguruko txosten bat idatzi zuen (‘Ordezkaritza siberiarraren txostena’ deitutakoa), Lenin eta boltxebikeen aurkako irainez betetakoa, azken kokapen hau babestuz:

“(…) Adieraz dezagun ezaugarri bat soilik, oso irakasgarria: Lenin burkidearen kokapenaren izaera erabat abstraktua. Alderdiko kideen gaineko kontrola beharrezkoa da. Kontrol hori ezin da ziurtatu kide bakoitzarengana iristea posible ez bada baino. Dena den, hori ez da posible Alderdiko kide guztiak juridikoki finkatuta badaude baino, hau da, Alderdiko antolakunderen batean behar bezala izena emanda badaude. Orduan, Ediguneko Batzordeak, nonahi dagoena, dena barneratu eta dena kontuan hartzen duenak, Alderdiko kide bakoitza harrapatu ahal izango du krimenaren lekuan. Egia esan, amets burokratiko nahiko inozoa da; kontua maila horretan geratu izan balitz, Lenin-en formularen aldeko axolagabeki utzi ahal izango zitzaien EBASDren II. Biltzarreak oportunistaren eta indibidualismo intelektualaren aurkako estatutu-erremediorik seguruena aurkitu zuela jakitearen poztasun platonikoa. Baina formalismo antzu horretatik Alderdiari planteatzen zaizkion arazo errealetara pasatuz gero, Lenin burkidearen formulak zenbait eragozpen aurkezten ditu. (...)”

Lenin-ek biltzarrean bertan egin zion aurre Trotski-ren kokapen honi, ale zalantzatien ezegonkortasunaren aurka eta masa-antolakundeekin loturaren beharra azpimarratuz:

“Trotski burkideak oker ulertu du ‘Zer egin?’ nire liburuaeren funtsezko ideia, alderdia ez dela antolakunde konspiratiboa esaten baitu (eragozpen hori beste askok egin didate). Ahaztu egin du nire liburuaen mota askotako antolakunde multzo bat aurreuposatzen dudala, konspiratibo eta estuenetatik erlatiboki zabal eta “askeetaraino” (lose). Ahaztu egin du alderdiak abangoardiako destakamendua soilik izan behar duela, behargin-klasearen masa erraldoiaren gidaria, zeinak osorik (edo ia osorik) alderdiko antolakundeen “kontrolpean eta zuzendaritzapean” jarduten duen, baina bere osotasunean ez dela alderdikoa eta ez duela alderdikoa izan behar.”*

Txostenean Trotski-k bere salaketekin jarraitzen du Iskra-ko erredakzioaren zuzendaritzaren aurka (bera kanpo geratu baitzen, nahiz eta geroago mentxebikeek berreskuratu) Lenin Robespierre iraultzaile burges frantziarrarekin parekatuz, honek Alderdi barnean “ikaran” eta “burdin-eskuan” oinarritutako erregimena ezarri izan balu bezala.

“(…) Lenin-ek halako energiaz azpimarratu duen “setio-egoerak”, “botere indartsua” eskatzen du. Mesfidantza antolatuaren praktikak burdinazko eskua eskatzen du. Ikararen sistema Robespierre batek koroatzen du. Lenin burkideak Alderdiko kideak mentalki ikuskatu ditu eta ondorioztatu du burdinazko esku hori bera baino ezin zitekeela izan. Eta arrazoi izan du. Sozialdemokraziaren nagusitasuna borroka askatzailean, “setio-egoeraren” logikaren arabera, Sozial-Demokraziaren gaineko Lenin-en nagusitasuna esan nahi zuen. Testuinguru horretan, “botereagatik borrokak” bere izaera pertsonala galtzen zuen, sistemaren azken katebegia bezala agertzen zen. Lenin-en arrakasta sistemaren arrakasta zen. Are kaltegarriagoa izatera iritsi daiteke Alderdiarentzat.”

Trotski-k Lenin-ek proposatutako zentralismo demokratikoa gaitzesten du, behetik gora aukeratutakoa eta goitik beherako aginduei loteslea dena, bere ustez Alderdia banakoen eta frakzioen batuketa bat izan behar baita, eta ez kritika eta autokritika bidez funtzionatzen duen osotasuna. Hau azaltzeko Frantziako Iraultzan oinarritutako metaforen erabilpenean sakontzen du: boltxebikeak ‘jakobinoak’ izango lirateke, eta oportunistak ‘termidorianoak’, lehenak eraitsi zituztenak erreakzioa ezarri. Galdetu liteke zer paper izango lukeen berak “profezia” honetan... Napoleon, agian?

“Arrisku larri batek mehatxatzen gaitu gaur egun: leninisten “zentralismoaren” hondoratze saihestezinak, eta, aldi berean, hurbilekoak, zentralismoaren ideia oro har errusiar burkide askoren begietara kolokan jartzeko arriskua du. Alderdiaren “gubernuan” jarritako itxaropenak handiegiak ziren, infinituki handiak. Batzordeak ziur zeuden gizonak, literatura, aginduak, baliabide materialak emango zitzaizkiela. Baina, irauteko, arlo teoriko eta praktikoan militante onenak kanporatzen hasten den erregimenak, halako erregimen horrek, exekuzio gehiegi eta ogi gutxiegi agintzen ditu.

Etsipen bat piztuko du ezinbestean, baina ez bakarrik Robespierre-entzat eta zentralismoaren ilotentzat, bazik eta baita borroka antolakunde bakar baten ideiantzat ere. Oportunismo sozialistaren “termidorianoak” izango dira orduan egoeraren jabe, eta Alderdiaren ateak parez pare irekiko dira hain zuzen ere.”

Iskra berreskuratzeko mentxebikeen azpijokoaren aurrean Lenin-ek gutun bat idatzi zuen erredakzioa uzten zuela jakinarazteko. Gutun honetan barre egin zuen hauen “zentralismo

burokratikoaren” salaketen aurrean. Horregatik txostenaren amaieran Trotski-k Lenin eta Robespierren arteko alderatzearen arrazoia azaltzen digu: Robespierre tragedia historikoa izango litzateke, eta Lenin, “fartsa baldarra”.

“Literatura klandestinoak Lenin-en inguruko “salaketarik dibertigarrienez” beteta dago; “autokrazia” leporatzen zaio, “exekuzioen erregimen robespierrista” (sic!) sortu izana. Prest gaude pozik egoteko Lenin burkidea “dibertitu” egin delako literatura “klandestinoaren” gaitzespen “dibertigarriekin”. Bakarrik, alferrrikakoa dela exekuzio “robespierristak” serio hartu izana. Siberiako ordezkariaren txosten “klandestinoak” karikaturazko robespierrada bati buruz hitz egiten du. Bere eredu handitik bereizten da fartsa baldarra oro har tragedia historikotik bereizten den bezala. Egia esan, prest gaude onartzeko ez dagoela inork zuzentzen ez duen “autokrazia”, eta “exekutatu” Alderdian funtzio garrantzitsuak egitea ahalbidetzen dieten “exekuzioak” baino gauza dibertigarriagorik.

Lenin burkideak pentsatzen du, edo inprimatzen dubehintzat, guk antolamendu-desadostasunak “gutxiengoaren” posizioa eta “zentroen” osaera pertsonala eraldatzeko borrokaren prozedurak edertzen dituzten eran “aurkezten” ditugula. Lenin burkideak ez du inolako “zentralismo burokratikorik” ezagutzen. Aitzitik, “gutxiengoak” Alderdiaren erdiguneetan sartzeko hamaika azpijokoak ezagutzen ditu. Bakoitzak ikusten duena besterik ez du ikusten. (...)”

1904. urtean idatzitako ‘Gure egiteko politikoak’ lanean, Alexrod mentxebikeari eskainitakoa, Trotski pausu bat aurrera doa Lenin-en aurkako salaketa hauetan. Alderdi barneko zatiketaren arriskua boltxebikeen ildoari egotzi ondoren, zera dio:

“Horregatik, egokia iruditu zaigu liburu honen zati bat Lenin burkidearen azken liburuxkari eskaintzea, ‘Pauso bat aurrera, bi pauso atzera’, non aurreiritzi horiek sistematizatuak izan diren, apur bat besterik izan ez bada ere. Onar dezagun: gure zereginaren zati hau plazerrik gabe bete dugu. Liburuxka hau agertu zen arte guretzat bistakoa zen Lenin burkideak ezin zuela bere kokapena defendatzeko atentziorik merezi zuen ezer esan, hartu zuen kokapena guztiz desesperatua baitzen. Hori esanda, ez genuen espero halako pentsamendu-txirotasunik. Irakurri ondorengo gure lehen erreakzioa hau izan zen: pasa gaitezen, besterik gabe, gai-zerrendako arazoetara. Baina gogoeta baten ondoren (zeinaren funtsezkoena gorago azaldu baitugu), ezinbestekoa iruditu zaigu gure kokapena azaltzea; ezinezkoa da gure alderdiaren kontzientziaren egoera gogaikarriaren gainetik jauzi egitea.

Jakina, bere burua antolamendu-aurreiritzi burokratiko eta “jakobinoetatik” erabat aske jotzen duen irakurlea liburu honen lehen bi zatietara mugatu daiteke.”

Trotski-k aurreko Iskra-ren inguruan bildutako intelektualitateari (boltxebikea) “proletalgoaren autodeterminazioa klase-politika autonomoaren forman” eragozteko leporatzen dio, “bere auto-aktibitatea” antolatu ordez klase guztientzako kontsigna demokratikoak soilik zabaltzeaz arduratuz eta honi “bizkarra emanaz”.

“Lenin-ek Kautski-rengandik proletalgoaren mugimendu iraultzailean elementu “espontaneoaren” eta elementu “kontzientearen” arteko harremanaren ideia zentzugabea hartu zuenean, bere garaiko zereginak zakarki definitu besterik ez zuen egiten.”

Trotsky-k ekonomizismoaren eta abenturerismoaren arteko nahasketa bat plazaratzen du, proletalgoaren kontzientzia iraultzailea borroka ekonomikoetatik eratorriz eta, aldi berean, oraindik existitzen ez ziren instituzio burgesen kontrako aurkakotasuna sustatuz.

Era honetan, “politizisten” (leninisten) antolakuntza-formari proletalgora zuzendu ordeztatu beratu burgesia erradikalaren borroka politikoetan “ordezkatzera” aurpegiratzen dio, azkenean “diktadore” batek dena kontrolatu arte (ez al da hau ezaguna egiten?).

“Alderdiaren barne-politikan, metodo horiek, aurrerago ikusiko dugun bezala, alderdiaren antolaketa alderdia “ordezkatzera” eramaten dute, erdiguneko batzordea alderdiaren antolaketa ordezkatzera, eta, azkenik, diktadorea erdiguneko batzordea ordezkatzera; horrek, bestalde, batzordeak “orientazioa” ematera eramaten ditu (eta beratu aldatzera “herria isiltasunean mantentzen den” bitartean); “kanpo”-politikan, berriz, metodo horiek proletalgoaren klase-interesekin indar abstraktua eta ez bere klase-interesekin kontzientzia duen proletalgoaren benetako indarra erabiliz gainontzeko antolakunde sozialen gain presioa egiteko ahaleginetan adierazten dira. “Metodo” hauek, ikusi dugun bezala, guk hartutako programaren eta gure alderdi-lanaren edukiaren identitatea a priori aurreuposatzen dute. Laburbilduz: “Metodo” horiek taktika politikoaren auziak sozialdemokrazian erabat desagertzera daramate.*

Lenin burkideak hau esplizituki baieztatu du baztertu ezin diren tesi jakin batzuetan. (...)

Trotsky-k ez du kontuan hartzen poliziaren aurkako neurriak bere antolakuntza-forma zehazterako orduan, eta konspirazio-ekintza antolakuntza komunistari berezkoa ez zaiola dio, komunisten helburua ezarritako botere politikoa uzkailezia izango ez balitz bezala. Honek mentxebikeen legalismo eta masismoarekin bat egitera darama.

“(...) Jauntxo-anarkismo hau errusiar nihilistaren oso berezia den zerbait da. Alderdiaren antolaketa munstrozko “fabrika” bat iruditzen zaio; zatiak osotasunari eta gutxiengoak gehiengoari men egitea “menderatzea” iruditzen zaio (ikus Axelrod-en liburuxkak); erakunde zentral baten zuzendaritzapean lanaren banatzeak garrasi tragikomikoak eragiten ditu gizakiak mekanismo baten “gurpil eta torloju” bihurtzearen aurka (eta eraldaketa horien artean, izugarriena iruditzen zaiona erredaktoreena kazetari soiletan da), Alderdiaren antolaketa-estatutuen aipamenak mespretxuzko keinua eragiten du eta estatuturik gabe bizi litekenaren (“formalistei” zuzendutako) oharpen destainaria.”

Pauso bat aurrera, bi pauso atzera (1904) – Lenin

Trotsky-k berriro jotzen du jakobinoen metaforara “praktikoak” (Lenin eta aldekoak) izendatzeko, Lenin-ek egindako konparaketa baten harira. Bere ustez lanaren banaketa Alderdiaren baitan beharrezkoa da baina “fabrika-diziplina” borrokatu beharra dago. Boltxebikeak “sofistak” eta “diziplinaren metafisiko eta mistikoak” deitu ondoren, eta ez edozein diziplinarenak, baizik eta

“kuartel-diziplinarenak”, Lenin-en “manufaktura-idealak” kritikatzan ditu. “Baina dialektika eta Lenin bi dira”:

“Eta hau guztia marxismoa eta pentsamendu sozialdemokrata da! Zinez, ezin da zinismo gehiago agertu proletalgoaren ondare ideologiko onenaren aurrean Lenin burkideak egiten duena baino! Bere ustez, marxismoa ez da azterketa zientifikorako metodo bat, sekulako erantzukizun teorikoak ezartzen dituen metodo bat; ez! Behar denean zapaldu daitekeen amantala da! Arbel zuri handi bat, non norberaren handitasuna eta metro tolesgarri bat proiektatu daitekeen alderdiaren kontzientzia neurtzerako orduan! ...”

Trotsky-ren aburuz batzorde lokalak ez lirateke Erdiguneko Batzordearen “botere menperatzailearen” mendera egon behar, “leninista puruen Kredoak” dion bezala, honetako “ergelek” egiten duten gauza bakarra lehenen lana desantolatzea eta hauek desegitea delako. Horregatik batzorde bakoitzak bere kabuz jardun behar du eta besteekin erkatu, bakoitzak Erdiguneko Batzordeak zehaztutakoa ez den ildo propioa garatzeko aukera izanez, frakzio bilakatzeraino.

“Helburu hori lortzeko bidean, “gutxiengoak” “gehiengoak” diziplina deitzen duen horri men egin behar badio, ondorio bakarra dago: hil dadila mugimenduaren bizi-interesak zapaltzen dituen “diziplina” hau! Nolanahi ere, “historia” arduratuko da horretaz; izan ere, Iekaterinoslav-eko batzordea ez bezala, ez zaio “Mundua hil dadila diziplina bizirik dagoen bitartean!” printzipio idealistari lotzen. Aitzitik, dialektika on gisa, historiak beti arrazoia ematen dio garaipenaren alde dagoenari, garaipena, azken finean, iraultzaren kausaren zereginak hobeto, osoago eta sakonago ulertzen dituenaren alde aurkitzen baita beti.”

Kautski, Parvus eta Luxemburg Lenin-en “zentralismoaren” aurka agertu izana gogoratu eta gero, Trotsky-k berearen eta “argiztapen burokratiko une batean” “gure jeneralismoak” (Lenin, bai) marratutako zentralismoaren arteko desberdintasuna azalduko digu: berea “europarra” da, Lenin-ena “asiatikoa” den bitartean.

““Zentralismoak” (eta hori da gutxienez ulertu behar dena) ez duelako erdiguneko batzordea esan nahi, organo zentrala edo kontseilua, askoz handiagoa den beste zerbait baizik: zentralismoak, batez ere, kide guztien parte-hartze aktiboa dakar alderdi osoaren bizitzan. Ondo ulertuta, zentralismo “europarraz” hitz egiten dut, eta ez “zentralismo” autokratiko-asiarraz. Azken horrek ez du parte hartze hori suposatzen baizik eta baztertu ere egiten du.”

“Jakobino puruek” (boltxebikeek) Marx bera gillotinatuko luketela iradoki ondoren, “Maximilien” Lenin-en “susmo eta mesfidantza-politikaren” helburua argitzen digu Trotsky-k: “intelligentsia teorikoki ikaratzearena”. Honetarako “Egia ortodoxoaz” baliatzen omen zen Lenin:

“(...) Egia ortodoxoak dena aurreikusten du, baita kooptazio kontuak ere. Hau eztabaidatzen duena baztertua izan behar da; zalantza egiten duena baztertua izatetik gertu dago; kuestionatzen duena zalantzarako prest dago. Ligaren kongresuan Lenin-ek emandako hitzaldiak ikuspegi “jakobinoen” genero horren adierazpen klasikoa eskaintzen du, alderdiaren garapen bideei dagokienez. Berak, Lenin-ek, “Vérité” antolatzaile erabatekoa daki, berak du “plana” eta egikaritzen ahalegintzen

da. Alderdia loraldi-egoera batera iritsiko da, baldin eta bera, Lenin, ez badago alde guztietatik azpikeriez, azpijokoez eta tranpez inguratuta. (...) Inpresio orokorra (antolaketa-batzordearen lan-aldi osotik ez ezik, kongresu beretik ere ondorioztatzen dena) gure artean borroka amarrutsu eta azpikeriazko bat garatu den inpresioa da.”

Lenin-ek lana eraginkorragoa egiteko eta Alderdia ez kaltetzeko asaldariak honetatik urrundu behar direla ondorioztatzen duela dio Trotski-k, “diktadore” honen (Lenin-en) botereaz trufatzen den bitartean:

“Beste hitz batzuekin, alderdiaren onerako “setio-egoeraren” erregimena ezartzea beharrezkoa dela frogatu da; diktator seditionis sedandae et rei gerundae causa [sedizioa erreprimitu eta auziak kudeatzeko diktadore bat] jarri behar da buruan, erromatar terminologiaren arabera. Baina “ikararen” erregimenak bere existentziaren lehen egunetatik bere ezintasun osoa erakutsi du. Seditionis sedandae diktadoreak ez zuen jakin ez “desantolatzaileak” bere agintearen menera jartzen, ez alderditik kanporatzen, ezta diziplinaren burdinazko lepokoan sartzen ere. Ez zuen jakin “atzeratutako elementuak” beldurtzen, segurtasunez, posizio berriak hartzen jarraituko dutenak etengabe. Eta gure Robespierre bihozgabetuak hain aplikazio inkontzientez kopiatzen zuen harek esandako hitz ezkorrak errepikatzea beste erremediorik ez du: “Nola bizi gauzen ordena honetan non intrigak egiaren gaineko betiereko arrakasta duen, non justizia gezurra den, non grinarik zitalenek, atzematerik barregarrienek, bihotzetan gizateriaren interes sagratuen lekua hartzen duten?” ...”

Trotski-ren arabera Lenin-en “porroten eta mesfidantzaren” jatorria gizartearen eta Alderdiaren garapen-bideak ez ulertzean zegoen.

“Lenin-en mesfidantza hau, asmo gaiztokoa eta moralki penagarria, jakobinismoaren intolerantzia tragikoaz eskaintzen duen karikatura argi hau, ez da, aitortu beharra dago, lehengo Iskra-ren taktikaren herentzia (eta, aldi berean, adierazpena) baino. Baina metodo eta praktika hauek, garai historiko jakin batean justifikatuta egon zirenak, kosta ahala kosta likidatu behar dira orain, bestela, gure alderdia erabateko deskonposizioarekin mehatxatzen baitute: politikoa, morala eta teorikoa.

Ez da kasualitatez, baizik eta gertaera bereizgarri bat, gure alderdiko hego atzerakoiaren buruak, Lenin burkideak, psikologikoki behartuta dagoela uste izatea, jakobinismo karikatureskoaren metodo taktikoak mantenduz, sozialdemokraziaren definizio bat egitera, gure alderdiaren klase-izaeraren aurkako atentatu teoriko bat besterik ez dena.”

Azkenik, “proletalgoaren gaineko diktadura” ezartzeko botere-aparatua prestatzeaz salatzen ditu “substituista zentralizadoreak” (boltxebikeak), baita “kultura uralikoaren aroma originaleko” ‘blankistak’ (Marx-en garaiko Blanqui-ren jarraitzaileak, konspirazio-metodoen aldekoak eta masa-antolakundeen aurkakoak) izateaz ere. Lenin-ek jada emana zuen erantzuna Errusiako ‘girondinoei’ (bi joeren arteko erreformistak eta jakobinoek exekutaturakoak):

“Axelrod burkideak badaki, seguru asko, sozialdemokrazia garaikideko girondinoek beti eta nonahi jotzen dutela “jakobinismoa”, “blankismoa”, eta abar. terminoetara bere aurkariak ezaugarritzeko.”

Pauso bat aurrera, bi pauso atzera (1904) – Lenin

Lan hau argitaratu eta gero Lenin-ek bere iritzia eman zien honen edukiaren inguruan beste boltxebike batzuei zuzendutako gutun batean:

“Duela gutxi Trotski-ren liburuxka berri bat argitaratu da, iragarri dutenez, Iskraren erredakzioaren izenean. Beraz, Iskra berriaren “Kredo” moduko bat da. Liburuxka gezurrik lotsagabeena da, gertaeren faltsutzea. Eta hori Erdiguneko Ataleko erredakzioaren izenean egiten da. Bide guztietatik laidotzen da iskristen lana, ekonomistek askoz gehiago egin dutela, iskristek ez dutela ekimenik izan, ez dutela proletalgoan pentsatu, gehiago arduratu direla intelektual burgesez eta leku guztietara burokratismo geldiarazlea eraman dutela esanez: haien lana “Kredo” ospetsuaren programa praktikara eramatera mugatu da. II. Biltzarrea, bere esanetan, zirkuluen berezko antolaketa-metodoak finkatzeko ahalegin atzerakoia izan da, eta abar. Liburuxka hau hala Erdiguneko Ataleko egungo Erredakzioari nola alderdiko ekintzaile guztiei emandako zaplazteko bat da. Liburuxka hau irakurtzean argi ikusten da “gutxiengoak” hainbeste gezur esan duela eta hainbeste faltsutzen duela, ez dela gai izango ezinbestekoezer sortzeko. Borrokatzeko gogoia sentitzen dute, eta hemen jada badago zergatik borrokatu.”

E. Stasova, F. Lengnik eta beste batzuei gutuna (1904) – Lenin

1905ko urrian Trotski errusiar inperiora bueltatu zen iraultza saiakeran parte hartzera eta San Petersburgeko ‘sobiet’-ean (langile, nekazari eta soldaduen batzordeak) izan zen hautatua mentxebikeen ordezkari gisa. Bere ekarpena “Tsarismoaren aurka, behargin-Gobernua!” aldarrikatzea eta matxinada armatuaren aurkako propaganda egitea izan zen.

“Iraultza etengabearen” teoria

Errusiako kapitalismoaren eta gainegituraren garapen bereziak, inperialista eta militar-feudala aldi berean, eztabaida handia eragin zuen EBASDaren baitan antolatu beharreko iraultzaren izaeraren eta honen fase desberdinetan garatu beharreko aliantzen inguruan. Marx eta Engels jada honetaz mintzatu ziren absolutismoaren aurkako Germaniako iraultza aztertzerakoan, hauek iraultzan zehar etengabe aldatzen direla azaleratuz:

“Eskaera hauek ezin dute inolaz ere proletalgoaren alderdia asetu. Burgesia ttipi demokratikoak iraultza ahalik eta azkarren burutu nahi duen bitartean, eta gehienez ere aurreko asmoak betez, gure interesa eta zeregina da iraultza iraunkorra egitea, klase gutxi gorabehera aberats guztiak boteretik kanporatuak izan arte, proletalgoak estatu-boterea erdietsi arte, eta proletarioen elkarteak hainbeste aurrera egin duen, ez soilik herrialde bakar batean baizik eta mundu osoko herrialde agintedun guztietan, non proletarien arteko lehia herrialde hauetan amaitu den eta gutxienez ekoizpen-indar erabakiorrak proletarioen eskuetan dauden.”

Erdiguneko Batzordearen gutuna Liga Komunistari (1850) – Marx eta Engels

Mentxebikeek, Mendebaldeko sozialdemokraziaren ikuspegi ekonomizistaren ildotik, Errusian kapitalismoaren garapen urriaren ondorioz zegoen egoera ekonomiko atzeratuak iraultza sozialista egotea ezinezkoa egiten zuela jotzen zuten. Hortaz, proletalgoa burgesia liberalari demokrazia burges bat ezartzen laguntzera mugatu behar zen, etorkizunean, kapitalismoa guztiz garatuta zegoenean, sozialismoaren aldeko borroka hasi zitekeelarik. Hau ‘etapismoa’ izango litzateke.

Boltxebikeek, aitzitik, Lenin buru zutela, inperio tsaristako gainegitura feudalak iraultza sozialista eman baino lehen iraultza burges bat halabeharrez eskatzen zuela zioten, baina honen gidaritza ez zela burgesiaren eskuetan utzi behar, baizik eta proletalgoak hegemonia lortu behar zuela ‘behargin eta nekazarien diktadura demokratikoaren’ bitartez.

“Praktikan, horrek esan nahi du: lurra nekazari txikien klasearen esku uztea, han non jabetza zapaltzaile handia, morrontza, nagusi diren eta ekoizpen sozialista handirako baldintza materialik ez dagoen; nazionalizazioa, iraultza demokratikoaren garaipen osoaren baldintzapean, eta ogasun kapitalista handiak behargin-elkarteei ematea, iraultza demokratikotik berehala hasiko baikara igarotzen, eta hain zuzen ere, gure indarren arabera, proletalgo kontziente eta antolatuen indarren arabera, iraultzara sozialistara. Etenik gabeko iraultzaren aldekoak gara. Ez gara bide erdian geratuko. (...)”

Sozialdemokraziaren jarrera nekazarien mugimenduaren aurrean (1905) – Lenin

Behin fase demokratiko-burgesaren egitekoak burututa, proletalgoak jarraian iraultza sozialista eramane behar zuen aurrera, bere diktadura herri langilearen gainontzeko geruzekin aliantzan (landareremukoak barne) ezarriz.

“Proletalgoak iraultza demokratikoa burutu behar du, nekazarien masa erakarriz, autokraziaren erresistentzia indarrez zapaltzeko eta burgesiaren ezegonkortasuna geldiarazteko. Proletalgoak iraultza sozialista gauzatu behar dute, biztanleriaren elementu erdiproletarioen masa erakarriz,

burgesiaren erresistentzia indarrez hautsi eta nekazarien eta burgesia ttipiaren ezegonkortasuna geldiarazteko. Horiexek dira proletalgoaren zereginak, Iskra berriaren aldekoek [mentxebikeek] iraultzaren zabaltasunari buruzko haien arrazonamendu eta ebazpen guztiak hain era estuan ulertzen dituztenak.”

Sozialdemokraziaren bi taktika iraultza demokratikoan (1905) – Lenin

Trotsky-k, ordea, ikuspegi mentxebikearen bere aldaera propioa garatu zuen. 1905 urtean zehar “iraultza etengabearen” teoria sortu zuen Parvus Germaniako sozialdemokratarekin batera (aurrerago arma-salerosle bilakatu eta I. Mundu Gerrate inperialista babestuko zuenak).

1906. urtean, berriro barne-erbestean zegoela idatzitako ‘Emaitzak eta aukerak’ lanean, Trotsky-k teoria honen lerro nagusiak plazaratu zituen.

“Baina noraino irits daiteke behargin-klasearen politika sozialista Errusiako baldintza ekonomikoetan? Gauza bat esan dezakegu ziurtasun osoz: askoz lehenago egingo duela topo oztopo politikoekin herrialdearen atzerapen teknikoarekin baino. Errusiar behargin-klasea ezingo litzateke boterean mantendu, ezta bere aldi baterako domeinua diktadura sozialista iraunkor bihurtu ere, europar proletalgoak eskainitako laguntza estatal zuzenik gabe. Honetaz ezin da une batez ere zalantzarik eduki. Eta, bestalde, ezin da zalantzan jarrietz ere iraultza sozialista batek mendebaldean behargin-klasearen aldi baterako domeinua diktadura sozialista zuzenean bihurtzea ahalbidetuko ligukeela.”

Errusiako iraultza burgesak Mendebaldeko herrialde garatueneren, batez ere Germaniaren, “laguntza estatal zuzena” behar zuen iraultza sozialistara igaro ahal izateko Trotsky-ren esanetan. Hots, ezinezkoa zen iraultza sozialista aurrera eramatea Errusian hau Germanian eman baino lehenago. Era honetan, Mendebaldean iraultza eman ezean errusiar iraultza usteltzera kondenatzen zuen. Beraz errusiar iraultzaren egiteko nagusia Germaniako iraultza sozialista eragitea izango litzateke:

“Kautski-k 1904. urtean idatzi zuen, garapen sozialaren perspektibei buruz hitz egiten zuenean eta Errusian iraultza hurbil baten aukera aztertzen zuenean: «Errusian, iraultzak ezingo luke berehala erregimen sozialista batera eraman; horretarako, herrialdearen baldintza ekonomikoak ez daude, ezta gutxiago ere, behar bezain helduak». Baina Errusiako iraultzak bultzada handia eman behar dio mugimendu proletarioari Europako gainerako herrialdeetan, eta, borrokaren berpiztearen ondorioz, proletalgoak nagusitasunezko posizioa lor lezake Germanian.”

Trotsky-ren ikuspegi ekonomizista eta eurozentrikoa ageri da hemen berriro ere. Kapitalismoaren garai aurre-monopolistan iraultza sozialista ekoizpen-modu hau gehien garatu zuten herrialdeetan lehenik ematea aurreikustea zentzuzkoa zen arren (Marx eta Engels-ek egin zuten eran), behin kapitalismoa inperialista bilakatuta eta mundo osora hedatu ostean honek zentzua izateari utzi zion, iraultza “katearen katebegi ahulenean” gauzagarria eginez, Lenin-en esanetan.

“Nekazalgoaren izaera burges ttipia eta primitibismoa, beren zerumugaren estutasun abarkaduna, nazioarteko arazo politikoetatik eta beren interdependentzietatik isolatzea, oztopo larria izango dira boterean dagoen proletalgoaren politika iraultzailea egonkortzeko.”

Gainera, Trotski-k proletalgoaren nekazariekin aliantza oro baztertzeko masa atzerakoi gisa ikusten baitzuten, sozialismora igarotzean bloke gisa iraultzari bizkarra emango ziotenak. Errusiar langileria, ondorioz, Europako proletalgoaren mesedetan jardun beharko zukeen erreakzioak suntsitu ez zedin:

“Errusiar proletalgoa boterean aurkitzen bada, gure iraultza burgesaren aldi baterako arrakastaren ondorioz baino ez bada ere, orduan nazioarteko erreakzioaren etsaitasun antolatua eta nazioarteko proletalgoaren laguntza antolaturako gogoia izango ditu aurrean. Bere indar propietara abandonatuta, errusiar behargin-klasea kontrairaultzaren ondorioz halaberrez suntsitua izango zen nekazalgora beragandik aldentuko zen unean. Bere menderatze politikoaren patua, eta, beraz, errusiar iraultza osoaren patua, Europako iraultza sozialistaren patuarekin lotzea beste aukerarik ez zaio geratuko.”

Trotski lurraren banaketaren aurka zegoen ere, lurjabe handiak desjabetu ondoren burutu beharrekoa, eta nekazariak metodo industrialen bidez antolatzearen alde. Honek garrantzia handia zeukan herrialdearen gehiengo zabala landa-eremuan bizi zen, hau da, gehienbat burges ttipia zen egoera batean. Nekazalgoaren inguruan antzeko usteak zituen Lasalle-ri erantzunez, Marx-ek esan zuen:

“Bestalde, proletalgoa iraultzailea da burgesiaren aurrean, industria handiaren oinarrian sortu izanagatik ekoizpenari bere izaera kapitalista kentzeko asmoa duelako, burgesiak iraunarazi nahi duena. Baina ‘Manifestuak’ gehitzen du “geruza ertainak... iraultzaileak bihurtzen direla beren berehalako iragatea proletalgora haien aurrean dutenean”.

Ondorioz, ikuspuntu honetatik, zentzugabekoa da baita ere esatea behargin-klasearen aurrean “masa atzerakoi bat besterik osatzen ez dutela”, burgesiarekin batera eta jaun feudalekin ere.”

Gotha-ko programari kritika (1875) – Marx

1909. urtean idatzitako ‘Gure desadostasunak’ lanean Trotski-k ideia hauetan sakontzen du: proletalgoaren eta nekazalgoaren diktaduraren aurka kokatzen da, hau “idealismotzat” joz; iraultzan eman beharreko faseak nahasten ditu eta beste klaseekin beharrezko aliantzak gutxien ditu, ‘muzhik’-ak (nekazari txiroak) mespretxatuz.

“(..) Izan ere, proletalgoak bere misioa darama aurrera, garai batean burgesiak egin zuen bezala, nekazarien klasean eta burgesia ttipian sostengua bilatuz. Proletalgoak zuzentzen du landa-eremua, herriak borrokara eramaten ditu eta bere asmoen arrakastan interesatzen ditu, baina bera da, nahitaez, buruzagi bakarra. Ez da “nekazarien eta proletalgoaren diktadura”, baizik eta nekazarietan sostengatutako proletalgoaren diktadura. (...) Orain murrizketa politiko hau “berme” antisozialista batekin osatzea proposatzen zaigu, proletalgori kolaboratzaile bat inposatuz: muzhika. (...)”

Eztabaida honen inguruan, “nekazal-mugimendua atzerakoi dela” edota “proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura garapen ekonomikoaren bilakaera osoarekin kontraesan dagoela” esatea ideia mentxebike “itsusi, ergela eta arnegatua” zela adierazi ostean, Lenin-ek esan zuen:

“Gure herrialdean, gure garaiko krisi bakoitzean (1905–1909–19??), “muzhik”-aren mugimendu “demokratiko orokor” bat sortuko da, nahitaez sortzera behartuta dago eta hau baztertea funtsezko akatsa izango litzateke, praktikan mentxebismora eramango lukeena, nahiz eta teorian eztabaida beste plano batean koka daitekeen. (...)”

Skvortsov-Stepanov –i gutuna (1909) – Lenin

Marx-ek aurreko mendean Germaniako iraultza aztertzerakoan jada nekazal mugimendua iraultza proletarioarekin batzeko komenigarritasunaz mintzatu zen:

“(...) Germanian dena iraultza proletarioa nekazari-gerraren bigarren edizioaren batekin babesteko aukeraren mende egongo da. Orduan, dena nahi bezala aterako da...”

Engels-i gutuna (1856) – Marx

Trotsky “hitzontziaren” (Lenin dixit) arabera, ordea, iraultzaren fase demokratiko-burgesaren egitekoak burutzeko ezarri beharreko ‘proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoa’, “diktadura sozialista ez denez” proletalgoa boterean politikoki “automugatzera” behartzen du eta “demokrazia burgeseko erregimen batean” geratu behar da.

“(...) Pentsatuko bagenu, dio, erregimen aldaketa bat zentzu sozialistan egin genezakeela, porrot politiko baterantz joango ginatke. Baina proletalgoak, nekazariekin batera boterea hartzean, argi eta garbi ulertzen duenez bere diktadurak izaera “demokratikoa” baino ez duela, dena salbatuta dago. Lenin-ek nekazari errepikatzen du ideia hau 1905etik. Baina, hala eta guztiz ere, ez da zuzena. (...) Lenin-ek zailtasun objektibo hau ezartzen dio proletalgoaren kontzientziari eta arazoa, ez fede mistiko batean, baizik eta eskema “zientifiko” batean jatorria duen klaseko aszetismo batekin konpontzen du. Nahikoa da ikuskera teoriko hau aztertzea ulertzeko zein idealismotik datorren eta zenbateraino den ez oso sendoa. (...) Egia da mentxebikeen eta boltxebikeen artean funtsezko desberdintasun bat dagoela: mentxebikeen doktrinaren alderdi anti-iraultzaileak argi eta garbi agertzen diren bitartean, boltxebikeen ideietan anti-iraultzailetik egon daitekeenak ez gintuzke mehatxatuko iraultza-garaipenaren kasuan baino.”

Trotsky-k nekazalgoaren gaitasun iraultzailea baztertu egiten du eta proletalgoa boterera eramateko honekin eraiki beharreko aliantza hondatu. Bere ustez proletalgoak ezin du nekazalgoa zinez bereganatu bere ezjakintasun eta pasibotasun politikoaren ondorioz eta horregatik honen babesaren ez da ziurra, hau edozein unean proletalgotik burgesiara igaro daitekeelako.

“(...) Baldintza hauetan, taktika demokratikoak burgesia liberalaren aurkako borroka irekita baino ezin du eraman. Horretaz ohartu behar dugu. Benetako bidea ez dago nazioak bere etsaiaren (zarismoaren) aurka duen fikziozko ‘batasun’ batean, baizik eta klaseen arteko borrokaren garapen sakon batean, nazioaren baitan bertan... (...)”

“Iraultza etengabearen” eskematismo baldar honen aurrean, iraultzaren erdibideko fase guztiei ez ikusiarena egiten diena eta amaierakoa lehena ipiniz bere garapen jarraitua hondatzen duena, Lenin-ek adieraziko zuen:

“Trotski-ren funtsezko akatsa iraultzaren izaera burgesa alde batera uzten duela da, eta ez duela iraultza horretatik iraultza sozialistara igarotzearen ideia argirik. Funtsezko akats horretatik sortzen dira akats partzialak, Martov burkideak errepikatzen dituenak onespenez eta sinpatiaz aipu pare bat erreproduzitzean.”

Proletalgoaren borrokaren helburuak gure iraultzan (1909) – Lenin

Bere teoriaren lehen bertsio honetan Trotski-k nekazalgora gutxiesten du eta bere ikuspegi eurozentrikoari jarraikiz hau biztanleriaren gehiengo zabala osatzen duen herrialde koloniar eta erdi-feudaletan burgesiaren erreserba izatetik proletalgoaren erreserba izatera igarotzeko aukera zapuztu, mundu-mailako iraultza eta klase-borrokarentzat garrantzia handia duena.

Teoria hau agertu eta hamar urtera, Lenin-ek, heldu beharreko iraultzan klaseen arteko aliantzak aztertzerakoan, ironiaz Trotski-ren teoria “bikain” honi buruz zioen:

“(..) Trotski-k modu okerrean heltzen dio zeregin honi Nashe Slovo-n, 1905eko bere teoria “originala” errepikatzen ari baita, eta ez du pentsatu nahi, hamar urteren iragatean, bizitzak teoria bikain hau aintzat hartu ez izanaren arrazoian.

Boltxebikeen jatorrizko teoriatik, Trotski-k maileguan hartu du borroka iraultzaile proletario erabakigarri baterako eta proletalgoaren botere politikoa konkistatzeko deia, mentxebikeetatik, berriz, nekazalgoaren paperaren “arbuioa” hartu du maileguan. (...) Egia hau hain da nabaria ezen Trotski-k Pariseko dozenaka artikulutan emandako milaka esaldiek ere ez dutela “gezurtatuko”. Trotski, izan ere, Errusiako politikari liberal-langileei laguntzen ari da, nekazalgoaren papera “arbuiatzeagatik” nekazariak iraultzarako altxatzeari uko egitea ulertzen dutenak!”

Iraultzan bi lerroei buruz (1915) – Lenin

“Judas Trotski”-ren frakzioa

1905eko iraultzaren porrotaren ostean erreakzio-aldi batean murgildu zen tsarismoa, mugimendu iraultzailea hainbat arlotan atzera egitera behartuz. Egoera honen aurrean boltxebikeen aurkako bi joera agertu ziren: ‘likidatzaileak’, tsarismoaren instituzioetan integratzeko borroka ilegala guztiz baztertzearen aldekoak (mentxebikeen baitan), eta ‘otzobistak’, lan osoa soilik klandestinoa izatera aldekoak. Trotski, bere bigarren espetxealditik ihes egin eta gero, Finlandia eta Germaniatik igaro ostean Vienan finkatu zen 1907an. Handik, joeren arteko “printzipiozko desadostasunak ez zeudela” argudiatuz, hauek bateratzen saiatzen aritu zen.

““Pravda”-ri dagokionez, irakurri al duzu Trotski-k Inok-i bidalitako gutuna? Espero dut konbentzituko zinela, irakurri baduzu, Trotski-k Riazanov eta konpainia motako arribistarik eta frakzionalistarik zitalena bezala jokatu duela. Edo berdintasuna Erredakzioan, EBarri menderatzea eta Trotski izan ezik beste inor ez eramatea Parisera (berak nahi du, doilor horrek, gure kontura “ipini” “Pravda”-ren lagun-talde osoa!), edo abenturazale horrekin haustea eta mozorroa kentzea Atal Nagusian. Alderdiaz hitzaldia egiten du eta beste zatikatzaile guztiak baino okerrago portatzen da.”

Zinoviev-i gutuna (1909) – Lenin

1910ean Trotski-k ‘Vienako Kluba’ sortu zuen (“trotskisten zirkulua atzerrian, Trotski-ren eskuetan zegoen peoi multzoa”, Lenin-en esanetan). Abuztuan Pravda aldizkariaren erredakziotik Erdiguneko Batzordearen ordezkaria kaleratu zuen, aldizkaria bere frakzioaren aldeko atala bilakatuz. Hortik egoeraren errua “buruzagi boltxebikeei” eta “izpiritu sektarioari, indibidualismo intelektualari eta fetitxismo ideologikoari” egotzi zien.

“(…) Trotski-k, bere ebazpenaren lehen hitzetan jada, kontziliazionismo okerrenaren, komatxo arteko “kontziliazionismoaren”, zirkuluko kontziliazionismoaren, filisteoaren, espiritu osoa adierazi du, “pertsona jakin batzuk” hartzen dituena, eta ez alderdi lanaren ildo zehatza, espiritu zehatza, eduki politiko eta ideologiko zehatza.”

Publizista baten oharrak (1910) – Lenin

Berak ez zuen joeren agerpena erreakzio-aldiarekin lotuta zegoela ulertzen eta Alderdiaren “deskonposizioaz” mintzatzen zen, hau indartu eta arazteko borroka bultzatu ordez.

““Ilusio bat” da pentsatzea — adierazten du Trotski-k — mentxebismoak eta boltxebismoak “erro sakonak bota dituztela proletalgoaren barren-barrean”. Gure Trotski maisua den esaldi ahostun baina hutsalen adibide baten aurrean gaude. Boltxebikeen eta mentxebikeen arteko desadostasunaren sustraiak ez daude “proletalgoaren barrean”, baizik eta errusiar iraultzaren eduki ekonomikoan. Eduki hau alde batera uztean, Martov-ek eta Trotski-k Errusiako alderdiko barne borrokaren zentzu historikoa ulertzeko aukerari uko egin diote. (...)”

Trotski-k boltxebismoa faltsutu egiten du, Trotski-k ezin izan baitzuen inoiz bereganatu iraultza burges errusiarrean proletalgoaren paperari buruzko ikuskera gutxi gorabehera zehatz bat.

(...) Bigarrenik, faltseria honek agerian uzten du, praktikan, Trotski-ren frakzioaren publizitate-“politika”. Denek ikus dezakete orain, Trotski-k Pravda-tik EBko ordezkaria bota ondoren, Trotski-ren enpresa frakzio bat sortzeko saiakera dela. Bere frakzioaren publizitatea egitean, Trotski-k ez du erreparatzen germaniarrei esaten “alderdia” desintegratu egiten dela, bi frakzioak desintegratzen direla, eta bera, Trotski, dela dena salbatzen duen bakarra. Izan ere, denok ikusten dugu orain — eta trotskisten ebazpen berrienak (1910eko azaroaren 26koa Vienako klubaren izenean) erliebe bereziz erakusten du — Trotski-k konfiantza duela soilik likidatzaileen eta Vperiod-ekoen artean.

Hurrengo adibideak erakusten du Trotski iristen den lotsagabekeria alderdia iraintzeko eta bere burua goraiatzeko germaniarren aurrean. Trotski-k idazten du Errusiako “masa langileek” “Alderdi Sozialdemokrata bere hedabideetatik kanpo dagoela” (letra etzana Trotski-rena da) uste dutela eta “sozialdemokraziarik gabeko sozialdemokratez” hitz egiten du.

(...) Trotski-k, aldiz, bere zalantza pertsonalak besterik ez du adierazten. 1903an mentxebikea izan zen; 1904an mentxebismotik aldendu zen; 1905ean mentxebikeetara itzuli zen, baina fraseologia iraultzailea izatea uste izanez; 1906an haiengandik bereizi zen berriro; 1906ko amaieran demokrata-konstituzionalistekin hauteskunde-itunak defendatu zituen (hau da, berez, mentxebikeekin egon zen berriro), eta 1907ko udaberrian Londreseko Biltzarrean esan zuen Rosa Luxemburg-ekin zuen aldea “norbanakoen ñabarduren arteko aldea zela, joera politikoena baino gehiago”. Trotski-k gaur frakzio baten fardel ideologikoa plagiatzen du eta bihar beste batena, eta hori ikusita bi frakzioen gaintik aldarrikatzen da. Teorian, Trotski ez dago batere ados likidatzaileekin eta otzobistekin, baina, praktikan, gauza guztietan dago ados Golos eta Vperiod-ekoekin.”

Alderdiko barne-borrokaren zentzu historikoa Errusian (1910) – Lenin

Gainera “bateratze-biltzarre” baterako deia plazaratu zuen EBASDren Erdiguneko Batzordearen gaintetik eta honen onespenerik izan gabe.

“Baina Trotski-ren erasoak boltxebikeen blokeari eta plejanobistei berriak ez badira, bai da berria bere ebazpenanean iristen den ondorioa: Vienako Klubak (hau da, Trotski-k) “EBASDaren Biltzarre bat prestatzeko eta deitzeko alderdi osoaren funtsa” bat antolatu du”.

Hau bai da berria. Eszisiara argiki jotzen duen ekintza da. Alderdiko legalitatearen urraketa nabarmena da eta Trotski-ren abentura baten hasiera, zeinetan garondoa hautsiko duen.”

Errusian EBASDko EBaren elkargora gutuna (1910) – Lenin

1911. urtean Lenin-ek Trotski-ren frakzioaren ibilbidearen laburpen bat plazaratu zuen, zeinetan Trotski “Judas” deitu zuen:

“Judas Trotski-k likidazionismoaren eta otzobismoaren aurka egin zuen Osoko Bilkuran. Jainkoa hartu zuen lekuko, eta alderdiaren defendatzailea zela zin egin zuen. Diru-laguntza bat jaso zuen.

Osoko Bilkura ondoren, EBa ahuldu egin zen eta Vperiod-ekoek haien indarra handitu zuten: dirua lortu zuten. Likidatzaileak indartu egin ziren, eta Nasha Zaria-n, Stolipin-ek ikusita, alderdi ilegalari tu egin zioten.

Judas-ak Pravda-tik bota zuen EBko ordezkaria eta Vorwärts-en artikulu likidazionistak argitaratzen hasi zen. Osoko Bilkurak izendatutako Elkargo Batzordearen erabaki zehatzaren aurka, non alderdiko hizlari bakar batek ere ez zuela Vperiod-en eskola frakzionalera joan behar adostu zuen, Judas Trotski hara joan zen eta haiekin eztabaidatu zuen biltzarrearen plana. Plan hau orain Vperiod taldeak argitaratu du orri batean.

Eta Judas honek bular kolpeak ematen dizkio bere buruari eta alderdiaren printzipioei leiala dela oihukatzen du, ziurtatuz ez dela arrastaka joan, ezta gutxiago ere, Vperiod-ekoen eta likidatzaileen aurrean!

Hori da Judas Trotski-ren lotsaren gorritasuna.”

Judas Trotski-ren lotsaren gorritasuna (1911) – Lenin

Lenin-en aburuz trotskistak ezein likidatzaile baino okerragoak ziren, lehenek haien likidazionismoa ezkutatu egiten zutelako beharginen aurrean:

“Hemendik argi eta garbi ondorioztatzen da Trotski eta bere antzeko “trotskistak eta adostaileak” edozein likidatzaile baino kaltegarriagoak direla, zeren likidatzaile konbentzituak era irekian azaltzen baitituzte beren iritziak, eta beharginei errazagoa zaie haien faltsukeria ulertzea; baina Trotski jaunek beharginak engainatzen dituzte, gaitza estaltzen dute eta ezinezkoa egiten dute mozorroa kentzea eta hartatik sendatzea. Trotski-ren taldetxoa babesten dutenek beharginei gezur-eta engainu-politika babesten dute, likidazionismoa estaltzeko politika. Potresov jauna eta konpainiarentzako ekintza-askatasun osoa Errusian, eta bere jardueren estaltzea esaldi “iraultzaileekin” atzerrian: horixe da “trotskismoaren” politikaren esentzia.”

“Behargin”-alderdi stolipiniarraren eremuaz (1911) – Lenin

Ondorioz eztabaidak likidatzaile eta otzobista jatorrekin eman behar ziren eta ez “kalitate baxueneko diplomatikoekin”:

“Trotski-rekin ezin da sakonki eztabaidatu, ez baitu inolako iritzirik. Likidatzaile eta otzobista konbentzituekin eztabaida daiteke eta eztabaidatu behar da; baina batzuen eta besteen akatsak ezkutatzera jolasten den gizon batekin ez da eztabaidatzen: mozorroa kentzen zaio... kalitate baxueneko diplomatiko gisa.”

Trotski-ren diplomaziaz eta alderdiaren defendatzaileen plataforma batez (1911) – Lenin

Likidatzaileen “likidazioa”

1912ko urtarrilean EBASDren VI. Biltzarra egin zen Pragan, Lenin-ek gidatutakoa. Honetan mentxebike likidatzaileak eta EBaren ildo onartzen ez zuten frakzioak ere Alderditik kanporatuak izan ziren. Hau Alderdi boltxebikearen, EBASD(b), jaiotza gisa hartu daiteke, oportunistoaren aurkako borrokari indar handia eman zionak. ‘Pravda’ aldizkari boltxebike ilegala ere sortu zen San Petersburgen.

Trotsky oso haserre agertu zen Pragako biltzarraren aurrean eta bloke bat antolatu zuen, ohiko moduan, likidatzaileekin eta beste oportunistekin batera: ‘Abuztuko Blokea’. Honetarako biltzar bat deitu zuen.

“Trotsky-ri BAREN eta etorkizuneko Biltzarre likidazionistaren bertute guztiak kantatzea agindu zaio: noren esku utz zitekeen misio hau, “bateratzaile profesionalaren” esku ez bazen! Eta abestu egin ditu... Vienako inprimategiak dituen ezaugarri guztiekin: “Vperiod-ekoek, Golos-ekoek, alderdia defendatzen duten boltxebikeek, alderdia defendatzen duten mentxebikeek, likidatzaile deiturikoen eta frakzioetatik kanpo daudenek — Errusian eta atzerrian — sendo babesten dute lana”... BAREN (Pravda, 24. zk.).

Gizajoak... gezurra esan du berriro, eta huts egin du berriro bere kalkuluetan. Likidatzaileen nagusitasunpeko blokea, 1912ko Biltzarraren aurka hainbesteko zarataz eta zalapartaz prestatutakoa, karraska egiten du juntura guztietan eta karraska egiten du likidatzaileek belarria argiegi erakutsi dutelako. (...)

Likidatzaileak alderdiaren aurka (1912) – Lenin

Lenin-en arabera Trotsky-k “borroka amorratua” zeraman aurrera Alderdi boltxebikearen eta Pravda berriaren aurka ‘Vorwärts’ Germaniako Alderdi Sozialdemokrataren aldizkarian, non “jaun eta jabe zen” germaniarrek sinisten zituzten gezurrak botatzeko.

“Trotsky-ri irakurlearen postan erantzutea gomendatzen dut: “Trotsky-ri (Viena). Ez diegu gutun zikoin eta nahasleei erantzungo”. Trotsky-k Pravdaren aurka egindako kanpaina lotsagarria gezurrez eta azpijokoz beteta dago. Marxista ezagun batek, Rotshtein plejanobistak (Londres), idatzi digu esateko Trotsky-ren iraka jaso duela eta erantzun diola: ezin diot ezer leporatu Pravda petersburgesari. Baina Trotsky nahastaile eta likidatzailea ezker eta eskuin ari da gezurretan.

Zuei zerbitzatzeko prest, V. Ulianov

P. S. Are hobeago izango litzateke Trotsky-ri irakurlearen postan erantzutea: “Trotsky-ri (Viena). Alferrik ari da gutun supistaile eta nahasgarriak bidaltzen. Erantzunik gabe geratuko dira”

‘Pravda’-ren erredakzioari gutuna (1912) – Lenin

Abuztuko Blokeak Vienan egindako biltzarrean “Lenin-en sektaren” “Estatu-kolpea” salatzen zen Trotsky-ren adierazpena onartu zen, II Internazionalari zuzendutakoa eta Vorwärts-en argitaratu zena:

“Bilerak adierazten du biltzar hori pertsona talde baten saiakera garbia dela, kontzientzia osoz Alderdia zatitzera eraman duena Alderdiaren bandera usurpatzeko, eta bere atsekabe sakona adierazten du Alderdiko antolakunde batzuk eta burkide batzuk engainu horren biktima izan direlako, Lenin-en sektaren politika eszisionista eta usurpatzaileari lagundu diotenak. Bilerak adierazten du ziur dagoela Alderdiak Errusian eta atzerrian dituen antolakunde guztiek protesta egingo dutela burututako Estatu kolpearen aurka, ez dituztela onartuko biltzarrak aukeratutako erdiguneko instantziak, eta, bide guztietatik, Alderdiaren batasuna berrezartzen lagunduko dutela, Alderdiaren benetako biltzar orokorra deituz.”

Bloke honen banaketa jada biltzarrean hasi zen hainbat ordezkari, Errusiako behargin-mugimenduarekin eta antolakundeekin loturarik ez zutenak, amaitu baino lehenago utzi zutenean. Bi urte igaro baino lehenago guztiz erori zen.

“(…) Deiadar hutsalak, hitz mardulak, autoreak aipatzen ez dituen arerioen aurkako eraso hantusteak eta larritasun hunkigarritz egindako baieztapenak: hori da Trotski-ren ezagutza guztia.”

Batasunaren arazoa (1913) – Lenin

1913. urtean Trotski-k Txkheidze bere lagun mentxebikeari bidalitako gutun batean, honela mintzo zen “Errusiako behargin-mugimenduaren errutinaren esplotatzaile profesionalaren” (Lenin) inguruan, hau San Petersburgeko Pravda aldizkaria sortzeko ‘Koba’ militante boltxebikeak (aurrerago ‘Stalin’ izango zena) lapurreta batean lortutako dirua erabiltzeaz salatuz:

“Nicholas Semionovix agurgarria,

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizut zure hitzaldiek ematen didaten plazer politiko zein estetikoagatik, batez ere lapurretari buruzko azkenekoak. Bai, batek poza sentitzen du gure ordezkarien hitzaldiak eta langileek “Luch”-eko kontseilu editorialari bidalitako gutunak irakurtzean, edo langileen mugimenduaren gertakari sintomatikoak ezagutzean. Horren ondoren, Lenin-ek etengabe bultzatzen duen zatiketa arbuigarriak, arte honetan maisua denak, errusiar behargin-mugimenduaren errutinaren esplotatzaile profesionala denak, amesgaizto zentzugabea dirudi. Ezein sozialista europar zentzudunek ez luke sinetsiko litekeena denik Lenin-ek Krakovian sortutako iritzi ezberdintasunek zatiketa eragitea.

Lenin-en “arrakastek”, guretzat oztopo diren arren, ez naute kezkatzen. Garai honetan, jada ez gaude 1903an, ezta 1908an ere. “Jatorri susmagarriko diruarekin”, Kautski eta Zetkin-en etxean atzemandakoa, Lenin-ek atal bat muntatu zuen, egunkari ezagun baten logoa hartu zuen, “Batasun” hitza idatzi zuen bere estandartean eta horrela irakurle langileak erakarri zituen, zeinek, jakina, langileen egunkari baten argitalpena garaipen handitzat hartu zuten. Gero, egunkariak eragina izan zuenean, Lenin-ek bere zirkuluko azpijokoetarako eta bere joera eszisionistetarako tresna bezala erabili zuen. Baina langileek batasunerako dituzten asmoak hain dira indartsuak, ezen Lenin-ek bere irakurleekin ezkutaketan jolastu behar izan baitzuen, goiko aldean zatiketa antolatzen zuen bitartean batasunaz behetik hitz egin behar izan zuen, klaseen arteko borroka talde eta frakzioen arteko eztabaidekin parekatu behar izan zuen. Hitz batean, une honetan leninismoa den guztia gezurretan eta faltsifikazioetan oinarritzen da, eta bere baitan

daramatza bere gainbeheraren haziak. Zalantzarik gabe, oposizioko alderdiak horiek nola kudeatu badaki, laster garatuko da leninisten arteko haratustela, hain zuzen ere batasunaren edo zatiketaren kontuagatik.

Baina berriro diot: oposizioko alderdiak kudeatzen badaki. Eta leninismoak, berez, ez badit inolako beldurrik sortzen, onartu behar dut ez nagoela ziur gure lagunek, likidatzaileek, ez ote dioten Lenin-i berriro zaldi gainean ibiltzen lagunduko.

Orain, bi politika ezarri daitezke: ideologikoki eta organikoki, oraindik existitzen diren horma frakzionalak suntsitzea, eta, horrela, leninismoaren oinarriak suntsitzea, alderdi politiko batean langileak antolatzearekin bateraezina dena, baina eszizioetan ordaintzearen gainean ezin hobeto haz daitekeena, edo, aitzitik, antileninisten (mentxebikeak edo likidatzaileak) hautaketa frakzionala egitea, desadostasun taktikoen erabateko likidazio baten bitartez.”

Polizia tsaristak bidean atzeman zuen gutun hau, eta Urriko iraultza eta gero boltxebikeen eskuetara igaro zenean, Trotski-k hau argitaratzea “aproposa izango ez litzatekeela” esan zion Olmiski-ri (Alderdiko historiagilea). Gainera, ez zuen uste Lenin-ekin izandako desadostasunetan “gutziz oker” zegoenik...

1914an Trotski-k ‘Borba’ “frakzioen gaintik zegoen” aldizkaria atera zuen, non klandestinitatearen auzia ez zen aipatu ere egiten, Errusian antolatutako behargin gehienak Alderdi boltxebikearen inguruan batzen ziren bitartean.

“Abuztuko Blokea likidatzaileen mantu soil bat izan da — orduan esan genuen bezala, 1912ko abuztuan —. Eta mantu hori puskatu egin da. Errusiako bere lagunak ere ez dira elkarrekin mantendu. Aldeko bateratzaileek ez dute ezta euren burua ere bateratzen jakin, eta bi joera “abuztuar” sortu dira: Luch-ista (Nasha Zaria eta Severnaia Rabochaia Gazeta) eta trotskista (Borba). Biek abuztuko bandera “bateratzaile orokor” baten zati bat dute, haiek urratutakoa, eta biek oihukatzen dute ahots erlatsez: “Batasuna!”

(...) Trotski-k ez du inoiz “fisionomiarik” izan, eta ez du, migrazioak besterik ez ditu, eremu liberaletik eremu marxistara egindako aldentzeak, eta alderantziz, esaldi ozenen zatiak eta hantemenka erauzitako hitz bitxiak.”

‘Abuztuko Blokearen’ lor-jotzea (1914) – Lenin

Urte berean Lenin-ek Abuztuko Blokearen ibildearen inguruko azterketa bat argitaratu zuen, ‘Batasun-oihuekin estaltzen den batasunaren urratze baten inguruan’ izendatutakoa, honen porrotaren zergatiak plazaratuz.

Bere aldizkaria “ez frakzionista” izendatzean Trotski-k “ageriko gezur” batekin “beharginei iruzur egiten diela” salatzen du Lenin-ek eta behin likidatzaileak kanporatuta EBASD(b)an frakziorik ez zegoela dio, “Paris eta Vienako ikuspegitik” ez bazen.

“Ez-frakzionista hitzetik hortzera, Trotski da, Errusian behargin-mugimendua zerbait ezagutzen dutenek dakitenez, “Trotski-ren frakzioaren” ordezkaria. Hori bai dela frakzionismoa, agerian baitaude haren funtsezko bi ezaugarriak: (1) batasunaren izenezko aitortpena eta (2) talde-

isolamendua praktikan. Kasu honetan, frakzionismoaren aztarna bat dago, ezinezkoa baita ezer seniorik aurkitzea Errusiako masen behargin-mugimenduarekiko harremanei dagokienez.

(...) Ez da urrea dirdiratzen duen guztia. Trotski-ren esaldietan distira eta zarata asko dago, baina edukirik ez.”

Batasun-oihuekin estaltzen den batasunaren urratze baten inguruan (1914) – Lenin

Borba-tik Trotski-k “pravdistak” (boltxebikeak) “eszisionista” eta “suizida politiko” deitzen zituen, Lenin-en barrea sorraraziz:

“Baina utz ditzagun txantxak (nahiz eta txantxa den Trotski-ren fraseologia jasanezinari emeki erantzuteko bide bakarra).

Suizidioarena esaldi soila da, esaldi hutsa, “trotskismo” purua.

Eszisionismoarena akusazio politiko serioa da. (...)”

Batasun-oihuekin estaltzen den batasunaren urratze baten inguruan (1914) – Lenin

Trotski-ren esanetan “behargin aurreratu asko eszizioaren agente bilakatzen dira” (hots, boltxebikeenak) eta hau pairatzen duten “erabateko nahasmen politikoaren ondorio” da.

“Azalpena, zer esanik ez, oso balakaria da Trotski-rentzat, atzerriko bost frakzioentzat eta likidatzaileentzat. Trotski-k oso gustuko du “peritu aire sakonarekin”, esaldi handituste eta ozenetan, berarentzat, Trotski-rentzat, laudagarriak diren fenomeno historikoen azalpenak ematea. “Behargin aurreratu asko” Trotski-ren ildoarekin bat ez datorren ildo politiko eta alderdi baten “agente aktibo” bihurtzen badira, Trotski-k arazoa barra-barra gelditu gabe, unean bertan, eta bidezidorretatik moztuz konpontzen du: behargin aurreratu horiek “erabateko nahasmendu politikoko egoeran” daude, eta dirudienez bera, Trotski, aldiz, “tinkotasun politikoko, buru-argitasuneko eta ildo-justutasuneko egoeran” dago!... Eta Trotski horrek berak, bular-kolpeak emanez, frakzionismoaren aurka, zirkulu-espirtuaren aurka eta langileei beren borondatea inposatzeko mania intelektualaren aurka tximistak eta trumoiak jaurtitzen ditu!...

Zinez, halako gauzak irakurtzean, batek bere buruari nahi gabe galdetzen dio ez ote diren erietxe batetik ateratzen diren ahots horiek.”

Batasun-oihuekin estaltzen den batasunaren urratze baten inguruan (1914) – Lenin

Lenin-ek Trotski-ren ikusmolde likidatzaileak kritikatzekoan, hauek ekonomismoan eta mentxebismoan zutela erroa mahaiganeraten du, burgesia liberalaren eraginaren adierazpen gisa. Amaieran, pertsonaia hau, eskarmentu handikoek ezagutzen bazuten ere, langileriaren belaunaldi gazteei erakutsi behar zitzaizela adierazten du, “Tushino-ko iheslari” (Errusiako ‘Garai Istilutsuan’ bando batetik bestera aldatzen ziren mertzenarioak) izendatuz.

“ “Tushino-ko iheslariak” frakzioen gaintik daudela aldarrikatzen dute, gaur frakzio baten ideiak eta bihar beste batenak “hartzten” dituztelako soilik. Trotski “iskrista” amorratua zen 1901-1903an eta Riazanov-ek 1903ko Biltzarrean bere papera “Lenin-en garrotea” zela esan zuen. 1903ko amaieran Trotski mentxebike amorratua zen, hau da, iskristetatik “ekonomistetara”

desertatu zuen; “Iskra zaharraren eta berriaren artean amildegi bat dagoela” aldarrikatzen zuen. 1904-1905ean, mentxebikeetatik aldendu eta kokapen zalantzatia hartu zuen, batzuetan Martinov-ekin (“ekonomista”) elkarlanean arituz eta beste batzuetan “iraultza etengabea” aldarrikatuz, ezkerkeria zentzugabekoa. 1906-1907an boltxebikeetara hurbildu zen eta 1907ko udaberrian Rosa Luxemburg-ekin solidario deklaratu zen.

Desegite-garaian, zalantza “ez frakzionista” luzeen ondoren, berriro eskuinerantz jotzen du, eta 1912ko abuztuan likidatzaileekin blokea eratzen du.

Orain berriro aldentzen da haiengandik, baina, barrenean, bere ideiatxo berberak errepikatzen ditu.”

Batasun-oihuekin estaltzen den batasunaren urratze baten inguruan (1914) – Lenin

Autodeterminazio-eskubidearen “onarpena”

1914ko uztailan I. Mundu Gerrate inperialista hasi zen eta Mendebaldeko sozialdemokraziaren gehiengoak haien Gobernuak babestu zituen gerra-kredituen alde bozkaturaz. Gutxiengo batek ‘Zimmerwald-eko Biltzarra’ deitu zuen gerratea gaitzesteko, baina hau ere bi joeratan banatu zen: ezkerrek Nazioarteko mugimendu berri baten alde egin zuen eta “gerrate inperialistari, guda zibil iraultzailea!” aldarrikatu zuen (Lenin eta boltxebikeak hemen kokatu ziren); eta ‘sozialpazifistak’ II. Internazionala berregitearen alde agertu ziren (Martov, Axelrod eta Txxkheidze mentxebikeak). Trotski-k bere aldarrikapen propioa ateratu zuen “ez garaipenik, ezta porrotik ere!”, bere ustez gerrak iraultzarako aukera zapuzten baitzuen, eta azken hauekin egin zuen bat. Hau sozialdemokrata eta komunisten arteko banaketa izan zen izatez.

“ “Kautskismoaren” faltsukeria esentzial hau forma ezberdinetan agertzen da herrialde ezberdinetan. Holandan, Roland-Holst-ek aberriaren defentsaren ideia errefusatzeko du, baina oportunisten alderdiarekin batasuna defendatzen du. Errusian, Trotski-k ere ideia hori errefusatzeko duenak, era berean Nasha Zaria-ko talde oportunista eta txobinistarekin batzearen alde egiten du. Errumanian, Rakovski, Internazionalaren porrotaren errudun izateagatik oportunismoari gerra deklaratu arren, aldi berean aberriaren defentsaren ideien legitimitatea onartzeko prest dago. Hori guztia Herbehereetako marxistek (Gorter, Pannekoek) “erradikalismo pasiboa” deitzen duten gaitzaren adierazpenak dira, eta marxismo iraultzailea teorian eklektizismotik eta praktikan oportunismoaren aurrean morrontzatik edo ezintasunetik ordezkatzeraz mugatzen da.”

Sozialismoa eta gerra (1915) – Lenin

1913an Vienan Stalin boltxebike georgiarrak, Lenin-ek hala eskatuta, ‘Marxismoa eta auzi nazionala’ lana argitaratzeak, eta batez ere, guda inperialistaren hasierak, nazio-auziaren inguruko eztabaida piztu zuen mugimendu sozialistaren baitan.

“Autodeterminazio-eskubideak esan nahi du nazioa bere nahien arabera antola daitekeela. Bere bizitza autonomiaren printzipioen arabera antolatzeak eskubidea du. Beste nazio batzuekin harreman federatiboetan sartzeko eskubidea du. Erabat banatzeko eskubidea du. Nazioa subiranoa da, eta nazio guztiak berdinak dira eskubideetan.”

Marxismoa eta auzi nazionala (1913) – Stalin

1903ko EBASDren II Biltzarrean ‘nazioen autodeterminazio-eskubidea’ (nazio orok bere egituraketa politikoa burujabeki erabakitzeko eskubidea, Estatu nazional independentea sortzeko banaketa barne) onartu zen, Rosa Luxemburg poloniarra (orduan Polonia Germanian eta Errusia artean zegoen banatuta eta nazionalki zanpatuta) aurka agertu bazen ere. Luxemburg-ek, Radek eta Piatakov-ekin batera, ‘ekonomismo inperialista’ deitutako joera garatu zuen hurrengo urteetan.

Ekonomismo inperialistaren arabera autodeterminazioa “ezinezkoa” zen kapitalismo inperialistan kontzentrazio politiko eta ekonomikoaren ondorioz eta “soberan” zegoen sozialismoan. Europa eta koloniak kontrajartzen zituen: Europan nazio-askapen borrokan izaera aurrerakoia ukatzen zuen “ez zuelako zentzurik inperialismoak kendutako muga-zutoin berriak ipintzea”. Kolonietan ordea

independentzia aldarrikatzen zuen zuzenean (“kolonietatik kanpora!”), baina soilik honek kapitalismoaren garapena lagunduko zuelakoan. Gainera, autodeterminazio-eskubideak “behargin-klasea zatitu” eta iraultza sozialistaren aldarria “estali” egiten omen zuen.

“Ez al dago argi Europa koloniek kontrajartzea gutxien baimendu daitekeen eremua alor honetan dela? Nazio zapalduen borroka European, matxinada eta kale-guduetara iristeko, tropen diziplina zorrotza hausteko eta setio-egoera eragiteko gai denak, borroka honek “Europako krisi iraultzailea areagotuko du” urruneko kolonia batean matxinada askoz garatuago bat baino askoz ere indar handiagoarekin. Irlandan matxinadak burgesia inperialista ingelesaren botereari emandako kolpeak garrantzi politiko ehun aldiz handiagoa du Asian edo Afrikan beste indar bereko kolpe batek baino.”

Autodeterminazioari buruzko eztabaidaren balantzea (1916) – Lenin

Trotsky-k joera honekin egin zuen bat eta Borba-ko 2. zenbakian “marxista poloniarrek autodeterminazio-eskubidearen aurka zeudela” esan zuen.

“Trotsky lagunkoia etsai bat baino arriskutsuagoa da! Inon ere ez, “elkarrizketa partikularretan” ez bada (hau da, txutxu-mutxuetan soilik, Trotsky beti haietaz bizi dena), aurkitu ahal izan ditu frogak “marxista poloniarrek” oro har Rosa Luxemburg-en artikulu bakoitzaren aldekoen artean sartzeko. Trotsky-k ohorerik eta kontzientziarik gabeko jende gisa aurkeztu ditu “marxista poloniarrek”, euren uste osoak eta alderdiaren programa errespetatzen ere ez dakitenak. Trotsky lagunkoia!

(...) Inoiz ez, marxismoaren funtsezko arazo bakar batean ere, Trotsky-k ez du iritzirik izan, beti sartu da desadostasun batzuen edo besteen “zirrikitutik”, eremu batetik bestera igaroz. Gaur egun, bundista eta likidatzaileen konpainian dago. Eta jaun hauek ez dute begiramen handirik alderdiarekin.”

Nazioen autodeterminazio-eskubideari buruz (1914) – Lenin

Aurrerago Trotsky-k autodeterminazio-eskubidea hitzez onartu zuen, baina bere ikusmoldea ekonomismo inperialistan oinarritzen jarraitzen zuen.

“Eta orain, Lensch-en tankerako sozial-inperialista frankoak autodeterminazioaren eta anexoak ukatzearen aurka daude. Kautskianoek, aldiz, autodeterminazioa era hipokritan onartzen dute: gure herrialdean, Errusian, bide horri jarraitzen diote Trotsky-k eta Martov-ek. Hitzez, biak daude autodeterminazioaren alde, Kautski bezala. Eta benetan? Trotsky-k — har ezazue ‘Nazioa eta ekonomia’ artikulua, Nashe Slovo-n — bere ohiko eklektizismoa erakusten digu: batetik, ekonomiak nazioak batzen ditu; bestetik, zapalkuntza nazionalak banantzen ditu. Ondorioa? Ondorioa da nagusi den hipokresia mozorroa kendu gabe jarraitzen duela, asaldura bizigabea dela, ez diola heltzen printzipalari, kardinalari, funtsezkoari, praktikatik hurbil dagoenari, hots, “nire” nazioak zapal dutako nazioarekiko jarrerari. (...)”

Autodeterminazioari buruzko eztabaidaren balantzea (1916) – Lenin

1917ko maiatzan ateratako ‘Nazioen autodeterminazio-eskubidea’ lanean “Europako Estatu Batuen kontsigna” aldarrikatu zuen Trotski-k (1915ean honela deitutako lanean Lenin-ek hau “okerra zela” esan bazuen ere). Bertan dionez, kapitalismoaren zentralizazio ekonomikoak eta inperialismoaren hedapenerako izaera erasokorraren ondorioz ezinezkoa litzateke autodeterminazioa gauzatzea (kolonietan bai), horregatik “Europako batasun estatala autodeterminazio aukera orerentzako ezinbesteko aurrebaldintza” zitekeen:

“(..) Programa honen bitartez, Estatu nazionala zaharkituta geratu dela adierazten da, ekoizpen-endarren garapenerako esparru gisa, klase-borrokaren oinarri gisa, eta, ondorioz, diktadura proletarioaren estatu-forma gisa. Guk alternatiba progresibo bat aurkaratzen diogu aberri nazional iraungia defendatzen duen kontserbadurismoari, hau da, aberri berri osoago baten sorrera, iraultzarena, demokrazia europarrarena, proletalgoak mundu osoan iraultza zabaltzeko behar duen abiapuntua izateko gai den bakarra. Jakina, Europako Estatu Batuak industriaren “berrantolaketa mundialaren” bi ardatzetako bat baino ez dira izango. Ameriketako Estatu Batuak izango dira bestea.”

Iraultza Errusian “etorkizun handikoa” omen zen, baina, “errusiar iraultzaren itzaropena Europara hedatzea” (Germaniara bereziki) zitekeen, “proletalgoaren diktadura soilik Europako eskalan” izango baitzen gauzagarria.

“(..) Oro har, ez da ahaztu behar sozial-patriotismoan, erreformismorik arruntenaren ondoan, erreformismo aktibo bat dagoela, mesianismo iraultzaile nazional bat, nazio propioa “sozialismora” edo “demokraziara” eramateko aukeratutako Estatutzat hartzean datzana, nahiz eta bere forma industrial edo demokratikoaren pean izan eta konkista iraultzaileetara bideratuta egon. Iraultzaren oinarri nazionala metodo horien bidez defendatzea, proletalgoaren nazioarteko harremanei kalte egiten dietenak, iraultza hondatzea da, oinarri nazional baten gainean baino hasi ezin dena, baina oinarri horren gainean osatu ezingo litzatekeena Estatu europarren gaur egungo interdependentzia ekonomiko, politiko eta militarra dela eta, inoiz hain nabarmena izan ez dena egungo gerran zehar baino. (...) Iraultza europar garaileak, herrialde desberdinetan duen ibilbidea aparte utzita eta beste klase iraultzaileen gabezia, boterea proletalgoari bakarrik transmiti diezaioke. Eta era honetan, Europako Estatu Batuak dira proletalgo europarraren diktaduraren modu ulergarri bakarra.”

Esan daiteke Trotski-k auzi nazionala eta autodeterminazio-eskubidearen “onarpena” internazionalismo proletarioan baino, kosmopolitismoan oinarritzen zuela, zegokion eurozentrismo dosiarekin.

“(..) Izan ere, egia esan, ez dakigu eta ezin dugu jakin zenbat nazio zapaldu beharko duten banaketa praktikan, demokraziaren formen eta sozialismorako trantsizio moduen aniztasunari haien oboloa emateko. Baina badakigu, ikusten dugu eta egunero sumatzen dugu banantze-askatasunaren ukazioa, gaur egun, faltsukeria teoriko amaigabea eta nazio zapaltzaileetako txobinistentzako zerbitzu praktikoa dela.”

Marxismoaren karikaturari eta ‘ekonomomismo inperialistari’ buruz (1916) – Lenin

Boltxebikeetara “igarotzea”

1917. urteko urtarrilean, Europa osoan barrena ibili ostean, Trotski New Yorkera iritsi zen. Han Nikolai Bukharin-ek berak zuzentzen zuen ‘Novi Mir’ aldizkarian parte hartzera gonbidatu zuen. Erredakzioan sartu bezain pronto, beste kide bat sartzen saiatu zen Bukharin kanporatu eta bere ildoan ezarri ahal izateko. Honen aurrean Lenin haserretu egin zen eta Aleksandra Kollontai-ri idatzi zion:

“Novi Mir-en N. Iv. eta Pavlov-en garaipenaren berri zuregatik izatea atsegina izan den neurri berean (egunkari hau irregulartasun handiz jasotzen dut, noski, Postaren erruz, eta ez egunkariaren beraren bidaltze-atalaren erruz), tristea izan da N. Iv. ren aurka borrokatzeko eskuindarrekin Trotski-ren blokearen berria. Zein zerria den Trotski hau!: esaldi ezkertiarrak eta eskuinekoekin blokea ezkerreko zimmerwaldiarren aurka! Mozorroa kendu beharko genioke (zuk), gutxienez, Sotsial-Demokrat-i idatzitako gutun labur batekin!”

Kollontai-ri gutuna (1917) – Lenin

Inessa Armand-i bidalitako gutunean ere hitz berberetan mintzo zen:

“Kolontaisha-ren gutun bat ere jaso dugu, eta (entre nous, oraingoz) Ipar Amerikatik Norvegiara itzuli da. N. Iv.-ek eta Pavlov-ek (Bruselan egon zen letoniarra: Pavel Vasilievitx) Novi Mir konkistatu dute, diotenez (oso gaizki jasotzen dut egunkari hau), baina... Trotski iritsi da, eta doilor hau berehala elkar hartu da Novi Mir-en eskuineko hegalararekin ezkerreko zimmerwaldiarren aurka! Honela, hain zuzen ere!! Bejondeizula, Trotski!*

Beti bere buruari leial: maltzur jokutzen du, amarru egiten du, ezkertiar itxurak hartzen ditu eta eskuindarrei laguntzen die ahal duen bitartean...”

Inessa Armand-i gutuna (1917) – Lenin

Otsailean iraultza hasi zen Errusian eta tsarismoa uzkailea izan zen. Horren ondorioz ‘botere bikoitzeko’ egoera sortu zen: alde batetik Gobernu probisionala, diktadura burgesaren adierazpen gisa, eta bestetik sobietak, behargin eta nekazarien diktaduraren ernamuin gisa. Trotski, halere, ez zen maiatzera arte Petrogradera bueltatu. Orduan, Lenin ‘Mezhraionka’ taldeari Alderdi boltxebikean sartzeko gonbitea luzatzeko bilerara joan zen, eta han Trotski-k esan zuen (Lenin-ek berak jasotakoa):

“Erabat ados nago ebazpenekin; baina, aldi berean, ados nago boltxebismo errusiarra internazionalizatu den neurrian. Boltxebikeak desboltxebizatu egin dira, eta nik ezin dut nire burua boltxebike deitu. Errolda bere ebazpenean oinarritu daiteke (eta oinarritu behar da). Baina ezin zaigu boltxebismoa onartzeko eskatu.”

Uztaila amaieran erdi-legalitatean egin zen EBASD(boltxebike)aren VI. Biltzarrea, eta honetan burgesia inperialistaren aldeko mentxebikeekin harremanak hautsi zuten guztiei Alderdian sartzeko gonbitea errepikatzea erabaki zen. Azkenean Trotski-k bere ildo mentxebikearen “fardela” alde batera utzi behar izan zuen Alderdi boltxebikearen Erdiguneko Batzordean sartu ahal izateko (orduan bai), baina baztertze honek gehiago zuen itxuraz egiaz baino.

TROTSKI, “BOLTXEBIKEA”

Trotsky-k agitazio eta propaganda lan ona egin zuen hurrengo hilabeteetan, bere buruari behar zena baino garrantzia handiagoa ematen bazion ere. 1917ko urriaren 10ean Alderdi boltxebikearen Erdiguneko Batzordeak iraultza sozialistara igarotzeko matxinada armatua sobieten hauteskunde egunean abiaraztea erabaki zuen. Trotsky-k, Petrogradeko sobieteko zuzendaritzako kide gisa, hauteskundeak “boterea hartzea” erabakitzeko deituzekoan data hau publikoki zabaldu zuen eta matxinada aurreratzera derrigortu zuen. Bere erruz gertatutako zerbait izan arren, Trotsky-k kalapita abiarazi zuen hau “sobieten borondatearen gainetik eta hauen bizkarretara” egitea izango litzatekeela esanez. Lenin-ek “Sobieten Biltzarrera itxarotea erabateko ergelkeria edo erabateko traizioa” izango zela esan zuen, baita EBtik bere dimisioarekin mehatxatu aurreratzeko ez bazen. Hauteskundeetan, matxinada garailea amaitzen ari zen bitartean, boltxebikeek gehiengo zabala lortu zuten. Hau Alderdi boltxebikearen baitan sortu zen lehen “Trotsky-krisia” izan zen, hortik aurrera gero eta maiztasun handiagoz errepikatzen joango zirenak.

“Napoleon gorri” baten historia

1918ko hasieran Errepublikako sobietikoa gerrate inperialistaren aurrean hartu beharreko jarrera erabakitzeko atakan aurkitu zen. Honen aurrean 3 kokapen gailendu ziren: guda iraultzailea zabaltzearena, ejertzitoaren eta nekazalgoaren egoera kontuan hartzen ez zuenak; Lenin-ena, iraultza sozialista errotzearen bakea sinatzearena; eta Trotsky-rena, “ez bakea ezta gerra ere!”, ejertzittoa desmobilizatzearena baina bakea sinatu gabe. Azken honek irabazi zuen EBaren bozketa (lehen aukeraren aldekoen bozekin), baina Lenin-ek bake-negoziaketak ahalik eta gehien luzatzeko proposamena onartzea lortu zuen, eta Trotsky-ri ultimatum bat jaso gero ituna sinatzeko agindu zion.

“Trotsky burkidearen kokapena ere aipatu behar dut. Bere jardunaren bi alde bereizi behar dira: Bresteko negoziatioak hasi zituenean, ederki aprobetxatu zituen agitaziorako, eta denok ados egon ginen Trotsky burkidearekin. Berak nirekin izandako elkarriketaren zati bat aipatu du, baina nik gehitu nuen adostu genuela germaniarren ultimatumeraino mantenduko ginela eta ultimatumaren ondoren amore emango genuela. Germaniarrek engainatu egin gaituzte: zazpi egunetik bost lapurtu dizkigute. Trotsky-ren taktika zuzena zen luzamendutan ibiltzera jotzen zuen heinean; baina bidezkoa izateari utzi zion gerra-egoera zela amaitu adierazi eta bakea sinatu ez zenean. Nik modurik zehatzenean proposatu nuen bakea sinatzea. Ezin genuen Brestena baino bake hoberik lortu. (...)”

Erdiguneko Batzordearen txosten politikoari buruzko eztabaidaren laburpen-hitzaldia (1918) – Lenin

Trotsky-k, ordea, Brest-Litovskeko negoziaketak hautsi eta ejertzittoa desmobilizatzeko agindua eman zuen, Germaniako iraultza ematearen zain. Lenin-ek Trotsky-ren agindua baliogabetzeko telegrama bidali zuen baina ejertzittoa inperialistak aurrera egin zuen eta boltxebikeek askoz ere okerragoa zen bakea sinatu behar izan zuten, arma ugari galduz eta Finlandia, Polonia, Ukraina,

Baltikoa eta abar. Inperioen menpean geratuz. Honek inperialismo germaniarra indartu zuen eta iraultzarako aukerak gutxitu zituen. Gainera, bakea sinatu eta gero egindako Errusiako Alderdi Komunista (boltxebike)aren VII. (ezohiko) Biltzarrean Trotski-k adierazi zuen: “soilik Europako iraultzak salba gaitzake”, egoera berak bilbatutako amarruen ondorio bazen ere, eta “traizioaz” mintzatzen hasi zen.

Biltzarre honetan Behargin eta Nekazarien Ejertzito Gorriaren sorkuntza erabaki zen, bere antolakuntzarako doainak zirela eta Trotski-ri egokitu zitzaiona Defentsarako Herri-komisario gisa. Horretarako, nahitaezko zerbitzu militarra ezarri zuen eta Goardia Gorrian (matxinadarako prestatu zen erakunde armatua), herri-milizian edota unitate gerrillarietan oinarritu baino, erregimen tsaristako milaka espezialista militar ohi erabili zituen (ofizialgoaren hiru laurden). ‘Lana, Diziplina, Ordena’ lanean hauek erabili zitezkeen “makina” gisa ezaugarritu zituen, haien klase-jatorri eta ikuskerak eraginik ez balu bezala:

“Makina hiletan bezala, teknikari, ingeniari, doktore, maisu eta ofizial ohi hauetan ere badago gure herriko kapital nazionalaren zati bat, ustiatu eta erabili behar duguna, oro har, aurre egin behar diegun oinarrizko arazoak konpondu nahi baditugu.”

Alderdi boltxebikearen ohartarazpenak arren postu militar garrantzitsuetan ipini zituen eta, nahiz eta hauek zaintzeko komisario politikoak erabili (Trotski-k agintea espezialistari ematen bazion ere), batzuk kontrairaultzaren eta inperialismoaren eremura igaro ziren. Hala ere, Trotski-k nahiago zituen hauek jatorri komunistakoak baino, ‘Espezialista militarrek eta Ejertzito Gorria’ lanean dionez:

“(..) Eta galdetzen badidazue zerk egin digun kalte gehien gaur arte, ea karrerako ofizial ohien traizioek edo gure komandante berri askoren prestakuntza faltak, pertsonalki oso zaila egingo litzaidake erantzutea.”

Teorikoki herri-milizien sistema babestu arren praktikan ez zuen hau ezertarako erabili eta formazio gerrillarien sorkuntza gutxiesten zuen. Sobieten V. Biltzarreari txostenean esan zuen:

“Baina hortik ezin da atera jende inozo eta azalekoak ateratzen duen ondorioa, hau da, aginte zaharreko pertsonalaren zerbitzuak baztertu behar ditugula eta baliabide propioekin kudeatzen saiatu. Hori egingo bagenu, gerrillaren metodoetara jo beharko genuke, amateurismo militarra. (...) Sobieten exekutiboen partez gero eta maizago entzuten dugu, batzuetan modu irekian eta beste batzuetan ezkutuan, gudan kexatzen zirenak benetako armada bat sortzeagatik, eta ez jostailu bat edo zaletu bat, miliziaren erorketa motarik gabe, orain auzi honen inguruko gure ikuspuntuaren alde daudela. Honen aurka protestatzen dutenek oraindik ez dute ulertu langilea eta nekazari-klasea boterean daudela, eta arrazoi horregatik egiten dugun guztia ez dela etxean egindakoa, ezta amateurra ere, printzipio sendo eta zientifikoetan oinarritutakoa baizik.”

Trotski-ren aginte politikoaren menpean, Tukhatxevski ofizial tsarista ohiak Ejertzito Gorria Von Seekt jeneralaren (Germaniako ejertzitoaren Komandanteburua) ikusmoldeen arabera antolatu zuen, boltxebikeekin elkarlana onartu zuenak Versaillesko Itunari zion gorrotoaren ondorioz. Trotski-ren arabera, ez zegoen desberdintasunik ejertzito burgesen eta ejertzito sozialisten artean eta are

gutxiago “gerra egiteko forma proletarioa”, bere ikusmoldea Clausewitz estratega prusiarrean oinarritzen zuelarik. EAK(b)aren XI. Biltzarrean irakurritako txostenean, Trotski-k esan zuen:

“Gerra zientzia askotan oinarritzen da, baina gerra bera ez da zientzia bat, arte praktikoa da, trebetasun bat. (...) Nola eraiki daitezke lanbide edo arte militarren prozedurak metodo marxistaren bitartez? Marxismoaren bidez arkitekturaren teoria bat edo albaitaritzamedikuntzako eskuliburu bat eraikitzen saiatzea bezala da. (...) Metodo puruki militarrei dagokienez, gure erregelamenduetan ezarrita dauden bezala, ez da oso zuhurra metodo marxista aplikatzea.”

1918ko udan, gerra-deklarazioarik gabe, 14 Estatu burgesetako ejertzito inperialistek Errepublika sozialista inbaditu zuten barnean sortu ziren Ejertzito Txuri kontrairaultzaileak laguntzeko prest, lurralde sobietikoetan sekulako sarraskiak aurrera eramanez. Honek atzerriko esku-sartzearen eta guardia txurien aurkako guda zibil iraultzaileari hasiera eman zion. Trotski, pistola zintoan, fronteko toki batetik bestera joaten zen bere tren blindatuan, kazetariez inguraturik agerpen dramatiko eta hitzaldi demagogikoak eginez.

Ejertzito tsarista zaharreko teknikarietan gehiegi sostengatzeko Trotski-ren joerak eta bere lankideak tratatzeko zuen jarrera hantustek ezinegonaz sortu zuten Alderdiko koadro boltxebike zaharren artean, baita “oposizio militar” bat sorrarazi ere, Trotski-ren metodo errepresiboen aurka ahotsa altxatu zuenak (iheslarien exekuzioez gain gerra-komisarioak fusilatzeraz ere iritsi baitzen). Oposizio honetako hainbatek, halere, Ejertzito erregular eta zentralizatuaren aurkako joerak zituzten. Horregatik 1919ko EAK(b)aren VIII. Biltzarrean Lenin-ek hainbat kontrol neurriren onarpena babestu zuen baita Trotski-ri ohartarazpen bat egitea ere, erdiguneko erakunde militarrek hobetzeko eta komunisten papera indartzeko armadaren baitan.

“Trotski burkidea oker dago: hemen ez dago ez nahierarik, ez maltzurkeriarik, ez apetarik, ez nahasmenik, ez etsipenik, ez ezaugarri atsegin hauen “elementurik” ere (Trotski-k ironia izugarritz fustigatuak). Trotski-k alde batera utzi duena dago: EBko gehiengoak uste du Koartel Nagusia “zulo” bat dela, Koartel Nagusian gauzak ez doazela ondo, eta hobekuntza serio baten bila, aldaketa erradikal baterako bitartekoen bila, pauso bat eman du. Eta hori da dena.”

EAK(b)ko EBari (1919) – Lenin

1919. urtean inperialista japoniar eta britainiarren laguntzaz Omsken ezarri zen Koltxak almirantearen aurkako kanpaina arrakastaz aurrera zihoanean, Trotski-k Kamenev komandantea kargutik kendu eta erasoaldia geldiarazi nahi izan zuen. Baina Alderdiaren EBak eraso jarraitzeko agindu zuen eta Koltxak Siberian garaitua izan zen, non txurien atzeguardian antolatutako mugimendu gerrillari indartsua zegoen.

Ukrainan Denikin jeneralaren aurka hainbat porrot jasan ostean, Trotski fronte honen zuzendaritzatik ere baztertua izan zen eta EBak Stalin, Voroxilov, Ordzhonikidze eta Budionni komandantea bidali zituen. Hauek Trotski-ren plana aldatu eta Ejertzito Gorria eskualde behargin eta nekazarietatik eramanez, zeinetan trenbide sare narroa zegoen, eta Denikin garaitu zuten Orelen.

Trotsky-k lanerako ejertzitoaren erabilera proposatu zuen masa langileak eta batez ere nekazariak diziplinatzeko, aurrerago ekonomian ezarri nahi izan zituen metodo burokratiko-militaristen aurrekari izan zena. 1920ko 'Proletalgo industrialaren mobilizazioaren inguruan, zerbitzuaren inguruan, gerra-ekonomiaren eta behar ekonomikoetarako ejertzitoaren unitateen erabileraren inguruan' lanean, zioen:

“Ekonomiaren militarizazioak esan nahi du Errusia Sobietikoaren baldintza zehatzetan, arazo ekonomikoak (lanaren intentsitatea, makina eta tresnen zuhurtzia, materialen erabileraren zorrotasuna, eta abar.) berdin-berdin hartu behar direla kontuan, proletalgoaren ideietan eta estatuko erakundeen praktikan, arazo militarrekin. Herrietako eta herrialde osoko biztanleriak ulertu behar du lanaren desertzio mota bakoitzaren, berekoi mota bakoitzaren, laneko arreta zehatza, zabarkeria, aisia eta abusu mota bakoitzaren ezabapena hil edo biziko kontua dela herrialde osoarentzat, eta ahalik eta epe laburrenean lortu behar dela, honek neurri zorrotzagoak eskatzen baditu ere.”

1920ko apirilean 'pani'-en (lurjabe handien) Poloniak Ukraina eta Bielorrusia sobietikoak okupatu zituen eta Ejertzito Gorriaren kontraerasoak Varsoviako ateetan jarri zuen. Baina Trotsky eta Tukhatxevski-ren erruz erasoak porrot egin zuen eta panien bozkarioarako erretreta agindu zuten. Horren ondoren bakea sinatu zen Poloniarekin, Bielorrusia eta Ukrainaren zati batekin geratzen zena.

1921eko martxoan, guda amaituta, boltxebikeen aurkako Kronstandteko marinelen matxinada kontrairaultzailea gertatu zen. Komunista asko maneiaturako marinelekin negoziatzeko prest zegoen arren, Trotsky-k berehala errenditzeko ultimatum gogor bat bota zien eta gotorlekua armez hartzea agindu zuen, Tukhatxevski-k aurrera eraman zuena (aurrerago Voroxilov gehitu zitzaizolarik).

1925an, Alderdi barneko diziplina behin eta berriz haustearen ondorioz, Trotsky Batzorde Militar Iraultzaileko buruzagitzatik kargugabetua izan zen. Honela amaitu zen “Napoleon gorri” honen historia, bere erbeste partikularrekin. Lekukoa bere morroi Tukhatxevski-k hartu zuen, ordea.

Sindikatuena “militarizazioa”

Guda zibila irabazi ondoren, Errepublika sobietikoak ekonomiaren hondamendiari aurre egiteko erronkari heldu zion. Nahiz eta gairik garrantzitsuena ez izan, honek sozialismoaren eraikuntzan sindikatuena paper eta egitekoen inguruko eztabaida piztu zuen. 1920ko EAK(b)aren IX. Biltzarrean Trotski-k lanaren nahitaezko errekutatzearen eta militarizaziorako bere tesiak aurkeztu zituen:

“(...) Errusian ezin baita sozialismora iristeko beste biderik egon, herrialdeko indarren eta baliabide ekonomikoaren zuzendaritza autoritarioa eta behargin-indarraren banaketa zentralizatua baino, Estatuaren plan orokorrari jarraikiz. Behargin-Estatuak eskubidea du bere lana beharrezkoa den lekura langile oro bidaltzeko. Eta ganorazko sozialista bakar batek ere ez dio behargin-Estatuari ukatuko agintzen zaion eginkizuna ez betetzeko setatzen den langilea zigortzeko eskubidea. (...) Behargin-Estatuak, azken finean, batzuk saritzean, besteak zigortu besterik ezin du egin, hau da, jakinaren gainean behargin-elkartasuna urratzen dutenak, lan komuna suntsitu eta herrialdearen berrantolaketa sozialistari kalte nabarmena eragiten diotenak. Errepresioa, lan ekonomikoak egitea helburu duena, diktadura sozialistaren beharrezko arma da.”

Trotski, bere jardunbide autoritarioei jarraiki, konbentzimendua erabili ordez langileei errepresio eta hertsadura-neurriak ezartzearen alde zegoen, eta sindikatuari metodo militarrik, aginte eta behartze soilarenak, eramatearen alde egiten zuen.

“Nahitaezko lanik gabe, aginduak emateko eta bete daitezkeen eskatzeko eskubiderik gabe, sindikatuak beren izateko arrazoia galtzen dute; izan ere, eraketan dagoen Estatu sozialistak beharrezkoak dituelako, ez lan-baldintzen hobekuntzaren alde borrokatzeko – gobernuaren gizarte-antolaketa osoaren lana dena –, baizik eta behargin-klasea ekoizpenerako antolatzeko helburuarekin, hura hezteko, zenbait kategoria ezartzeko eta beren lanpostuetan zenbait behargin denbora jakin batez finkatzeko helburuarekin, hitz batean, langileak, boterearekin erabateko adostasunez, plan ekonomiko bakarrean sartzeko helburuarekin. (...)”

IX. Biltzarrearean emandako eztabaidan zehar Trotski-k ezarri nahi zuen ildoak are argiago azaldu zuten:

“(...) langile oro lan-soldadu sentitzen den erregimen bat, bere burua askatasunez xedatu ezin duena; lekualdatzeko agindua ematen bada, exekutatu egin beharko du; betetzen ez badu, desertorea izango da, eta zigortu egingo dute. Nor arduratzen da horretaz? Sindikatuak. Erregimen berria sortzen dute. Hau da langile-klasearen militarizazioa.”

Lenin-ek tesi hauek zuzendu bazituen ere, Errusia osoko V. Biltzar Sindikalean, lanaren diziplina parte-hartze kontzientearen bidez ezartzearen ildoaren aurrean, Trotski-k sindikatuak estatizatzea, hauei “torlojuak estutzea” eta “goitik astintzearen” kontsigna burokratikoak mahaigaineratu zituen berriro. Halere biltzarrek ‘Sindikatuena egitekoak ekoizpenean’ ebazpena onartu zuen. Errusia osoko Sobieten VIII. Biltzarrean Lenin eztabaidan sartu zen buru-belarri, Trotski-ren ‘Sindikatuena paper eta egitekoak’ liburuxka kritikatu, printzipiozko “akats teorikoz” eta “bistako zehaztasun faltaz” beterik zegoena.

Sindikatuak Estatuaren aparatuan integratzearen inguruan, hauek hertsadurarako erabiltzearen zentzugabekeria salatzen du eta hauen “eskola” izaera nabarmentzen du Lenin-ek, langileriaren abangoardiaren eta herri langile osoaren arteko lotura egiteko antolakunde gisa.

“(..). Alde batetik, antolakundearen lerroetan industriako behargin guztiak sartzean, sindikatuak klase gidariaren, nagusiaren, agintariaren, diktadura gauzatzen duen klasearen, estatuaren hertsapena aplikatzen duen klasearen, antolakunde bat dira. Baina ez da antolakunde estatal bat, ez da antolakunde hertsatzaile bat; antolakunde hezitzaile bat da, erakarri eta irakatsi egiten duen antolakunde bat; eskola bat da, gobernu-eskola bat, administrazio-eskola bat, komunismo-eskola bat. (...) “Nahaste ideologikoa” duena Trotski da preseski; kapitalismotik komunismorako iragatean zeharreko sindikatuaren zereginaren funtsezko arazoan, bera delako, eta ez beste bat, bistatik galdu duena, kontuan hartu ez duenak zenbait gurpil horzdun dituen sistema konplexu bat dagoela eta ezin dela sistema sinplerik egon, ezinezkoa baita proletalgoaren diktadura egikaritzea hainbat “transmisio-uhala” gabe, proletalgoaren osotasuna bere baitan hartzen duen, abangoardiatik klase aurreratuko masetara eta klase aurreratutik masa langileetara doazenak. (...)”

Sindikatuak, egungo uneari eta Trotski burkidearen akatsei buruz (1920) – Lenin

Sozialismoan sindikatuak behargin-klasearen lan-baldintzen hobekuntzarako beharrezkoak ez direnaren ideien aurrean, Lenin-ek Estatu sozialistaren balizko desitxuraketa burokratikoaren aurka proletalgoaren babeserako lanabes gisa ikusten ditu.

“Eta bitartean, seriotasun falta honetan jausiz, Trotski burkideak akats bat egiten du segidan. Bere ustez, behargin-klasearen interes material eta espiritualen defentsa ez omen da sindikatuaren eginkizuna behargin-Estatu batean. Hori akats bat da. (...) Baina gehiago dago. Gure alderdiko Programan — ‘komunismoaren abedea’ liburuaren egileak oso ondo ezagutzen duen dokumentua — ikusten dugu gurea desitxuratze burokratikoaren duen behargin-Estatua dela. Eta zintzilikatu behar izan diogu — nola esan? — etiketa tamalgarri hau, edo horrelako zerbait. Hor duzue iragate-aldiko errealitatea. Bada, praktikan gauzatu den Estatu mota hau dela eta, sindikatuak ez al dute ezer defendatzeko? Horiek alde batera utz al daitezke bere osotasunean antolatutako proletalgoaren interes material eta espiritualak defendatzeko? Hau guztiz okerra da ikuspegi teorikotik. (...) Gure gaurko Estatu halakoa da, non bere osoatsunean antolatutako proletalgoak bere burua defendatu behar duen, eta guk behargin-antolakunde horiek erabili behar ditugu beharginak beren Estatuaren aurrean defendatzeko eta beharginen gure Estatuaren defenda dezaten. Defentsa bata eta bestea gure estatu-neurrien eta gure akordioaren konbinazio original baten bitartez egiten da, gure sindikatuarekin “elkartzearen” bitartez.”

Sindikatuak, egungo uneari eta Trotski burkidearen akatsei buruz (1920) – Lenin

Trotski-k bere liburuxkan ‘talka-lanean’ (gogorrak edo beharrezkoak ziren lanak) “igualitarismoa” defendatzen du. Hots, nahiz eta beharginen lan-indar gehiago ipini ordainketa berdina izatea nahi zuen.

“(..). Kontsumoaren esparruan, hau da, langileen existentzia pertsonaleko baldintzetan, beharrezkoa da igualitarismoaren ildoak aplikatzea. Ekoizpenaren esparruan, talka-lanaren sistemaren printzipioak erabakigarria izaten jarraituko du guretzat, oraindik denbora luzean zehar. (...)”

Hau, Marx-ek ‘Gotha-ko programari kritika’ lanean esandakoaren arabera, gizarte komunistaren eraikuntza prozesuaren fase sozialistan produktuen banaketaren arloan beharrezkoa den ‘bakoitzatik bere gaitasunen arabera, bakoitzari bere lanaren arabera’ lemaren aurkakoa izateaz gain, proletalgoaren ale aurreratuenak gaitesplotatzeko nahia ezkututzen zuen.

“Hau erabateko nahasmen teorikoa da. Hau erabat okerra da. Talka-lanaren sistemak lehentasuna dakar, baina kontsumorik gabeko lehentasuna ez da ezer. Nirekiko lehentasuna bada ogi libra zortziren bat jasoko dudala, ez dut lehentasun hori ezertarako behar. Talka-laneko sisteman lehentasuna kontsumoan lehentasuna da ere. Hau gabe, talka-lanaren sistema amets bat da, kimera bat; baina gu, ordea, materialistak gara. Eta beharginak materialistak dira; talka-lan sistemaz hitz egiten bada, ogia, arropa eta haragia eman behar dira. (...)”

Sindikatuak, egungo uneari eta Trotski burkidearen akatsei buruz (1920) – Lenin

Trotski eta bere aldekoek ‘Cectran’-ean (lur- eta ibai-garraiobideen sindikatua) haien ildoak ezarri zuten eta arazo ugari sortu beharginen eta Alderdiaren artean. Alderdiko EBak batzorde sindikal bat sortu zuen, zeinetan Trotski sartu zuten, baina honek uko egin zion parte hartzeari, EBaren diziplinaren urraketa zena. Trotski-k Lenin-i “eztabaida ezabatzea, zapuztea” aurpegiatzen zion Cectran-aren auziarekin, eta ez zuela batzordean parte hartuko “berari auzi horiek Alderdiaren prentsan aurkeztea, beste kideei bezala, ahalbidetu arte”. Eztabaida luze honetan “sataniko” bezalako muturreko esapideak erabiltzera iritsi zen. Trotski-ren ageriko burokratismo eta handikeriaren aurrean Lenin-ek Errusia osoko Sobieten VIII. Biltzarran onartutako ebazpena defendatu zuen.

“(..). Gerra garaietako esperientzia baliotsu bat dago: heroismoa, lanak betetzeko ardura eta abar. eta alde txar bat dago elementu militar okerrenen esperientzian: burokratismoa eta handikeria. Trotski-ren tesiak, bere kontzientzia eta borondatearen aurka, esperientzia militarren alderik okerrera, eta ez onena, babestera etorri ziren. Gogoan izan behar da buruzagi politiko batek ez duela bere politikaz bakarrik erantzuten, baizik eta berak zuzentzen dituenek egiten dutenaz ere bai.”

Sindikatuak, egungo uneari eta Trotski burkidearen akatsei buruz (1920) – Lenin

Trotski-rentzat “ekoizpenean demokrazia” sartzeko bere apetaren arabera aukeratutako buruzagi sindikalen nahitaezko hautagaitzak ezartzea esan nahi zuen, hots, “goitik astintzearen” kontsigna ezartzea.

“Horra hor benetako burokratismoa! Trotski-k eta Krestinski-k sindikatuak “buruzagiak” aukeratutako dituzte! (...) Politikoki, gaiaren ikuspegi osoa erabateko ukimen faltaren parekoa da. Trotski burkidearen “tesiak” gauza kaltegarria dira zentzu politikoan. Bere politika, azken batean,

sindikatuena kitzikapen burokratiko politika bat da. Eta ziur nago gure Alderdiaren Biltzarreak politika hori gaitzetsi eta arbuatuko duela.”

Sindikatuari, egungo uneari eta Trotski burkidearen akatsei buruz (1920) – Lenin

Trotski-k EBaren baitako eztabaidetan bakarrik geratu ostean, bere liburuxkan oinarritu zen plataforma bat sortzeko (“liburuxka-plataforma” deitu zuena) Bukharin-en babesarekin eta EAK(b)aren X. Biltzarrean eztabaidarako aurkeztu zuen. Tesi horren amaieran “Biltzarreak mugimendu sindikalaren bi joeren artean aukeratu beharko zuela” idatzi zuen. Lenin-ek hau “frakzio baten eraketa” zela esan zuen eta Bukharin “frakzionismo okerrenaren eta kaltegarrienaren konplize” zela.

“Trotski burkidearen tesi hauekin zerbait desatsegina gertatu da. Zuzenez duten guztia, berria ez izateaz gain, Trotski-ren aurka bihurtzen da. Eta berriaz dutena guztiz desegokia da. (...) Trotski burkidearen liburuxka-plataforma hau guztia, hasieratik bukaeraraino, “goitik astintzearen” politikaren izpirituaz blai dago, hain zuzen ere. Aski izan bedi gogoratzea Tomski burkideari edo “buruzagi sindikal askori” egindako akusazioa, “beren eremuetan funtzionario berriei antipatiaren izpiritu sustatzen dietelako!” (...) Trotski-ren akatsa aldebakartasunean, suhartasunean, gehiegikerian eta burugogorkerian datza. Trotski-ren plataformaren arabera, edalontzia edateko balio duen ontzia da, baina delako edalontziak hondorik ez duela gertatu da.”

Beste behin ere sindikatuei, egungo uneari eta Trotski eta Bukharin burkideen akatsei buruz (1921)

1921. urtean, behargin-antolakunde guztiak Trotski-ren ildo okerraren aurka kokatu ostean, hau EAK(b)an ere garaitua izan zen. Biltzarre honetan beste frakzio batzuk ere agertu ziren, esanguratsuen ‘behargin-oposizioa’ izanik (Alderdiaren abangoardia papera ukatzen zuen desbideraketa anarko-sindikalista). Honen inguruan Trotski-k adierazi zuen:

“Behargin Oposizioak lelo arriskutsuak aurkeztu ditu. Printzipio demokratikoak fetitxe bihurtu dituzte. Nolabait, langileek beren ordezkariak aukeratzeko duten eskubidea Alderdiaren gaintik jarri dute, Alderdiak bere diktadura defendatzeko eskubiderik ez balu bezala, honek behargin-demokraziaren aldi baterako apetekin talka egiten badu ere.”

EAK(b)aren X. Biltzarrean ere, ‘behargin-oposizioa’ desegiteko ebazpena eta gero, Lenin-ek idatzitako ‘Alderdiaren batasunaren inguruan’ ebazpena onartu zen, zeinetan eztabaidak “plataformetan” eman ordezkari guztien artean ematea beharrezkoa zela adierazteaz gain, 6. puntuan lan frakzionala egiten zuen oro Alderditik kanporatua izatea ekarriko zuela ezarri zen:

“Biltzarreak plataforma baten edo bestearen oinarrian sortutako talde guztiak berehala desegitea agintzen du, salbuespenik gabe, eta antolakunde guztiei agintzen die ahalik eta zorrotasun handienaz zaindu dezatela edozein ekintza frakzional eragozteko. Biltzarrearen akordio hau ez betetzeak Alderditik berehala eta baldintzarik gabe kanporatzea ekarri beharko du.”

Sozialismoa eraikitzeko “ezintasuna”

EAK(b)aren X. Biltzarrean ‘NEP’-ra (Politika Ekonomiko Berria) igarotzea erabaki zen, Lenin-ek “beharrezko atzerapausu gisa” ezaugarritu zuenak eta, muga batzuen barnean, kapitalismoa onartzen zuenak (landa-eremuan batez ere) ekonomiaren sektore sozialista garatzen zihoan bitartean. Honek ‘nepman’-en (merkatariak) agerpena eta ‘kulak’-en (nekazari aberatsak) indartzea ekarri zuen, proletalgoak gainontzeko nekazariekin aliantza estutzen zuen bitartean.

“Garapen ekonomiko eta politikoaren desberdintasuna kapitalismoaren lege absolutua da. Hortik ondoriozta daiteke sozialismoak lehenik herrialde kapitalista batzuetan edo herrialde bakar batean modu isolatuan ere garaitu dezakeela. Herrialde honetako proletalgo garailea, kapitalistak desjabetu eta bere baitan ekoizpen sozialista antolatu ondoren, gainerako mundu kapitalistaren aurka altxatuko zen, gainontzeko herrialdeetako klase zapalduak bere aldera erakarriz, hauetan kapitalisten aurkako matxinada altxatuz, behar izanez gero, armen indarra ere erabiliz klase esplotatzaileen eta euren Estatuen aurka.”

Europako Estatu Batuen kontsignaren inguruan (1915) – Lenin

Egoera honetan Trotski-k bere “iraultza etengabearen” teoria mentxebikea berreskuratzen saiatu zen, “sozialismoaren eraikuntza herrialde bakar batean” ezinezkoa zela esateko. 1922an, bere ‘1905’ liburuari hitzaurrean, honela azaldu zuen gaia:

“Hain zuzen ere, 1905eko urtarrilaren 9a eta urriko greba bereizten dituen tartean gertatu zen, autoreak Errusiaren garapen iraultzailea “iraultza etengabea” deitutako teoriak ondoren finkatutako perspektiban bururatzera iritsi zenean. (...) Baldintza hauetan, ezinbestekoa zen borroka iraultzailearen hasieran babestu zuten talde burgesen partez etsai-adierazpenekin topo egitea, bai eta haien lankidetzaz boterera bultzatu zuten nekazarien partez ere. Behargin-gobernu baten egoera kontrolatzen zuten interes kontraesankorrek herrialde atzeratu batean, non biztanleriaren gehiengo zabala nekazariez osatuta zegoen, ezin zuten konponbiderik ekarri baizik eta nazioarteko planoan, munduko iraultza proletario baten funtsaren gainean. Behar historikoaren arabera, iraultza errusiarrak demokrazia burgesak ezartzen zizkion muga estuak gaindituko zituztenean, proletalgo garaileak naziotasunaren esparrua ere hautsi beharko zuen, hau da, bere ahalegina kontzienteki zuzendu beharko zuen iraultza errusiarra munduko iraultzaren atarikoia izan zedin.

Nahiz eta epaiketa honen eta gertaeren artean hamabi urteko tartea egon, azaldu berri dugun iritzia guztiz baieztatua izan da. (...)”

Lehenik eta behin, badago Trotski-k ia oharkabean pasarazten saiatzen den aldaketa bat: oraingo bertsioan errusiar iraultza sozialista da “nazioarteko” bihurtu behar dena eta “mundu osoko” iraultza bultzatu, eta ez alderantziz, garai hartan zion bezala, Europako diktadura sozialistak errusiar iraultza sozialista bihurtzeko beharrezkoak zirenak. Gainera gertakariak arrazoia eman ziotela esaten du (!), errealitatea guztiz aurkakoa zenean, hots, ez zen iraultza sozialistarik egon Europan Errusiako proletalgoa boterean ipini zuenik.

Bestetik, Trotski berriro tematzen da nekazariak iraultzari bizkarra emango diotenaren ideian, “etsaitasunezko talkak” sortzeraino, nekazalgoarekin aliantza izan zenean, ez soilik diktadura demokratikoko fasean baizik eta guda zibil iraultzailean ere, komunisteri garaipena eman ziena. Oraingoan, berriz, Errusiako atzerapen ekonomikoak bere kabuz sozialismoaren eraikuntza galaraziko luke, Europako herrialde garrantzitsuenetan Sozialismoa egon arte. Hau are argiago esan zuen Trotski-k 1922an ‘Bakearen programa’ liburuxkari idatzitako hitzatzean:

“Behin baino gehiagotan errepikatu dugu iraultza proletarioa ezin dela garaile atera esparru nazional baten barnean. Baieztapen hau gure Errepublika Sobietikoaren ia bost urteko bizitzaren esperientziaren ondorioz gezurtatua izan dela irudituko zaie irakurle batzuei beharbada. Baina ondorio hori funtsik gabea litzateke. Behargin-Estatuak herrialde bakar batean eta, gainera, herrialde atzeratu batean mundu osoaren aurka erresistitu izanak proletalgoaren ahalera itzela erakusten du, beste herrialde aurreratuago eta zibilizatuago batzuetan benetako mirariak egiteko gai izango dena. Baina, zentzu politiko eta militarrean Estatu gisa mantentzea lortu ondoren, oraindik ez gara iritsi, ezta hurbildu ere egin gizarte sozialistaren sorrerara. Botere iraultzailea mantentzeko borroka ekoizpen-indarren ezohiko murrizketa eragin du; baina, sozialismoa soilik da irudikagarria hauen hazkunde eta betetasunarekin. Estatu burgesekin aduana-negoiazioak, emakidak, Genevako Biltzarrak, esparru nazionaletan sozialismoaren eraikuntza isolatuaren ezintasunaren lekukotza zantzaileak dira. Gainerako Estatu europarretan burgesia Boterean mantentzen den bitartean, isolamendu ekonomikoaren aurkako borrokan, mundu kapitalistarekin akordioak bilatzera behartuta egongo gara; aldi berean, ziurtasun osoz baieztatu daitezke akordio hauek, kasurik onenean, zauri ekonomiko bat edo beste orbaintzen, aurrerapauso bat edo beste ematen lagun diezaguketela, baina ekonomia sozialistaren benetako gorakada Errusian Europako herrialde garrantzitsuenetan proletalgoaren garaipena eman eta gero baino ez da posible izango.”

Benetazkoak ziren zailtasun hauek esaldi “hiper-iraultzailez” apaindutako kapitulazio eta ezkoratsun politika baten oinarri bihurtzen ditu Trotski-k. Bere ideia mentxebikeen berriztatze baten aurrean gaude, kapitalismoa iraunarazteko Errepublika sobietikoaren proletalgoa geldotasunera kondentatzea bilatzen zuena. EAK(b)aren XI. Biltzarrean irakurritako txostenean, Trotski honela mintzo zen NEParen iraupenaren inguruan:

“(..) Hau, esango da, muzhikei emakida bat da. Eta horixe da. Emakida hau egin izan ez bagenu, Errepublika Sobietikoa eraitsia izango zen. Zenbat urte iraungo du ekonomiaren fase honek? Ez dakigu; bi urte, hiru, bost edo hamar... iraultza Europa iritsi arte. (...)”

1922ko apirilean EAK(b)aren XII. Biltzarrea egin zen, zeinetan ustez NEParen eragin burgesarri aurre egiteko eta oraindik landa-eremuan ekoizpen txikia nagusi izanari muzin eginez, Trotski-k industria estatalaren garapena nekazalgoaren esplotazioaren bitartez eraman nahi zuen aurrera. Honen aurrean Alderdiak nekazalgoarekin aliantzari eustea eta kooperatibizazioa bultzatzen hastea erabaki zuen.

“Hain zuzen ere, Estatuaren esku dauden ekoizpen-baliabide handi guztiak, eta proletalgoaren esku dagoen botere hori, horren aliantza milioika eta milioika nekazari txiki eta oso txikirekin, azken horien zuzendaritza proletalgoak egikaritzen duen bermea, eta abar. ez al da gizarte sozialista osoa

eraikitzeke behar den guztia, kooperatibismotik abiatuta, haren bidez bakarrik, lehen merkantilismotzat jotzen genuen eta orain NEPen menpean hein batean trataera bera mezeri duen kooperatibismo horretatik abiatuta? Hori oraindik ez da gizarte sozialistaren eraikuntza, baina bai eraikitzeke ezinbestekoa eta nahikoa den guztia.”

Lankidetzari buruz (1923) – Lenin

1922an ere, ‘Gure desadostasunak’ lanean “boltxebismoaren ezaugarri anti-iraultzaileen” esaldiari gerora egindako ohar batean, Trotski-k bere akatsak onartu eta zuzendu ordez, Lenin-en ‘Apirileko Tesietan’ boltxebikeek iraultzaren faseen inguruko bere ikusmolde mentxebikeak hartu zituztela sinestarazi nahi digu, bere aldekoek barreiatzen hasi zirena, Urriko iraultzak “iraultza etengabearen” teoria konfirmatu izan balu bezala.

“Ez zen hala izan zorionez; Lenin burkidearen zuzendaritzapean, doktrina boltxebikeak (ez barne borrokarik gabe) funtsezko gai honi buruzko bere ideiak eraldatu zituen 1917ko udaberrian, hau da, boterea hartu aurretik (1922, L.T.).”

Suitzako erbestetik Petrogradera bidean Lenin-ek idatzitako ‘Urruneko gutunetako’ lehen gutunean, Apirileko Tesien aurrekaria izan zirenak, iraultzaren etapa desberdinetaz eta iraultza burgesetik iraultza sozialistara igarotzeko beharraz mintzo zen.

“Beste artikuluko batean, gobernu honekiko dugun berehalako jarreraren arazo taktikoez arduratuko gara. Bertan egungo egoeraren originaltasuna azalduko dugu, iraultzaren lehen etapatik bigarreneira igarotzekoa baita, eta zergatik “eguneko zeregina” kontsignak, une honetan izan behar duen: Beharginak! Zuek balentria proletarioaren, herriaren balentriaren, mirariak egin dituzue tsarismoaren aurkako gerra zibilean. Zuek proletarioaren eta herri osoaren antolakuntzaren mirariak egin behar dituzue iraultzaren bigarren etapan garaipenaren bidea prestatzeko.”

Lehen iraultzaren lehen etapa (1917) – Lenin

Botere bikoiztasunaren aldi behargin eta nekazarien diktadura demokratikoak bere egitekoak guztiz burutu ahal izan ez bazituen ere, proletarioaren diktaduraren lehen ekintza, Lenin-ek idatzitako lurraren nazionalizazioa eta nekazariei banatzea, hauen burutzea izan zen. Hau leninismoa trotskismoaz ordezkatzeko saiakeren hasiera izan zen, baina Lenin bizi zen artean, eta Trotski ez zen guztiz erabaki eraso hastera.

Ibilbide “berri” bat

1922. urtearen hasieran, Molotov ordezkatzuz, Stalin Alderdi boltxebikearen Idazkari Nagusi izan zen hautatua. Handik gutxira, Lenin-ek politikatik aldendu behar izan zuen bere garun-gaixotasunak jota (1918an jasandako atentatuak okertutakoa). Urte amaieran hainbat nazioetako Errepubliken arteko hitzarmenean Errepublika Sozialista Sobietikoen Batasuna sortu zen. Hungariako eta Germaniako iraultza-saiakeren porrotek ere, 1923ko udazkenean, gogor jo zuten Nazioarteko Mugimendu Komunista.

Orduan Trotski-k bere erasoari hasiera ematea erabaki zuen. 1923ko irailean, ‘Politburo’-ak (EBak aukeratutako aginte-arduradunak) ‘Ibilbide berria’ deitutako Alderdi barneko antolakuntza eta demokraziaren inguruko ebazpena atera ondoren, Trotski-k gutun bat zuzendu zion urrian EBari, non “burokratismoaren” aurka borrokatzeko aitzakipean, mentxebike garaian leninisten aurka esaten zituen asmakeria berberak errepikatzen zituen: XII. Biltzarrean industriaren inguruan hartutako erabakiak kritikatu ostean, hondamena iragarriz hauek aldatu ezean, “idazkarien aparatuen burokratismoa” (Idazkari Nagusia, Stalin, buru zuelarik) eta “X. Biltzarrea baino lehen ezarritako erregimena” salatzeraz igarotzen da, Alderdi barneko eztabaida itoazten omen zuenak.

“(...) Alderdiko militanteen, estatu- eta alderdi-aparatuko geruza oso zabal batek uko egiten dio bere iritzi pertsonalari, edo, gutxienez, bere burua modu irekian adierazteari, idazkarien hierarkia alderdiaren iritzia eta erabakiak egiten dituen instantzia izango balitz bezala. Militanteen geruza horren azpitik, iritzi pertsonalik ez dutenak, erabaki guztiak kontsigna gisa, baita agindu gisa ere, hartzen dituzten militanteen multzoa dago. Funtzionamendu orokorrak eta arrazoi zehatzek nahigabe handia eragiten dute. Benetan eztabaidatzeko eta alderdiaren antolaketan pisua izateko inolako aukerarik ez dagoenez (alderdiko batzordeetako idazkarien aukeraketaren bidez), nahigabe hori, bere burua xurgatu orde, ezkutuan pilatzen da barne-sarbideak eragin arte. Aparatu ofizialak (idazkarien aparatuek) antolakunde gero eta handiago baten irudia ematen duen bitartean, homogeneotasun ia automatikoarena, gaur egungo gai zailenei buruzko eztabaida eta hausnarketa alde batera uzten da, eta horrek alderdiaren barruan talde ilegalak sortzea eragiten du.”

Burokratismoaren inguruko intziri hauen atzean zeuden helburuak Lenin-ek Trotski-ren maisua izan zen Axelrod mentxebikeari idatzitakoa dakar gogora:

“Argi dago, nire ustez, burokratismo famatuaren aurkako aldarriak erdiguneko atalen osaketarekiko nahigabea estaltzeko bide bat baino ez direla, Biltzarrean handikiro tematutako hitz bat ezkututzen duen parra hosto bat baino ez direla, eta hitz horri huts egin zaiola. Burokrata bat zara, Biltzarreak nire borondaterik gabe eta haren aurka izendatu zaituelako! Formalista bat zara, Biltzarreko erabaki formaletan oinarritzen zarelako, eta ez nire baimenean! Modu basatian eta mekanikoki ekiten duzu, Alderdiaren Biltzarreko gehiengo “mekanikoari” lotzen zarelako eta ez diozulako jaramonik egiten kooptatua izateko nire gurari! Autokrata bat zara, ez duzulako boterea adiskide onen tertulia zaharraren eskuetan jarri nahi, bere zirkuluko “jarraitutasuna” are kementsuagoki defendatzen dutenak zenbat eta desatseginagoa egiten zaion Biltzarreak zirkuluko espiritu hori bera zuzenean gaitzestea.”

Pauso bat aurrera, bi pauso atzera (1904) – Lenin

Aste baten buruan gehienbat trotskistez osatutako ‘46en plataforma’ talde frakzionalaren adierazpena agertu zen, Trotski-k ustez konfidentziala zen gutuna erakutsi baitzien. Adierazpen honetan ezer proposatu gabe krisi ekonomikoaren erru osoa EBaren erabakiei egozten zitzaion, baita barne-funtzionamenduan akatsak ere. Azken finean Trotski-ren gutuneko ideia berberak errepikatzen ziren, antzeko hizkeran adierazita. Baina bazegoen desberdintasun kualitatibo bat:

“Horrela sortutako egoera azaltzen du alderdiaren barneko frakzio baten diktadura-erregimenak, X. Biltzarrearen ondoren sortutakoa, bizirik iraun izanak. Gutako askok kontzienteki onartu genuen erregimen horretara makurtzea. 1921 urteko bira politikoak eta ondoren Lenin burkidearen gaixotasunak, gutariko batzuen arabera, diktadura bat eskatzen zuten alderdi barnean neurri koiuntural bezala. Beste kide batzuek hasieratik jarrera eszeptikoa edo negatiboa hartu zuten haren aurrean. Dena den, XII. Biltzarrearen garaian jada erregimen hori gaindituta zegoen. (...)”

X. Biltzarrean onartutako ‘Batasunaren inguran’ ebazpena “denboraldi baterakoa” zenaren ideia mahaigaineratzen du, frakzioen onarpena berrezartzeko asmo ezkutua adierazten duena, eta Alderdian agintean zegoen “frakzio baten diktadurarekin” amaitu ezean etorkizun bakarra porrota zela dio.

Trotski-k beste gutun bat argitaratu zuen, asmatutako “elkarrizketa partikularretan” oinarritutako hainbat buruzagiren aurkako difamazioz betetakoa, esamesetaz bizitzeko bere ohitura berreskuratuz, baina oraindik formak gordetzen zituen hainbat auzitan.

“Lenin burkideari proposatu nionean, bere idazkariaren bitartez (Lenin burkidea jada larriki gaixorik zegoen eta elkarrizketa pertsonalak debekatuta zeuzkan), abenduaren 30eko gutuna eta artikulua, berak isilpean bidali zizkidanak, Politburoko kideei erakustea, auzi nazionalean buelta erdia lortzeko helburuaz modu ez hain mingarrian, Lenin burkideak formalki debekatu zidan, nik XII. Biltzarreko Presidium-eko saioan behin erabili nituen argudio berberekin. “Inola ere ez [jakinarazi zidan Vladimir Iltix-ek bere idazkariaren bitartez]. Berak [Georgiara abiatu zen Kamenev burkidea zen] Stalin-i dena kontatuko dio eta Stalin-ek konpromezu ustela onartuko du eta engainatu egingo gaitu”. ”

Alderdiaren EBak gutun hauek kondenatu eta Trotski eta bere talde frakzionala eszisionista gisa seinalatu zituen, baina honek ageriko egitate hau ukatu zuen. Abenduan Moskuko irrati bati bidalitako beste gutun bat argitaratu zen, gauza berdinak esaten zituenak baina publiko zabalago bati zuzendutakoak. Era honetan Trotski-k Alderdi osoa eztabaida sutsu batera eramane zuen.

Trotski-k boterea Alderdikideen eta masa langileen gaineratik lortu nahi zuen, eta horretarako bere ibilbide politikoa ezagutzen ez zuten gazteak asaldatzera jo zuen, ikasleak batez ere, hauek maneiatzeko helburuarekin. Belaunaldi gaztea, Alderdiaren “barometroa” omen zena (maneiatutako Lenin-en zita pare batetan oinarrituta), “goardia zaharraren” burokratizazio arriskuari kontrajartzen zion eta II. Internazionalako buruzagi sozialdemokratikak ipintzen zituen adibidetzat, analogia garbi bat eginez (harrigarria Trotski-k hauekin zuen harremana kontuan izanda).

“Burokratismoak ekimena ezerezten du eta honela alderdiaren maila orokorra jasotzea galarazten du. Hori da bere funtsezko akatsa. Aparatua ezinbestean eskarmentu eta merezimendu handieneko burkideek osatzen dutenez, burokratismoak arrisku handiagoz eragiten du belaunaldi komunista gazteen formakuntza politikoan. Hala ere, gazteria da, alderdiaren barometro segurua, gure antolakundearen burokratismoaren aurka indar handienaz erreakzionatzen duena.”

Bere taktikaren beste alde bat Alderdiko aparatua gainontzeko kideei kontrajartzea zen, kritikoak “ikaratzen” zituzten idazkariez osatuta omen zegoena. Guzti hau 1904ko ‘Gure egiteko politikoak’ lanean “Maximilien” Lenin-en aurka idazten zituen txorakerien antza handia dauka...

“Alderdiaren aparatua berritzeak (estatutuaren esparru zehatzean) momifikatutako burokratak kolektibitatearen bizitzari estuki lotutako elementu indartsuekin ordezkatea izan behar du helburutzat. Eta, batez ere, lehenengo protesta edo objekzio hitzaren aurrean kritikoen aurka zigorren mehatxuak egiten dituztenak urrundu behar dira aginte-postuetatik. “Ibilbide berriak”, lehen emaitza gisa, aurrerantzean inor ez dela ausartuko alderdia ikartzera guztiei sentiaraztea izan behar du.”

Aurrerago garai berean boltxebikeen diziplinaz zioena (“hil dadila diziplina hau!”) errepikatzen du, antza “burokratez” betetako alderdi batean bakarrik zegoen gizon indibidualista baten aldarria zena. Gutxienez ‘gutxiengoa’ (mentxebike) zela onartzen zuen!

“Kanpora alderditik buruzagien oinatzak mekanikoki jarraiarazten dituen obedientzia pasiboa! Kanpora alderditik nortasunik eza, morroikeria, karrerismoa! Boltxebikea ez da bakarrik gizon diziplinatua; kasu bakoitzean eta arazo bakoitzerako iritzi irmoa sortzen duen gizona da, eta adoretu defendatzen duena, ez bakarrik bere etsaien aurka, baita bere alderdiaren barruan ere. Agian gaur egun gutxiengo bat osatzen du bere antolakundearen. Orduan makurtuko da, bere alderdia delako. Baina horrek ez du esan nahi beti oker dagoenik. Agian besteek baino lehenago ikusi edo ulertu zuen bide berria edo bira baten beharra. Arazoa bigarren, hirugarren, hamarren bat aldiz mahaigaineratuko du, beharrezkoa bada. Horrela, bere alderdiari zerbitzu bat emango dio, bide berrirarekin ohituz edo beharrezko bira barne-aztoramenik gabe egiten lagunduz.”

Amaieran frakzionalismoaren errua “aparatua burokratismoari” eta “zentralismo mekanikoari” egozten die, eta “tradizioaren” aurkako borroka ipintzen du egoera hau gainditzeko giltzarritzat.

1924ko urtarrilaren amaieran, EAK(b)aren XIII. Batzarraren irekiera egunean, Trotski-k gutun hauek eta beste artikulua batzuk ‘Ibilbide berri bat’ deitutako lanean argitaratu zituen, EBan ez argitaratzeko konpromezua hartu eta gero (EBak bai bete zuena). Baina liburu honetan, burokratismoaren inguruko aurreko ikuskera mentxebikeak errepikatzeaz gain (aparatua, gazte ikasleak, eta abar.), urrats bat ematen zuen bere mozorro “boltxebikea” kentzeko bidean.

Bere frakzionalismoa justifikatzeko intentzioarekin Trotski-k Alderdi barneko eztabaida orori (matxinada, Brest-Litovsk, Ejertzitoa, sindikatuak...) “frakzio baten osaketa” (hau kualitatiboki desberdina denean) eta X. Biltzarrean frakzioak debekatzeari erabaki “formala” deitzen dio, atentzioa “frakzio kontserbadore burokratikoan” (Alderdiak aukeratutako zuzendaritza) ipintzeko eskatuz.

“(..). Eta, batez ere, alderdiak hartutako erabaki eta neurri ekonomikoei esker (haien emaitza desadostasunen eta taldeen desagerpena izan zena), X. Biltzarreak, bere erabakiak balio izango zuela uste izateko arrazoiekin, formalki debekatu ahal izan zuen frakzioen eraketa. Baina, esperientziak eta zentzu politiko onak frogatzen duten bezala, argi dago debeku horrek, bere baitan, ez zuela inolako berme absoluturik ezta fidagarririk esan nahi, multzokatze ideologiko eta organiko berrien agerpenaren aurka. (...) Frakzioak arriskutsuak direla egia bada (eta hala dira), orduan delitua da begiak ixtea frakzio kontserbadore burokratikoak ordezkatzeko duen arriskuaren aurrean. (...)”

Aurrerago Frantziako Iraultzarekin analogia historikoak “gainazalekoak eta funtsik gabeak” zirela esan arren, gerora berak beste inork baino gehiago erabiliko zituen (mentxebike garaian bezala).

Trotsky-k iradokitzen du Urriko iraultza (Lenin-en Apirileko Tesietatik matxinada armatura) aurreko garai osoa soilik “prestakuntza izaera” izan zuela Alderdi boltxebikearentzat. Honela Alderdiak “boltxebismo zaharra”, Urriko iraultza baino lehenagokoa, kontserbadorea eta tradizionala, burokratismoari lotutakoa, eta abar. baztertu behar zuenaren ideia eratzen hasten da, bere “boltxebismo berria”, Urriko iraultza ondorengoa, Lenin-ek Apirileko Tesietan “iraultza etengabea onartu” eta gerokoa, trotskista azken finean, bereganatu behar zuen bitartean.

“Alderdiaren aparatuen burokratizazio handiago edo txikiagoarekin batera tradizionalismo kontserbadorea garapena doa ezinbestean, bere ondorio guztiekin. Hobe da arrisku hori handizkatzea gutxiatea baino. Aparatuko alerik kontserbadorenek beren iritziak, erabakiak, prozedurak eta faltak “boltxebismo zaharrarekin” identifikatzeko joera izatea eta burokratismoaren kritika tradizioaren suntsipenarekin parekatzen saiatzea, zalantzarik gabekoa eta petrifikazio ideologiko jakin baten adierazpen eztabaidaezina da berez. (...) “Boltxebismo zaharraren” itzalpean, egiazki tradizio formal, fikziozko, okerraren itzalpean, alderdian errutinazko zen guztia Lenin-en “apirileko tesien” aurka matxinatu zen. (...) ustezko “boltxebismo zaharra”, egiaz, atzean utzi berri dugun aldi baten estalki hutsa da.”

Leninismoa “lan fisikoan sentsazio muskularrera” parekatu ostean (Lenin “praktiko” bat zela zioenean bezala), Trotsky-k dio ez zuela uste leninismora iristeko bere ibilbidea “besteena baino gutxiago ziurra” zenik eta “alderdiaren zerbitzurako bere jokabidea berme bakarra” zela: mentxebikeak babestea, 1905en matxinada armatua gaitzestea, likidatzaileekin Abuztuko Blokea osatzea, Zimmerwald-eko ezkerari aurka egitea, alde batetik, eta Brest-Litovsk-eko Itunari boikoteatzea, Ejertzito Gorria ofizial tsaristaz betetzea, sindikatua estatizatu eta militarizatu nahi izatea, eta abar. bestetik. Zelako ibildea eta zelako bermea!

Baina lanak bere gorena jotzen du nekazalgora gutxiesten zuela ukatzen duenean (muzhikari buruz zioena gogoratu besterik ez dago) salaketa hauek “zurumurrutzat” joz.

“Iraultza etengabearen teoriari dagokionez, ez dut inolako arrazoirik ikusten horri buruz 1904, 1905, 1906 eta gerora idatzi dudanari uko egiteko. Oraindik ere errepikatzen dut garai hartan garatzen nituen ideiak, oro har, benetako leninismotik askoz hurbilago daudela garai hartan boltxebike ugarik argitaratzen zituzten idazki gehienak baino. (...)”

Hara! Beraz “iraultza etengabearen” teoria leninismotik gertuago dago garai hartan boltxebikeek (Lenin barne?) idazten zutena baino! Trotski, ordea, ez da hemen gelditzen:

“(...) Errusiaren kasuan, teoria honek esan nahi zuen: behar duguna ez da errepublika burgesa, ezta proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoa ere, baizik eta nekazalgoak babestutako behargin-gobernua, nazioarteko iraultza sozialistaren garaia hasiko duenak.

Beraz, iraultza etengabearen ideia guztiz bat dator boltxebismoaren funtsezko ildo estrategikoarekin. Duela hamabost bat urte, beharbada, ahal zen horrela ez ikusi. Baina ezinezkoa da orain hura ez ulertzea eta aitortzea, esperientziak formula orokorrak egiaztatu dituenean.”

Teoria mentxebike honek proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoaren beharra ukatu eta “nazioarteko iraultza sozialistaren aroari” (gezurra, Europakoak Errusiakoa lagundu behar zuela baitzion) hasiera eman behar ziola esan eta gero, “boltxebismoaren funtsezko ildo estrategikoaren bat” zettorrela dio, “esperientziak egiaztatu” zuena (!!!).

“Ezin izango da garai hartako nire idazkietan nekazalgoaren “gaintetik pasatzeko” ahaleginik txikiena ere egin. Iraultza etengabearen teoriak leninismora zeraman zuzenean eta, bereziki, 1917ko Apirileko Tesietara. (...)”

Amaitzeko, “iraultza etengabearen” teoriak leninismora eta, batez ere, Lenin-en Apirileko Tesietara zeramala esaten du. Preseski tesi hauetan Lenin-ek “iraultza etengabea”, nekazalgoaren gutxiestea eta Trotski-ren beste kontsignak gaitzetsi zituen. Argi dago zein “boltxebismo” eta zein “leninismo” mota babesten zituen Trotski-k...

“Baina, ez al dugu subjektibismoan erortzeko arriskua, iraultza demokratiko-burgesaren, oraindik amaitu ez dena eta nekazarien mugimendua oraino agortu ez duena, “gaintetik jauzi” eginez iraultza sozialistara iritsi nahi izateko arriskua?”

Nik esan izan banu: “Tsarrik gabe, behargin-gobernu baten alde”, arrisku hori mehatxatuko ninduke. Baina ez dut hori esan, beste zerbait esan dut. (...)”

Nire tesietan, erabat ziurtatu nintzen mugimendu nekazari, oraindik estari dagoena, edo, oro har, burges ttipiaren gaineko jauzi oro ekiditeaz, behargin-gobernu batek “boterea konkistatzearen” jolas ororen aurka, edozein abentura blankistaren aurka, nahita aipatu bainuen Pariseko Komunaren esperientzia. (...) gehiengoaren nagusitasun zuzena, berehalakoa eta eztabaidaezina erabat bermatzen du, baita masen jarduera ere, gehiengoak berak kontzienteki egiten duen neurrian bakarrik.”

Taktikari buruzko gutunak (1917) – Lenin

EAK(b)aren XIII. Biltzarran Trotski-ren frakzioa garaitua izan zen, burokratismoaren inguruan mintzatzeko zilegitasun handirik ez zuenak militante komunisten begietara (goi-mailako ikasleen artean eta ejertzitoan babes batzuk lortu bazituen ere), eta Alderdiak bere ildoak desbideratze burges ttipi bezala izendatu zuen. Hau gerora Alderdiaren XIII. Biltzarreak eta ‘Komintern’-aren (Nazioarteko Komunita edo III. Internazionala) V. Biltzarreak ere berretsi zuten. Biltzar honek X.

Biltzarreak onartutako ‘Alderdiaren batasunaren inguruan’ Lenin-en ebazpenaren 7. puntua publiko egitea erabaki zuen, ordura arte egin ez zena:

“Alderdiaren baitan eta atal sobietikoen lan osoan diziiplina zorrotzari eusteko eta ahalik eta batasun handiena lortzeko, frakzionismo oro ezabatuz, Biltzarreak ahalmena ematen dio EBari diziiplina haustearen kasuan, edo frakzionismoa berpizkunde edo tolerantzia kasuan (edo kasuetan) alderdiko zehapen-neurri guztiak hartzeko, alderditik kanporatzea barne; EBko kideen inguruan, berriz, honek ordezeko kategoriara pasa ahal izango ditu, eta are gehiago, muturreko neurri gisa, alderditik kanporatu. Muturreko neurri hau aplikatzeko (EBko kideei eta ordezkoei, hala nola Kontrol Batzordeko kideei), ezinbestekoa da EBaren osoko bilkura deitzea, eta horretara EBko ordezeko kide guztiak eta Kontrol Batzordeko kide guztiak gonbidatzea. Alderdiko buruzagi arduratsuenen batzar orokor honek beharrezkotzat jotzen badu, botoen bi herenengatik, EBko kide bat ordezeko izatera pasatzea edo alderditik kanporatzea, neurri hori berehala aplikatu beharko da.”

Urriko “irakaspenak”

1924ko urtarrilaren amaieran Lenin, Alderdi boltxebikearen sortzaile nagusia, hil egin zen bere gaixotasunaren ondorioz. Trotski ez zen bere hiletara agertu Kaukasoan zegoelako beste behin eritasun bat pasatzen. Honen aurrean, eta hartutako erabakiak praktikara eramanez, Alderdi boltxebikeak ‘Lenin-en promozioa’ gauzatu zuen: 240 mila behargin baino gehiago Alderdian sartu ziren, honen oinarria sendotuz. Stalin-ek hitzaldi bat eskaini zien Unibertsitatean, ‘Leninismoaren oinarriak’ deitutakoa.

Trotski-k Lenin-i buruzko biografia moduko bat argitaratu zuen, lasai asko “Ni eta Lenin” deitu izan zitekeena, non haien arteko harremana guztiz desitxuratuta aurkezten duen. Gainera Marx-ekin alderatuz berriro “praktiko” gisa “goresten” du teoriko gisa behertzeko helburuaz (Lenin-ek ‘Materialismoa eta enpiriokritizismoa’, ‘Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena’, ‘Estatua eta iraultza’... eta beste hainbat idatzi zituen bitartean, Trotski-k ez zuen inolako ekarpenik egin Sozialismo Zientifikoaren garapenera).

“Marx-en estilo aberats eta malguak, non indarra eta fintasuna, sumina eta ironia, austeritatea eta fintasuna konbinatzen diren, antzinako literatura sozialista germaniar osoaren oinarri etiko eta literarioa adierazten du Erreformatik eta are lehenagotik ere. Lenin-en literatura eta otoitz estiloa oso sinplea, erabilgarria eta aszetikoa da, bere izaera guztia bezala. Baina aszetismo ahaltsu honetan ez dago aurreiritzi moralista baten itzalik. Hau ez da printzipio bat, ez da aurrez pentsatutako sistema bat, eta, jakina, ez da pose bat: ekintzara bideratutako indarren barne-kontzentrazioaren adierazpena besterik ez da. Espiritu praktikoa da, muzhikaren barne-ekonomia da, baina sekulako maila handiagoan.

Marx osoa Manifestu Komunistan dago, bere Kritikaren hitzaurrean, Kapitalean. I. Internazionalaren sortzailea izan ez balitz ere, beti izango zen dena. Lenin-ek, berriz, ekintza iraultzailea egiten du. Bere lanak ekintza prestatzeko ariketa soilak dira. Liburu bakar bat argitaratu ez balu ere, historian gaur egun agertzen den bezala agertuko zen: iraultza proletarioaren burua bezala, III. Internazionalaren sortzailea.”

Trotski-k bere unea iritsi zela jo zuen eta artilleria hitzontzi eta manipulatzaile guztia atera zuen bere ‘1917’ liburuaren hitzaurrean, ‘Urriko iraultzaren irakaspenak’ deitutakoa. Lan honetan Trotski-k, bere ohiko idazkera kriptiko eta neketsuan (nahiz eta berak “argitasun kritikoa” eskatu), leninismoaren izenean leninismoa berrikusteko, hots, leninismoa trotskismoagatik ordeztuko, enegarren saiakera egin zuen. Sozialdemokratek marxismoaren berrikuspina Marx-en izenean egin zuten bezala, Trotski-k leninismoaren berrikuspina Lenin-en banderapean egin nahi zuen.

Nahiz eta Trotski-k desbiderapen antiboltxebikez beteriko liburu asko atera, honek jada Alderdiko zuzendaritza osoaren gaitzespena eta teoriko nagusien erantzuna ekarri zion: Kamenev-ek ‘Leninismoa ala trotskismoa?’ idatzi zuen eta Zinoviev-ek ‘Boltxebismoa ala trotskismoa?’. Stalin-ek ‘Trotskismoa ala leninismoa?’ atera zuen eta Krupskaja-k (Lenin-en alargunak) ‘Urriko irakaspenak’. Beste Alderdikide batzuk ere haien artikuluak atera zituzten. Azkenik Bukharin-ek ‘Iraultza etengabearen teoriaren inguruan’ argitaratu zuen.

“1905. urtearen hasieran jada adierazi zuen Lenin-ek Errusiar Iraultzaren izaera berezia “behargin eta nekazarien diktadura demokratikoa” formulan. Bere kabuz, eta hala erakutsi zuen gertaeren ondorengo ibilbideak, formula horrek ezin zuen garrantzirik izan, baizik eta nekazarien babesarekin proletalgoaren diktadura sozialistarenzko etapa gisa.”

Trotsky-ren arabera iraultza tsarismotik “behargin iraultzaileen boterera” igaro ahal izan zen, Otsaileko iraultza burgesatik igaro gabe, “gerra-egoerak” sortutako “aldi-baterako baldintzengatik” izan ez balitz, gerrak mugimendu iraultzailea “eten”, “geroratu” baitzuen eta “nekazariak ejertzitoan bildu” baitzituen. Lenin “behargin eta nekazarien diktadura demokratikoa” defendatzen zuten “boltxebike zaharrei” eta EB osoari kontrajarri nahi du, Apirileko Biltzarran bere Tesiak onartu eta gero (ia aho batez egin zutena) oraindik “boterea hartzearen aurka” eta “demokrazia burgesa ezartzearen alde” zeudenak. Beste behin bere “iraultza etengabearen” teoria mentxebikea leninista gisa aurkezteko asmo berrikustzaile baten aurrean gaude, Lenin-ek Trotsky-ren ikuspuntua hartu izan balu bezala.

“Bestela esanda, behargin eta nekazarien koalizio demokratikoa Boterera igotzeko atariko forma bat bezala baino ezin zen hartu, joera bat, baina ez gertaera bat. Boterearen konkistak estalki demokratikoa hautsi behar zuen, nekazarien gehiengoari beharginak jarraitzeko beharra ezarri behar zion, proletalgoak bere klase-diktadura egikaritu zezan ahalbidetu behar zuen, eta arrazoi beragatik, gai ordenean jarri behar zuen, harreman sozialen demokratizazio erradikalarekin batera, behargin-Estatuaren esku-sartze sozialista gizarte kapitalistaren eskubideetan. Baldintza horietan jarraitzea, “diktadura demokratikoaren” formulari helduz, egia esan, botereari uko egitearen eta irtenbiderik gabeko kale batean iraultza zokoratzearen baliokide zen.”

Trotsky-k ez du ulertu nahi Otsaila gabe ez litzatekeela Urririk egongo, beharrezkoa zela behargin eta nekazarien diktadura demokratikoaren inguruan indarrak biltzea gero iraultza sozialistara igaro ahal izateko, nekazalgoaren bere gutxiesteak ezinezkoa bihurtzen zuenak.

“ ‘Proletalgoaren eta nekazarien diktadura demokratiko iraultzailea’ errusiar iraultzan egikaritu da jada, neurri batean eta maila bateraino, izan ere, “formula” horrek klaseen arteko korrelazio bat baino ez du aurreikusten, eta ez korrelazio hori, elkarlan hori, egiteko erakunde politiko zehatz bat. “Behargin eta soldadu diputatuen Sobieta” bizitzak ezarritako ‘proletalgoaren eta nekazarien diktadura demokratiko iraultzailearen’ egikaritzea da jada.”

Taktikari buruzko gutunak (1917) – Lenin

Trotsky-k dionenez, Lenin-ek erbestetik itzuli ondoren emandako lehen hitzaldiak eztabaida sutsuak eragin zituen boltxebikeen artean, eta Apirileko manifestazio armatuan “Behera Gobernu probisionala!” oihukatzea babestu zuen. Orduan boltxebikeen “eskuin hegialak” Lenin blankismoz akusatu zuen.

“Alderdiko agintari askorentzat, Lenin-ek Errusiar Iraultzaren izaera sozialistari buruz Finlandiako geltokian emandako hitzaldia bonba bat bezala lehertu zen. Lehen egunetik, polemika piztu zen haren eta “iraultza demokratikoa hobetzearen” aldekoen artean. Apirileko erakustaldi armatuak, non “Behera Gobernu probisionala!” kontsignak durundi egin zuen, gatazka zorrotz

baterako aukera emango zuen. Eskuin-hegaleko ordezkari batzuei Lenin-i blankismoa leporatzeko aitzakia eman zien. (...)”

Egiatan Lenin-ek eztabaida hauek exageratzen zituzten mentxebikeetaz trufa egin zuen eta boterea herriaren gehiengoaren babesa izan gabe hartzeko saiakerak kondenatu zituen. Gainera Lenin izan zen EBaren kontsignen aurka lema hori oihukatu zutenak blankismoz akusatu zituenak, eta ez alderantziz.

“(...) Ez zaitezte engainatzen utzi kapitalistekin, defendatzaileekin eta “aldekoekin” “konprometitzen” diren burgesia ttipikoengatik, ezta presaka ibiltzera eta herriaren gehiengo sendo elkartuta egon baino lehen “behera Gobernu probisional!” oihu egitera jotzen duten gizabanakoengatik ere. Krisia ezin da gainditu gizabanakoek gizabanakoen aurka eragindako bortizkeriarekin, pertsona armatuen talde txikien tokiko ekintzarekin, “boterea hartzeko”, Gobernu probisional “atxilotzeko” eta abarreko saiakera blankistekin.”

Krisiaren irakaspenak (1917) – Lenin

Trotsky-ren pozoindutako dardo gehienak, halere, Zinoviev eta Kamenev-en aurka zuzentzen ziren. Hauek fase demokratiko burgesa oraindik guztiz bete ez zela zioten eta ondorioz matxinada armatua gaitzetsi zuten (bakarrik geratu ziren), EBaren erabakiaren aurkako gutun bat publiko egiteraino (Lenin Alderditik haien kanporaketa eskatzera iritsi zen). Horregatik Trotsky-k Alderdiaren “eskuin-hegala” (Alderdiaren baitako eztabaidak zirenean hau batuta mantendu zelarik) eta “sozialdemokrata” deitzen die. Eztabaida hauetaz mintzatzean Trotsky-k Alderdi boltxebikeari “frakzio boltxebikea” deitzen dio, oraindik berak, likidatzaileek eta kanporatutako beste frakzioek alderdi bera osatuko balute bezala.

Bere manipulazioa maila surrealistara iristen da Zinoviev eta Kamenev-en ‘Oraingo egoeraren inguruan’ gutunaz mintzatzerakoan hauen argudiaketa Brest-Litovskeko Itunera eraman zuela dionean. Ezin duenez ezkutatu Lenin honen alde egin zuela bere kokapenaren aurka (“ez bakea ezta gerra ere!”), hau lausengatzen saiatzen da irakurlea nahasteko helburuaz eta Lenin “kapitulatzaile” deitzen duela ezkutatzeko:

“Hemen Brest-Litovskeko bakea sinatzearen alde egin zen arrazoibide mota ikus dezakegu. Kasu honetan, ordea, arrazoiketa boterea hartzearen aurkakoa da. Bistakoa da ‘Oraingo egoeraren inguruan’ gutunean azaldu zen kokapenak askoz errazagoa egin zuela, gutunean adierazitako iritzien defendatzaileentzat, Brest-Litovskeko bakea onartzea. Hemen esan behar genuen guztia beste nonbait esan duguna da. Ez da Brest-Litovskeko aldi baterako kapitulazioa, era isolatuan, Lenin-en jeinu politikoa markatzen duena, baizik eta soilik Urria Brest-Litovskekinekin batera hartzen bada. Hori ez da inoiz ahaztu behar. (...)”

Matxinada armatuaren egunari buruzko tira-birei “auzi soilik teknikoa” deitzen die, eztabaida Lenin eta zuzendaritza boltxebikearen artean izan balitz bezala, bera zenean Sobieten II. Biltzarrea baino lehenago egitearen aurka zegoena, eta data publikoa egin zuena hau iragartzeko orduan. EBak ez zuen Trotsky matxinada zuzentzeko aukeratu, beste gauzen artean, Alderdira iritsi berri zelako.

Halere, matxinadaren data “hiru laurdenetan” jada ezarrita zutela dio, bi aste lehenago Petrogradeko Sobietean Batzorde Militar Iraultzailea sortu zutenean. Baina Lenin-ek ez zuen “honen transzendentzia hauteman” ezkutatuta zegoelako. Zertarako behar zen hainbeste eztabaida orduan? Gainera iraultza “isila” eta “legala” izan omen zen...

“Boterea hartzea Sobieten II. Biltzarrearen deialdiaren unearekin gutxi gorabehera zehazki batera gertatzeko abagunea aprobeixatu genuen, soilik bere hiru laurdenetan, bere bederatzi hamarrenetan ez bazen, jada burututako gertaera zelako matxinada armatu “isila”, ia “legezkoa”, Petrograden gutxienez. Matxinada hori “legezkoa” zen, botereen bikoiztasunaren baldintza “normaletan” sortu zenaren zentzuan. (...)”

Erraza da, Lenin-ek zioen eran, iraultzaile izatea iraultzak aurrera egiten duenean, sozial-iraultzaile batzuk egin bezala adibidez (gogoratu Trotski Urriko iraultza baino 3 hilabete lehenago igaro zela boltxebikeetara), baina ez hainbeste atzera egin behar denean, erreakzio garaian printzipioak defendatu behar direnean, erretreta era antolatuan egin behar denean eta ez izu-ikaran erori (berak etengabe egiten zuena). Trotski-ri ahaztu egiten zaio Alderdi boltxebikearen antolakuntza-lana Urriko iraultzarako aurrebaldintzetako bat ere zela, denak iraultzako egunetan bakarrik garrantzia izango balu bezala, antolakuntza forma hauek “igeri egiteko metodoekin” alderatuz.

“Otsailetik urrira bitartean, masen artean agitazio- eta antolakuntza-lan luze bat egitean, alderdiak azken azterketa bat egin zuen, bere armen azken hautaketa bat, gudu erabakigarriaren aurretik. Urrian eta ondoren arma horien garrantzia egiaztatu zen tamaina handiko operazio batean. Orain, oro har, iraultzari eta, bereziki, Errusiako Iraultzari buruzko ikuspuntu ezberdinak balioesteaz arduratzea, 1917ko esperientzia alde batera utzita, eskolastika antzu baten aurrean amore ematea litzateke, politikaren azterketa marxista bati ekin beharrean. Igeriketa metodo ezberdinen abantailak, igerilariak aplikatzen dituzten ibaiari begiratzeari temati uko eginez, eztabaidatuko lituzketen banakoen antzera jokatzeko litzateke. Ikuspuntu iraultzaileen froga hoberik ez dago iraultzan horiek aplikatzea baino, igeriketa metodoa igerilariak bere burua uretara botatzen duenean hobeto egiaztatzen den bezala.”

Ekonomismoaren eta mentxebismoaren aurkako borroka, 1905eko iraultza saiakera, likidatzaileak eta beste frakzioak Alderditik kanporatzea, Abuztuko Blokeari aurre egitea, Zimmerwald-eko ezkerra eta III. Internazionalaren sorkuntza, gerrate inperialistari gerra iraultzailea kontrajartzea... guzti hori da Alderdi boltxebikea iraultza egiteko prestatu zuen antolakuntza-lana, honen izate osoan zehar Trotski boikoteatzen ibili zena eta “ahaztu” egiten duena. Baina Trotski-k ez du guzti honetatik inolako “irakaspenik” ateratzen.

Trotski-k bere “urriko irakaspenak” atzerriko burkideei ere zuzentzen die eta Komintern-ari kritika egiten dio (orduan Zinoviev zen lehendakaria), Bulgariako eta batez ere Germaniako iraultza saiakeren porrotaren kontakizun guztiz faltsutua aurkeztuz. Honi buruz hurrengo dio:

“(...) Han era klasikoan erakutsi dugu, iazko bigarren zatian, zein posible den egoera iraultzaile guztiz ezohiko eta izaera unibertsaiki historiko bat ihes egiten uztea. (...)”

Errusiako 1917ko iraultzarekin analogia eginez porrotaren errua zuzendaritzari egozten dio, nahiz eta orduan ez zuen ezer esan buruzagiak aldatzeari buruz. Baina 1924ko urtarrilean, Germaniako Alderdi Komunistaren zuzendaritzako ordezkari batzuekin Komintern-aren zuzendaritza-batzordeak egindako bilera batean, Radek eta Piatakov-ekin batera aurkeztutako zirriborroan bere iritzia bestelakoa zen:

“(..) Alderdiak urrian matxinada aldarrikatu izan balu, Berlineko burkideek proposatu zuten bezala, orain ahuspez egongo litzateke lepoa hautsita. Alderdiak akats larriak egin zituen erretiratzean, eta akats horiek gure egungo kritikaren xede dira. Baina erretiratzea, berez, egoera objektiboari dagokio eta Exekutiboak onartzen du.”

Bere oportunistoa agerian berriro! Finlandiako iraultzaren porrota ere aipatzen du, berriz ere zuzendaritza “sozialdemokratan” ipiniz fokua, preseski Brest-Litovkeko Ituna sinatzeko bere ukoa izan zenean germaniar inperialismoari honetara tropak bidaltzea ahalbidetu zionak.

“(..) Zer esan nahi du alderdi komunistak boltxebizatzea? Horiek heztea esan nahi du, eta haien baitan talde agintari bat hautatzea, haien “Urriaren” unea iristean kikildu ez daitezten. Hau da Hegel osoa, liburuen jakituria eta filosofia ororen esanahia..”

Trotsky-k “Urritik ikastea” proposatzen du, baina berak plazaratutako azterketak ez du ez une historikoa, ez nazioarteko egoera, ez klaseen arteko indar-harremanak, ezta masa langileen eginkizuna ere kontuan hartzen. Aztertzen duen gauza bakarra zuzendaritzaren joerak edo buruzagiek hartutako erabakiak dira, baina ez Alderdia osotasun, antolakuntza kolektibo gisa, bere ikuspegi “administratiboari” leial. Hau Alderdi Komunisten boltxebizazioa baino hauen “desboltxebizazioaren” antza gehiago dauka...

“Alderdi Urrian aztertu behar dugu. Trotsky-k asko esaten du Alderdiari buruz, baina berarentzat Alderdia gidarien, buruzagien, zuzendaritza da. Baina Urria benetan ikasi nahi dutenek, Alderdia Urrian izan zen bezala ikasi behar dute. Alderdia organismo bizi bat zen, zeinetan EBa (“Zuzendaritza”) ez zegoen Alderditik isolatuta, zeinetan Alderdiko antolakunde baxuenetako kideak egunero harremanetan zeuden EBko burkideekin. Sverdlov eta Stalin burkideek ondo baino hobeto zekiten Petrogradeko barruti bakoitzean, eskualde bakoitzean eta armadan gertatzen zena. Eta Lenin-ek ere bazekien guzti hau, legez kanpo bizi bazen ere. Ondo informatuta mantendu zuten eta antolakundearen bizitzan gertatutako guztiari buruzko gutunak jaso zituen. Eta Lenin-ek entzuten ez ezik, lerro artean oso ondo irakurtzen ere bazekien. Garaipena lortu ahal izan zen, hain zuzen ere, EBaren eta antolakuntza kolektiboaren artean gertuko harremana egon zelako.”

Urriko irakaspenak (1924) – Krupskai

Amaieran, berak AEBtan ‘Novi Mir’ aldizkarian idatzitako artikuluetan Lenin-en Apirileko Tesiak nolabait “aurreikusi” zituela iradokitzen du (Lentsner, Trotsky-ren lanen erredaktoreak, “guztian aurreratu zirela” zioen), egiatan Lenin-ek ‘Urrutiko gutunetan’ kontsigna trotskisten aurka egin zuenean. Dirudenez Lenin-ek ezin izan zuen boltxebikeen ildoak “aldarazi”, zeina gabe ezin izango zuten Urriko iraultza aurrera eraman, Trotsky-ren ildoak “bere” egin arte...

“(...) Iraultzaren lehen etapa hau eta bere perspektibak Estatu Batuetan idatzitako artikuluetan azaltzen dira. Nire ustez, funtsezko izaera duen guztian, artikulua guztiz bat datoz Lenin-ek bere ‘Urrutiko gutunetan’ aurkeztu zuen iraultzaren azterketarekin.”

Historiaren desitxuraketan sakonduz Petrogradera iritsi zenetik boltxebikeekin ados egon zela dio Lenin “eskuineko boltxebikeen” “proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoaren aldarriaren aurka” jarri zelako eta Alderdian sartzera bere ukatzea boltxebike eta Mezhraionka-ren “arteko bat-egitea” “azkartzeko” izan zela (hau da “boltxebikeak desboltxebizatu zirela” zioena...). Guzti hau “Lenin-en onespenez” aurrera eramanez zuela sinestarazi nahi digu.

Hauetako zurrumurru asko Trotski-k John Reed-en ‘Mundua astindu zuten 10 egun’ liburutik hartzen ditu, iraultzaren izpiritua ondo antzematen badu ere, kondaira eta zehaztasun falta nabariak dituenak. Laburbilduz, esan daiteke Trotski-ren “urriko irakaspen” hauek erabateko porrota izan zirela.

Trotski-k gutuna bidali zion EBari 1925ko urtarrilean egin beharreko bileraren inguruan, bere ustezko eritasuna zela eta berriro honetara joango ez zela esanez eta ‘Urriko iraultzaren irakaspenak’ lanean esandakoan berretsiz (honetan “iraultza etengabearen” teoria “erabat iraganekoa” zela esan zuen ere). Bilera honetan EBak Trotski-ren jokabidea aztertu, honen ildoak kritikatu eta bere etengabeko diziplinaren urraketan ondorioz Batzorde Militar Iraultzaitik kargugabetu ostean, bere jarraitzea EBan kolokan zegoela ohartarazi zion.

Lenin-en “ondorengotza”

1922. urteko maiatzean Lenin-ek lehen garun-infartoa pairatu zuen, politikatik aldentu zuena, eta abenduan jasandako bigarrenak guztiz kanpo utzi zuen. Nahiz eta medikuek, estresa ekiditeko, politikarekin zerikusi zuen oro debekatu zioten, Krupskaiak bere emazteak hainbat gauza komunikatzen zizkion. Honek Stalin-ekin liskarrak eragin zituen, Lenin-en osasunaren arduraduna baitzen. 1923ko martxoan beste infarto bat izan zuen eta bere heriotzera arte ezin izan zen komunikatu.

Aldi honetan, nahiz eta oso txarto egon, gerora bere “testamentua” gisa ezagutu ziren idatzoharrak izkiriatu zituen, Alderdiko XIII. Biltzarrerara zuzendutakoak. Abenduan EBa hedatzea proposatzen du eta jarraian hainbat kideren kritika plazaratzen du:

“Egonkortasunaz, etorkizunean eszizioaren aurkako berme gisa ari naiz, eta hemen izaera soilik pertsonaleko zenbait gogoeta azaltzeko asmoa dut. Nire ustez, egonkortasunaren arazoan funtsezkoena, ikuspuntu honetatik, Stalin eta Trotski bezalako EBko kideak dira. Haien arteko harremanek, nire ikuspegiaren arabera, saihesten eszizio horren arriskuaren erdia baino gehiago dute, eta helburu horretarako balio behar du, besteak beste, nire irizpidearen arabera, EBa 50 edo 100 kideraino zabaltzeak.

Stalin burkideak, Idazkari Nagusi izatera iritsita, botere izugarria bildu du bere eskuetan, eta ez nago ziur beti behar adina zehurtiaz erabiltzen jakingo duen. Bestalde, Trotski burkidea, komunikazio-bideen Herri-Komisariotzaren arazoa dela eta EBaren aurkako bere borroka erakusten duenez, ez da bere gaitasun handiagatik bakarrik bereizten. Pertsonalki, agian egungo EBko gizonik trebeena da, baina gehiegi harrotuta dago eta gehiegi erakartzen du gauzen alde administratibo hutsak.”

Hauetan Trotski harropuz eta burokrata deitzen du eta ondoren bere “boltxebismo eza” gogorarazten du:

“Ez dut jarraituko EBko beste kideak ezaugarri pertsonalengatik ezaugarritzen. Gogoratuko dut Zinoviev-ek eta Kamenev-ek urrian izan zuten pasartea ez dela, noski, kasualitate hutsa, eta horren errua pertsonalki Trotski-ri bere boltxebismo ezaren errua bezain gutxi leporatu ahal zaiela.”

Kritika hauek idatzi eta gero Stalin-ek eztabaida bat izan zuen Krupskaiarekin, zeinetan hitz gogorrez iraindu omen zuen. Horregatik Lenin-ek, nabarmenki minduta, ohar bat gehitu zuen urtarrilean. Ohar honetan preseski Trotski ezin dela haren ordezkoa izan esaten du Lenin-ek:

“Stalin zakarregia da, eta akats hau, guztiz onargarria gure ingurunean eta komunisten arteko harremanetan, onartezina da Idazkari Nagusi karguan. Horregatik burkideei proposatzen diet pentsa dezatela Stalin beste postu batera pasatzeko modua, eta kargu honetarako beste bat izendatzeko, beste alde guztietan Stalin burkidearengandik bereizten dena abantaila bakar batengatik, hau da, jasanberagoa, leialagoa, zuzenagoa eta burkideekiko arretatsuagoa, gutxiago apetatsua, eta abar. izatea. Baldintza hau txikieria hutsala iruditu lezake. Baina nik uste dut, eszizioa saihestearen ikuspuntutik eta Stalin eta Trotski-ren arteko harremanei buruz lehen idatzi

dudanaren ikuspuntutik, ez dela txikieria bat, edo garrantzi erabakigarria har dezakeen txikieria bat dela.”

Aurrerago ‘Gosplan’-ari (planifikazio ekonomikorako erakundea) buruzko zuzentarauez mintzo da, honen buruzagitzarako (Trotski-k behin baino gehiagotan eskatu zuena eta Alderdiak behin eta berriro ukatu ziona) Trotski-renak ez ziren ezaugarriak zituen norbait gomendatuz.

“Ideia hori Trotski burkideak iradoki zuen, uste dut, aspaldi. Ni kontra agertu nintzen, uste bainuen kasu horretan funtsezko bat-etortze falta gertatuko zela gure legegintza-erakundeen sisteman. Baina arazoaren azterketa arretatsu batek, mamian, hemen ideia osasuntsu bat dagoela ondorioztatzera narama: Gosplana gure legegintza-erakundeetatik kanpo dago pixka bat, nahiz eta, pertsona eskudun, aditu, zientzia- eta teknika-gizaki talde gisa, funtsean, aburu zuzenak emateko baldintzarik onenetan dagoen. (...) Uste dut Gosplanaren buruan zentzu tekniko edo agronomikoan prestakuntza zientifikoa duen pertsona bat egon behar dela, esperientzia luzea duenak, dozena asko urtekoa, lan praktikokoa, bai teknikan, bai agronomian. Uste dut pertsona horrek gaitasun administratiboak baino esperientzia zabala eta jendea erakartzeko gaitasun handia izan behar duela.”

Amaieran ESSBko sorkuntza prozesuan nazio-auziaren inguruan egondako arazo batzuez mintzo zen, nazio zapaldu eta zapaltzailearen arteko desberdintasunak nabarmenduz eta hainbat buruzagi boltxebike kritikatu (Dzerzhinski, Stalin eta Ordzhonikidze).

1923ko urtarrilean egindako EAK(b)aren XII. Biltzarreari ekarpenean, ordea, Lenin-ek Stalin Behargin eta Nekazarien Ikuskaritzako Herri-Komisariotzaren lanpostuan jarraitzea eta honen eskumenak handitzea proposatu zuen, Erdiguneko Batzordeko kideak gehitzea (40 arte), Erdiguneko Kontrolerako Batzordeak Politburoaren bileretan presente egotea baita Politburoak EBari aldizkako txostenak bidaltzea ere. Trotski neurri hauen aurka agertu zen “EBaren lana kaltetuko” zutelakoan eta Alderdiko ordezkari batzorde bat sortzea proposatu zuen honetarako, Alderdiak baztertu zuena “erdigune bikoitza” sortzea izango litzatekeelako.

“Nire ustez, Behargin eta Nekazarien Ikuskaritzako Herri-Komisariotzak, bai eta elkargokide guztiak ere, mantendu ahal da (eta behar da) eta Behargin eta Nekazarien Ikuskaritza osoaren lana bideratu, Erdiguneko Kontrolerako Batzordeko kide guztien lana barne, “bere agindupean” jarriko dena. (...)”

Nola berrantolatu behar dugu behargin eta nekazarien ikuskaritza (1923) – Lenin

1924ko maiatzean egindako EAK(b)aren XIII. Biltzarrean Lenin-en idatzoharrak irakurri ziren baina EBak, guztien adostasunarekin, hauek publiko ez egitea erabaki zuen (Lenin-ek hala egitea ez baitzuen eskatu) eta hauen edukia soilik Alderdiaren ordezkarietzi jakinarazi zitzaizkien. EBaren hurrengo bileran Stalin-ek bere dimisioa aurkeztu zuen baina honek (Trotski barne) ez zuen onartu eta Idazkari Nagusiko postuan jarraitu zuen. Urte baten buruan berriro eskatu zuen, emaitza berdinarekin.

“Bai, burkideok, ni zakarra naiz Alderdia era basati eta maltzurrean suntsitzen eta zatitzen dutenekin. Ez dut ezkututzen ezta ezkutatu ere. Izan liteke nolabaiteko leuntasuna behar izatea

eszisionistekin. Baina nik ez dut horretarako balio. (...) Esanguratsua da “testamentuan” Stalin-en akatsen inguruko hitz bat ere, aipamen bat bera ere ez egotea. Stalin-en laztasunaz bakarrik hitz egiten da. Baina zakarkeria ez da eta ezin da izan Stalin-en kokapen edo ildo politikoaren akats bat.”

Oposizio trotskista, lehen eta orain (1927) – Stalin

1925ko urtarrilean, Trotski-k ‘Urriko iraultzaren irakaspenak’ argitaratu eta hilabete eskas batzuk ondoren, Eastman kazetariak (Trotski-ren lanen itzultzaile zena) ‘Lenin zendu zenetik’ liburua argitaratu zuen. Eastman ESSBra joan zen eta Trotski eta bere aldekoekin egon eta gero (XIII. Biltzarrean ere egon zen) AEBtara itzuli zen bere liburua argitaratzeko. Honetan gertakarien kontakizun guztiz faltsutu bat aurkezten du, Trotski-ren pertsonalitatearen gurtza lotsagabea egiten du eta hau Lenin-en “ondorengo” gisa aurkezten du. Gainera Lenin-en idatzoharrak (manipulatuta) publiko egin zituen bere “testamentu” gisa aurkeztuz. 1926an ‘New York Times’ burgesia inperialistaren egunkariari “Lenin-en testamentuaren” kopia bat igorri zion.

Ekainean Stalin-ek EAK(b)aren EBari gutun bat bidali zion Eastman-en liburuko gezurrak salatuz (“testamentua ez zela irakurri Biltzarrean”, “Lenin-en artikulua batzuk ezabatu zirela”, “Trotski-ren liburuak debekatuta zeudela”, “Lenin-ek Trotski-ri bere lana eskaini ziola” eta abar. eta abar., gerora Trotski-ren propagandaren oinarri izango zirenak) eta Trotski-ri hau gaitzesteko eskatuz:

“Eastman-en profil politiko orokorra, oraindik bere burua komunista deitzen duena, nekez bereizten da EAKren eta gobernu sobietikoaren beste etsai batzuen profiletik. Bere liburuan, EAKren Biltzarrea alajaina “gupidagabetzat” eta “burokrazia bihozgabetzat” hartzen du, Erdiguneko Batzordea “gezurti-” eta “usurpatzaile-talde” bat bezala, promozio leninista (zeinetan 200,000 proletariok alderdira batu ziren) Erdiguneko Batzordearen maniobra burokratiko bat bezala oposizioaren aurka, eta Armada Gorria “mila zatitan hautsitako” eta “gaitasun defentsiborik gabeko” multzo bat bezala. Gertaera hauek argi eta garbi adierazten digute errusiar proletalgoaren eta bere gobernuaren aurkako erasoetan, proletalgoaren Alderdiaren eta bere Erdiguneko Batzordearen aurkako erasoetan, Eastman-ek kontrairaultzaile arruntak eta Guardia Txuriaren hitzontzi ezagunak gainditu dituela. Inork, kontrairaultzaren hitzontziak izan ezik, ez du inoiz hitz egin EAKaz eta gobernu sobietikoaz, Trotski burkidearen “lagun” den Eastman “komunistak” erabiltzeko ausardia duen hizkuntzan. Zalantzarik gabe, Estatu Batuetako Alderdi Komunistak eta Hirugarren Internazionalak behar bezala ebaluatuko dituzte Eastman jaunaren aparteko balentriak.”

Trotski-ren laguna den Eastman “komunistaren” desitxuratze eta faltsutasunei buruz “Since Lenin Died” liburuan (1925) – Stalin

Trotski-k bere burua larri ikusi zuen hain ageriko gezurrak justifikatzeko eta honetaz urrutiratu zen (nahiz eta 1928ko irailan hau “egitera behartu zutela” eta “bere ildoaren parte” zela adierazi) irailan ‘Bolshevik’ aldizkariaren 16. alean argitaratutako gutunean:

“Eastman-ek hainbat lekutan adierazi du Erdiguneko Batzordeak garrantzi handiko dokumentu ugari “ezkutatu” dizkiola alderdiari, Lenin-ek bere bizitzako azken aldian idatzitakoak.

(Dokumentu horiek auzi nazionalari buruzko gutunak dira, “Testamentu” ospetsua, eta abar.) Hau gure alderdiko Erdiguneko Batzordearen aurkako kalumnia hutsa da. Eastman-en hitzek Lenin-ek gutun hauek, kontsulta-izaerakoak direnak eta alderdiaren barne antolaketaz dihardutenak, argitaratzeko asmoz idatzi zituela aditzera ematen dute. Hori ez dator bat inondik inora egitateekin.

Gaixorik zegoela, Lenin-ek behin eta berriz bidali zizkien gutunak eta proposamenak alderdiko atal eta biltzarre nagusiei. Behin betiko adierazi behar da gutun eta iradokizun horiek guztiak halabeharrez bere helmugara entregatu zirela, eta horiek guztiak XII. eta XIII. biltzarretako ordezkariari jakinarazi zitzaizkiela, eta halabeharrez izan dutela eragina alderdiaren erabakietan.

Gutun hauek guztiak argitaratu ez badira, egileak argitaratzeko asmorik ez zuelako da. Lenin burkideak ez du inolako “testamenturik” utzi; alderdiarekin dituen harremanen izaerak eta alderdiaren beraren izaerak “Testamentu” horren aukera baztertzen dute. Prentsa burges eta mentxebikeak, oro har, “Testamentu” izenpean Lenin burkidearen gutunetako bat ulertzen du (hain aldatua dagoena, non ia ezagutezina den), non alderdiari antolakuntza-aholku batzuk ematen dizkion. Alderdiaren hamahirugarren biltzarreak atentziorik handiena eskaini zion gutun honi eta gainerako gutunei, eta zegokion ondorioak atera zituen. Ezkutuko edo mutilatutako “Testamentu” bati buruzko elkarrizketa oro gezur mesprezagarri bat besterik ez da, Lenin burkidearen benetako borondatearen eta hark sortutako alderdiaren interesen aurka zuzendua.

Eastman-en baieztapena, Erdiguneko Batzordeak Lenin burkideak Behargin eta Nekazarien Ikuskaritzari buruz idatzitako artikulua ezkutatzeko (hau da, ez argitaratzeko) irrikaz zegoela, gezurrezkoa da. Gai honi buruz Erdiguneko Batzordearen baitan sortzen diren iritzi-ezberdintasunek – kasu honetan “iritzi-ezberdintasunak” aipatzea posible bada – bigarren mailako esanahia baino ez zuten, eta Lenin-en artikulua argitaratzeak Erdiguneko Batzordearen adierazpen batekin, eszizio baten beldur izateko arrazoirik ez dagoela adieraziz, batera joan behar zen ala ez esan nahi zuten.

Baina gai honi buruz ere aho bateko erabaki batera iritsi zen bilera berean. Bileran izan ziren Erdiguneko Batzordeko Zuzendaritza Politikoetako eta Antolakuntzako kide guztiek gutun bat sinatu zuten, alderdiko antolakundeei zuzendua. Gutun horretan, besteak beste, honako pasarte hau jaso zen: “Gutun informatibo huts honetan, bere artikuluan Lenin burkideak bere garaian historikoki posible diren arriskuei kritikan sartu gabe, Politika eta Antolakuntza Bulegoetako kideek beharrezkotzat jotzen dute, gaizki-ulertu oro ekiditeko, aho batez deklaratzeko Erdiguneko Batzordearen barne-jardueran ez dagoela ezer hausturaren arriskuaren beldur izateko aukera ematen duenik.”

Dokumentu honi ez zaio bakarrik, beste sinadurekin batera, nire sinadura eransten, testua bera nik elaboratu nuen (1923ko urtarrilaren 27an).”

1927ko abenduan egindako Sobiet-Batasuneko Alderdi Komunista (boltxebike)aren XV. Biltzarrean Lenin-en “testamentua” argitaratua izan zen, trotskisten propaganda iruzurtiarentzat kolpe latza izan zena. Hala ere, Trotski-k gezur hauek barreiatzen jarraitu zuen.

“Trotski-ren frakzioaren” kanporaketa (berriro)

1925ko abenduan Alderdi boltxebikearen XIV. Biltzarrea egin zen, zeinetan ESSBko edo Sobiet-Batasuneko Alderdi Komunista (boltxebike) izendapena hartu zuen. Honetan Sozialismoa bermatzeko laborantza-herrialde bat izatetik industrializatu bat izatera igarotzea erabaki zen. Trotski-ren arabera, ordea, Mendebaldean iraultza ez emateak sozialismoaren eraikuntza oztopatzen zuen, nekazal “termidore”(kontrairaultza) batera eramanez. Ondorioz industria (Estatu-kapitalismo forman) bizkorrago garatu behar zen Europan iraultza proletarioa babesteko. Bere erasoak, halere, Bukharin-en aurkakoak ziren gehienbat. Honela mintzo zen ‘Leningradeko oposizioari buruz’ artikuluan:

“(...) Ziurta daiteke prozesu horrek oinarri oso zabala eta emankorra sortu duela nekazari-desbideratze bat garatzeko. Zalantzarik gabe, herrialdeko bizitza publiko osoak, munduko iraultzaren atzerapena eta industria-garapenaren geldotasuna kontuan hartuta, debideratze horren baldintza materialak sortu ditu. Honela, mugimendu ‘narodniki’ sobietiko baten elementuek forma hartzen dute, batez ere alderdi eta Gazteria Komunistaren belaunaldi gaztean, Oposizioaren aurkako borroka baten banderapean. Oinarrizko mugimendu horrek adierazpen teoriko ofizial bat baino ez du espero. Bukharin-en eskolak, lotsati eta gogo handirik gabe bada ere, hau eman dio. (...) Nekazarien gutxiespenari buruzko oihu etengabeei dagokienez, “Landa-eremurantz biratzeko” eskakizuna, ekonomia nazional isolatuaren eta sozialismoaren eraikuntza isolatuaren ideia (1923-1924tik), Oposizioak aurreikusi eta ohartarazi egin du nekazari motako Termidore batean erortzeko oinarriak jarri eta erraztu zezakeen halako orientazioaren aurka alderdian. (...)”

1926an Zinoviev Trotski-ren alde igaro zen, berriro ere frakzio bat osatuz, ‘oposizio bateratua’ deitutakoa. Hauek ‘13en adierazpena’ atera zuten, 46en adierazpenaren ildo berean kokatzen zena eta NEParen amaiera eskatzen zuenak industrializazio basatiago bat aurrera eramateko. Horregatik “super-industrializatzaile” ezizena irabazi zuten. Eztabaida hauetan Dzerzhinski bihotzekoak jota hil zen, orduan GPUaren (ESSBko zerbitzu sekretuak) buru zena. Frakzio honek antolakunde klandestino bat sortu zuen haien jardunbide ilegala aurrera eramateko, eszisionismora eta “alderdi berri baten” sorkuntzara zeramana.

Urriaren egindako Alderdiaren XV. Biltzarran Trotski-k hitzaldi bat eman zuen (behin baino gehiagotan eskatu eta luzatzea erabaki zena), zeinetan bere ohiko faltsuztapen historikoetaz aparte (Brest-Litovsk auziaren ondoren Germaniako iraultza burgesak Errepublika sobietikoaren uzkailetezia galarazi zuela, adibidez), Lenin-en hainbat zita erabat desitxuratuta aurkeztu zituen, berriro “iraultza etengabearen” teoria justifikatzearen ildotik, nekazalgoaren auzian hau bere alde zegoela eta sozialismoaren eraikuntza “herrialde bakar batean” gaitzesten zuela aditzera emateko. Trotski-ren arabera ESSBko ekoizpen-indarrak ez zeuden nahikoa garatuta Mundu kapitalistari aurre egiteko eta proletalگو sobietikoak ezin zuen, nekazariekin aliantzak mantenduz, industrializazioa bere indar propioz aurrera eraman. Ondorioz, bere betiko ikuspegi mentxebikeari leial, kapitalismoa hainbat hamarkadetak mantendu behar zen Mendebalde garatuan iraultza sozialista eman arte. Biltzar honetan frakzio honek “desbideratze sozialdemokrata” izendapena jaso zuen.

“Zenbat denbora beharko dugu sozialismoaren ezarpenerako? Lenin-ek uste zuen hogei urtean ez genuela sozialismoa ezarriko, gure nekazal herrialdea atzeratuegia delako. Eta ezta hogeita hamar urtetan ere. Har dezagun hogeita hamar eta berrogeita hamar urte bitartean, gutxienez. (...) Gaur egun oraindik ere tinko eusten diot nire usteari, gure herrialdean sozialismoaren garaipena soilik europar proletalgoaren iraultza garailearekin batera lor daitekeelako. (...) Behargin germaniarra boterea hartzeko prestatzen ari den bezala, gu etorkizuneko sozialismoa prestatzen ari gara, eta erregistratu dezakegun arrakasta bakoitzak erraztu egiten du germaniar proletalgoaren borroka, bai eta haren borroka gure aurrerapen sozialista erraztu ere. Hau da gizartearen Estatu sozialista gauzatzeko egiten dugun lanari buruzko benetako nazioarteko ikuspuntu bakarra.”

1927ko udaberrian, Txinako mugimendu iraultzailearen ezbeharrak baliatuz, Trotski-k berak idatzitako ‘83en adierazpena’ argitaratu zuen. Hizkera ezkertiar batez bere etsipen-ildoak ezkutatzeko ahaleginarekin, Alderdiari “kulaka, nepmana eta burokrata indartzea”, sozialismoa herrialde bakar edo multzo batean eraikitzearen “teoria burges tipia” onartzea eta “ale eskuindarrak babestea” aurpegiratzen zion, “burokratizazio” eta “degenerazio” ohiko salaketek gain. Honek sindikatu nagusien (metalurgialariak, papergileak, larruginak, eraikuntza-beharginak...) gaitzespena sortu zuen, beste gauzen artean, haiei “pozoi derrotista arriskutsua” barreiatzea eta kritika asko baina oinarrian lan gutxi egitea aurpegiratzen zietenak.

“Zer da derrotismoa? Estatu “propioaren” porrota laguntzera bideratutako politika, klase-etsaiaren eskuetan dagoena. Derrotismoa ulertzeko eta interpretatzeko beste edozein modu faltsifikatzea izango da. Adibidez, norbaitek esaten badu dogmatiko ezjakin eta eskrupulurik gabeko batzuen ildo politikoa zabor gisa erraztatu behar dela, hain zuzen ere behargin-Estatuaren garaipenaren izenean, horregatik ez da inola ere “derrotista” bihurtzen. Aitzitik, baldintza zehatz horietan, defentsismo iraultzailearen benetako adierazlea da: zabor ideologikoak ez du garaipena ematen!”

Britaniar inperialismoarekin harreman diplomatikoak hautsi ziren unean, Trotski-k Erdiguneko Kontrolerako Batzordera zuzendutako gutun batean ‘Clemenceau-ren tesia’ mahaigaineratu zuen, zeinaren arabera ESSBren aurkako gerra kasuan zilegia izango litzateke Alderdi eta Estatu zuzendaritza uzkaileak eta oposizioak boterea hartzea, hots, Estatu-kolpe bat ematea. Stalin-ek Komintern-aren VIII. Osoko Bilkuran esan bezala, botere sobietikoaren aurka “fronte bakan mota bat eratu da, Chamberlain-etik Trotski-ra doana”.

“Irrigarri samarra da, jakina, taldetxo kixotesko horrek, lau hilabetetan nekez mila boto bildu dituenak, milioi bat militanteko alderdi bat mehatxatzea, esanez: “Erraztatuko zaitut”. Epai dezakezue Trotski-ren taldearen egoera tamalgarria, baldin eta, lau hilabeteko bihozmin eta nekeen ondoren, mila sinadura inguru baino gehiago biltzea lortu ez badu. Nire ustez, oposizioko edozein taldek, lan egiten jakingo balu, milaka sinadura bildu ahal izango litzuke. Berriz diot: irrigarria da taldetxo honek, armada baino buruzagi gehiago dituenak (Barreak), eta lau hilabete osorik lan egin ondoren mila sinadura inguru baino bildu ez dituenak, milioi bat militanteko alderdi bati mehatxu egitea, esanez: “Erraztuko zaitut”. (Barreak)

(...) Ez, Trotski dilektisimoa, hobe zenuke “zaborra erraztatzeaz” hitz egingo ez bazenu. Hobe litzateke horretaz ez hitz egitea, hitz kutsagarriak baitira. Gehiengoa zaborra garbitzeko zure metodoaz “kutsatzen” bada, ez dakit hori ona izango den oposizioarentzat. Eta ez dago baztertuta EBaren gehiengoak metodo horretaz “kutsatu” ahal izatea eta norbait “erraztatzea”.

ESSBko AK(b)aren Erdiguneko Batzordearen eta Erdiguneko Kontrolerako Batzordearen Osoko Bilkura bateratua (1927) – Stalin

Txinako auziaren inguruan, ordura arte ESSBren aliatu zen Txiang Kai-shek jeneralak berak kontrolatutako lurraldean komunisten sarraskiak burutu ostean, Trotski-k beldurrak hartuta Txinako Alderdi Komunista berehala ‘Kuomintang’-etik (nazio-askapenerako mugimendua) ateratzea eta sobietak sortzea (Germaniako iraultzan sobietak sortzearen aurka agertu ostean eta bere “urriko irakaspenetan” hauen “fetitxismoaren” aurka aritu bazen ere) galdegiten zuen. Honela mintzo zen martxoan Alski-ri bidalitako gutunean:

“(...) Beharginen eta nekazarien (eta artisauen eta soldaduen) diputatuen sobiet baten aldeko borrokaren auzia argi eta zehatz-mehatz proposatu beharrean, haiek iraganeko antolakunde baten -Kuomintang- betiketze artifizialean eta, ondorioz, atzerakoian ari dira lanean, Alderdi Komunista antolakunde burges baten diziplinari men egitera behartuz, eta, aldi berean, alderdia garapenaren “bide ez kapitalistei” buruzko esaldiekin kontsolatuz.”

Trotski-k ez du ulertzen Txina bezalako herrialde erdi-koloniar batean, non ageriko iraute feudalei atzerriko inperialismoaren nazio-zapalkuntza gehitzen zen, ezin zela nazio-askapen borroka alboratu eta erakunde demokratiko-burgesen (eta are gutxiago ezker hegalarren) aurkako botere bikoitza sortu, haiek oraindik boterean ere ez zeudenean. Hizkera ultraezkertiar batez bere praxi oportunistak ezkututzen saiatzen da, betiko moduan, iraultzaren faseak nahasiz eta nekazalgoaren papera gutxietsiz.

“Txinako egungo iraultza, beraz, mugimendu iraultzailearen bi uharren bat egitea da: iraute feudalen aurkako mugimendua eta inperialismoaren aurkako mugimendua. Txinako iraultza demokratiko-burgesa iraute feudalen aurkako borrokaren eta inperialismoaren aurkako borrokaren uztarketa da. (...) Trotski-ren (eta, beraz, oposizioaren) akats nagusia honetan datza: Txinako nekazari-iraultza gutxiesten du, ez du iraultza honen izaera demokratiko-burgesa ulertzen, Txinan milioika nekazarik osatutako nekazari-mugimendu baterako premisak ukatzen ditu eta nekazalgoak Txinako iraultzan duen papera gutxiesten du.”

ESSBko AK(b)aren Erdiguneko Batzordearen eta Erdiguneko Kontrolerako Batzordearen Osoko Bilkura bateratua (1927) – Stalin

Trotski-k bere frakzioaren plataforma Alderdian aurkeztu nahi izan zuen, baina EBak, plataformen aurkako X. Biltzarreko akordioetan oinarrituz, hau galarazi zuen. Orduan trotskistek intelektual burges batzuen inprimategi klandestino batera jo zuten, zeinak goardia txurien konplot militar batean sartuta zeuden, eta honen ondorioz GPUak atxilotu zituen. Halere dokumentu hau Alderdikide zein alderdiz kanpoko askori iritsi zitzairen.

Dokumentu honetan Trotski-k bere gorrotoa Stalin-en aurka zuzentzen du batik bat, “Stalin-en taldearen”, “estalinisten” eta hauen “oportunismoaren” aurka, berrikustzailez akusatuz eta “degenerazio burokratikoaren” erruduntzat joz, honetarako Lenin-en “testamentuan” oinarrituz. Alderdiko “erregimen termidorianoa”, oposizioari “jazarpena” eta bestelako gezurrak ere presente daude.

“Oraintsu, gure buruzagiak bide leninista horietatik aldendu dira erabakiorki. Stalin-en taldeak begiak estalita zuzentzen du alderdia. Etsaiaren indarrak ezkutatzuz, nonahi eta edonorentzat garaipen itxura ofiziala sortuz, talde honek ez dio proletarioari inolako perspektibarik eskaintzen, edo, okerragoa dena, ikuspegi faltsua eskaintzen dio. Sigi-sagan mugitzen da, ale etsaietara moldatuz eta haiekin adiskidetzuz. Armada proletarioaren indarrak ahultzen eta nahasten ditu. Pasibotasuna areagotzea, zuzendaritzarekiko mesfidantza eta iraultzaren indarrarekiko konfiantzarik eza eragiten ditu. Metodo leninistak aipatuz, alde batetik bestera jauzi egiteko bere sistema disimulatzen du, alderdiarentzat beti ustekabekoa den eran, ulertzen ez duenak eta bere indarra ahulduta ikusten duenak. Eraitza bakarra etsaiak denbora irabazten duela eta aurrera egiten duela da. Stalin, Bukharin eta Rikov-en maniobra-mota horren adibide “klasikoak” nazioarteko eremuan haien politika txinatarra eta haien politika anglo-errusiar Batzordearekin dira, eta, herrialdearen barruan, kulakekiko duen politika. Arazo horiei guztiei buruz, alderdiak eta behargin-klaseak ez zuten egia, edo horren zati bat, ezagutu harik eta erroraino faltsua den politika baten ondorio latzak pairatu arte.”

Urrian, hurrengo Biltzarrea baino bi hilabete lehenago (estatutuek ezartzen zuten), eztabaida orokorra ireki zen Alderdiaren baitan.

1927ko abenduan, SBAK(b)aren XV. Biltzarrean, EBtik jaurtia izan ondoren, eztabaida guztiak galdu ostean (Alderdiko hauteskundeetan bere plataformak 730 mila kideetik 4 mila ingururen babesa jaso zuen, bozen %1 baino gutxiago) eta Urriko iraultzaren 10. urteurrenean manifestazio propio irrigarriak deitu eta gero (langileek beraiek sakabanatutakoak), Trotski Alderdi boltxebiketikanporatua izan zen, bere bizitza osoa hau borrokatzen eta bere ildo mentxebike-sozialdemokrata sarrarazteko azpilanean ibili ostean.

Munduan zeharreko “iraultza”

1928ko urtarrilean Trotski barne-erbestera, Alma Atara (Kazakhstan), izan zen bidalia. Handik bere jarraitzaileen satorlana eta sabotaia zuzentzen jarraitu zuen bisita eta gutunen bitartez.

Trotski-k, jada Nazioarteko Komunistaren Batzorde Betereazletik kanporatuta egon arren, Komintern-aren VI. Biltzarrerako programa-proiektuari “kritika” bat idatzi eta kutsu “ofiziala” eman nahi izan zion nahasmendua sortzeko asmoz. Hau aurreko Osoko Bilkuran emandako hitzaldien errepikapena izan zen, NKak jada gaitzetsi zituenak trotskismoa ‘likidatzaile’ izendatuz.

Dokumentuaren ideia nagusia da, kapitalismoaren garapen aldakorren “ondorioz”, sozialismoaren eraikuntza herrialde bakar edo multzo batean “ezinezkoa”, “utopikoa” eta “atzerakoa” dela, “ekoizpen-indarrak muga nazionalekin bateraezinak” baitira (Stalin-i buruz dio hau “burokrata handigura baten irudimenaren produktua” dela).

Honetan bere ekonomismo inperialista armairutik ateratzen du eta “Europako Estatu Batuen” (oraingoan “sobietikoak” gainera) kontsigna plazaratzen du berriro, Lenin honen aurka egonik ere zerbait “behin-behinekoa” zela dio eta Lenin-en desitxuratutako zitak aurkezten ditu bere berrikuskeria justifikatzen saiatzeko.

Nahiz eta 1915ean preseski ‘Europako Estatu Batuen kontsignari buruz’ lanean Lenin-ek “sozialismoa herrialde bakar batean” eraikitzeko aukera aurreikusi zuen, Trotski-k dio Lenin “ekoizpen sozialista antolatzeaz” mintzatzerakoan soilik “kapitalistei kendutako lantegiak zuzentzea” esan nahi duela, hots, Estatu-kapitalismoa.

“Estatu proletarioak, etsaiaren erasoak arbuizatzeko eta erasoaldi iraultzailera pasatzeko, alde zuzentzeko bere herrialdean “ekoizpen sozialista” antolatu beharko du, hots, berak zuzendu beharko du kapitalistei kendutako lantegietako lana. Hori da dena.”

Lenin-ek 1923ko ‘Lankidetzari buruz’ lanean ESSBn “gizarte sozialista osoa eraikitzeko beharrezko aurrebaldintzak” zeudela esan arren, Trotski-k hau Lenin-en gaixotasunari egozten dio, “lapsus” bati edo “takigrafia-akats” bati. Baina ez, Trotski-k “benetako” esanahia “azaltzen” digu: ez dago bukatuta eta osagai bat falta du, kultura falta da, eta batez ere teknika falta da.

“Aipuaren testuak, “lankidetzaren soilaren” amaitu gabeko esaldia jasotzen duenak, zalantzarik gabe frogatzen du zuzendu gabeko zirriborro baten aurrean gaudela, eta, horretaz gain, diktatutakoa eta egilearen eskutik idatzi gabekoa. (...) Gaur proletalgora europarra garaile aterako balitz eta bere teknikarekin gu laguntzera etorriko balitz, lankidetzaren kontua, Lenin-ek antolamendu-metodo sozial gisa planteatutakoa, interes pribatua eta kolektibitatearena uztartzen dituenak, bere garrantzia osoa mantenduko luke. (...) ezin dela burgesiarekin aurka arrakastarik lortu ekonomiaren ikuspegitik herrialde bakar batean, are gutxiago herrialde atzeratu batean; gizarte sozialista eraikitzeko zeregina nazioartekoa dela bere esentziagatik.”

Sozialismoaren “benetako antolaketa”, beraz, “herrialde aurreratuenetako proletalgora boterea erdietsi eta gero” hasiko litzateke soilik. Sozialismoaren eraikuntza hau, ordea, ez zen izango nazio bakoitzaren subirautea errespetatuz eta egoera ekonomikoa kontuan hartuz adar guztien arteko

oreka bat bilatzea, baizik eta kapitalismo inperialistak ezarritako nazioarteko lanaren banaketa mantenduz mundu-mailako ekonomia batean integratzea.

“Aztertzen ari garen tesian esan nahi bada benetako eraikuntza sozialistaren garaia ezin izango dela hasi gutxienez hainbat herrialde aurreratutan proletalgoaren garaipenaren ondoren, (...) Bere funtsezko ezaugarrietan bakarrik eratu ahal izango da, kapitalismoaren aurreko bilakaerak sortutako lanaren mundu mailako banaketan oinarrituta. (...) Diktadura proletarioko lehen herrialdeek lortutako garaipen ekonomikoak ez dira neurtuko “sozialismo integralerako” hurbilketa-mailaren arabera, baizik eta diktaduraren egonkortasun politikoaren arabera, etorkizuneko munduko ekonomia sozialistaren elementuak prestatzean lortutako arrakastengatik.”

Lehenik eta behin, ESSB ez zen herrialde bakar bat, Errusia (nahiz eta Trotski-k hala tratatu), baizik eta herrialde multzo bat. Baina Trotski-k ez du esaten sozialismoaren eraikuntza ezinezkoa dela herrialde bakar bat izateagatik, baizik eta “atzeratua” delako, eta honetarako aukera bakarra iraultza “aurreratuetan” ematea dela. Orduan, bere ikuspegi eurozentrikoari jarraikiz, iraultza “internazionala”, “mundutarra” edo dena delakoa iraultza Mendebaldean (Germanian) esan nahiko luke. Adibidez, Mongolian Errepublika Herrikoia sortu zen 1922an, baina horri ez dio inolako garrantziarik ematen, kolonia baitzen. Txinako kasuan ere, kapitalismorik gabeko garapena eman ezin zela zion. Hemen ere sozialismoaren eraikuntzaren maila desberdinak edo Lenin-ek esan bezala, gizarte komunistaren “garapen ekonomikoaren graduak” ukatzen ditu.

“Aniztasun bera agertuko da gaurko inperialismotik biharko iraultza sozialistara gizateriak egin behar duen bidean. Nazio guztiak sozialismora iritsiko dira, hori saihestezina da, baina ez dira modu berean iritsiko; nazio bakoitzak bere elementu bereziak ekarriko ditu demokraziaren forma batera edo bestera, proletalgoaren diktaduraren aldaera batera edo bestera, bizitza sozialaren alderdi desberdinen eraldaketa sozialisten erritmo batera edo bestera. Ez dago ezer ziztrinagorik alde teorikoan, ezta irrigarriagorik ere alde praktikoan, “materialismo historikoaren izenean” etorkizuna eremu honetan kolore uniforme grisaxkaz margoturik irudikatzea baino: hori zirrimarra bat besterik ez litzateke izango.”

Marxismoaren karikaturari eta ‘ekonomismo inperialistari’ buruz (1916) – Lenin

Bestalde, bere betiko ekonomismoari jarraikiz, Trotski-ren arabera iraultza Errusian eman zen “ikus puntu ekonomikotik” Estatu inperialista “atzeratuena eta ahulena” zelako, eta ez kontraesan politiko gehienak batzen ziren herrialdea zelako, katearen katebegi ahulena osatuz.

“Oro har, sozialismoa herrialde bakar batean egikaritu baldin badaiteke, teoria hau onar daiteke, ez bakarrik boterearen konkistaren ondoren, baita aurretik ere. Sozialismoa ESSB atzeratuaren esparru nazionalean gauzatu badaiteke, askoz gehiago izango da Germania aurreratuarenean.”

Guzti hau ez onartzea “sozialpatriotismoa” eta “munduko proletalgoaren aurrean begiak itxiz ESSB soilik begiratzea” izango litzateke, beraz. Autodeterminazio-eskubidearen ukapena, Estatu-kapitalismoa, nazioarteko lanaren banaketaren irauarazpena... horra hor “iraultza mundutarrari” buruzko Trotski-ren ikuspegi “internazionalista”.

1929an azkenean ESSBtik kanporatua izan zen. Lehenik Turkiara joan zen, handik Frantziara eta gero Norvegiara aldatu zen. Azkenik Mexikoko gobernu atzerakoiak babesa eman zion, non bi metroetako harresiko etxalde batetik bere lan kontrairaultzailea mundu osoan zehar zuzentzen jarraitu zuen, bere lekaio eta soldatapeko hiltzaileez inguraturik.

TROTSKI, AGENTE PROBOKATZAILEA

Trotsky, jada Sobiet-Batasunetik erbesteratuta zegoela, amorruez eta mendeku gosez beterik, bere propaganda kontrairaultzailea erradikalizatu zuen: mentxebike garaian Lenin-en inguruan esaten zituen irain eta asmakizun berberak Stalin-en aurka zuzendu zituen, baina oraingoan “Lenin-en izenean”. Honela garai hartako propagandista antikomunistarik abilena bilakatu zen, Estatu inperialistetako zerbitzu sekretuek baliatu zutena. 1930. urtean ‘Nire Bizitza’ autobiografia argitaratu zuen, non bere egolatria eta gainontzeko iraultzaileekiko erdeinua beste maila batera jasotzen diren. Liburu hau buruzagi naziek haien propagandarako oinarri gisa erabili zuten (Hitler-ek irakurri eta gero aginduta), baita inperialista japoniarrek ere (preso komunitei irakurrarazten zieten haien moralak hausteko). Italiar faxistek preso zuten Gramsci-ri erakutsi ziotenean, honek “Trotsky faxismoaren puta da” esan zuen. Gainera, bertan Trotsky-k bere semea Sedov oposizio ilegalean 1923tik sartu zuela aitortzen du. Garai honetan ere trotskistak “boltxebike-leninistak” erabiltzen hasi ziren haien burua izendatzeko, nahiko harrigarria dena inoiz ez boltxebikea eta ez leninista izan ez zen norbaiten jarraitzaileentzat (haien probokazio-lana mozorrotzeko ez bazen).

Iraultzarekin “etengabe” biraka

Iraganeko gauza zela mila bider zin egin ostean, 1930. urtean Trotsky-k “iraultza etengabearen” teoriaren birformulazioa argitaratu zuen. Lan hau Alma Atan idatzi zuen berez, ordura arte bere alde zegoen Radek-en kritikari erantzunez. Honetan Komintern-aren programari kritikaren ildo ekonomista inperialista berdina jarraitzen du, baina gezur eta desitxuraketa historikoa gehituz.

“(...) Kapitalismoaren garapena paregabeki desberdina da herrialde ezberdinetan. Ezin da beste moduan izan merkantzien ekoizpen-erregimenaren pean. Hortik ondorio eztabaidaezina atera daiteke: sozialismoak ezin du aldi berean arrakasta izan herrialde guztietan. Herrialde batean edo gehiagotan arrakasta izango du, besteek, denbora batez, herrialde burges edo aurre-burgesak izaten jarraituko duten bitartean. Horrek, ez ditu soilik marruskadurak eragingo, baizik eta beste herrialdeetako burgesiaren joera zuzena Estatu sozialistaren proletalgora garailea zapaltzeko. Kasu horietan, gerra, gure aldetik, gerra zilegi eta zuzena izango litzateke. Sozialismoaren aldeko gerra litzateke, beste herriak burgesiatik askatzeko gerra. (...)”

Iraultza proletarioaren programa militarra (1916) – Lenin

Lanari hitzaurrean Trotsky-k bere pozoia zabaltzen du Nazioarteko Mugimendu Komunista ahuldu nahian: “iraultza etengabearen” teoria marxista-leninisten sozialismoaren eraikuntzaren teoriari kontrajartzen dio, bere esanetan Stalin-ek gizarte sozialista “soilik Errusian” eraiki zitekeela ziolako, “puruki errusiarra” den “nazionalismo mesianikoa”, “utopikoa” eta “atzerakoia” “internazionalismo burokratiko-abstraktu” batekin mekanikoki elkarlotuz. “Sozialismoaren eraikuntza herrialde bakar batean” gero eta kontserbadoreagoa bilakatutako burokraziaren teoria omen zen bere egoera pribilegiatua mantentzeko. Honi “ikusmolde nazionalsozialista” deitzen dio, Komintern-a “esku-hartze militarren aurkako lanabes laguntzaile” murrizten zuenak...

“Stalin-en Leninismoaren Auziak zirtzilkera ideologiko honen kodifikazio bat adierazten du bere baitan, jende horren behartasun mentalaren eskuliburu ofizial bat, arruntasun zenbakituen bilduma bat (eta argi gera dadila ahalik eta definizio moderatuenak ematen ahalegintzen naizela).”

Bere “iraultza mundutarraren” izaera “internazionalista”, ordea, betiko berdina da: ezinezkoa da sozialismoa eraikitzea herrialde industrializatueta iraultza eman gabe. Are gehiago, Indian (koloniak) ezin da ez iraultzarik eta ez sozialismoaren eraikuntzarik egon Ingalaterran (erdigune inperialista) aldi berean mugimendu iraultzailea lehertu arte, eta alderantziz, lanaren banaketa mundialak eta ekoizpen-indarren naziozgaindiko izaerak galarazten omen dutelako. Honek ere industrializazioaren eta kolektibizazioaren bitartez ekonomikoki aurreratu ahala ESSBri gero eta gehiago eragingo lioke, masa langileen egoera okerragotuz...

“(..) Hala ere, diktadura proletario isolatu baten existentziarekin, barne- eta kanpo-kontraesanak arrakastekin batera hazten dira. Isolatuta jarraituz gero, Estatu proletarioa, lehenago edo beranduago, kontraesan horien ondorioz eroriko litzateke. Bere salbazioa herrialde aurreratuetan proletalgoa garaitzea eragitean dago bakarrik. (...)”

Ondorioz, “burokrazia estaliniarrak” (Alderdi boltxebikeak) trotskismoaren aurka aurrera eramandako borroka amarrua izango zitekeen benetako iraultza oztopatzeko eta bere aurkako “manipulazio historikoa” salatzen du:

“(..) Nahikoa da esatea laburpenean Lenin-ek garai hartan New Yorken zegoen Kollontai-ri idatzitako gutunak agertzen direla lehenik. Zergatik? Bakarrik gutun horietan niri buruzko ohar gogor batzuk agertzen direlako bakarrik, Kollontai-k emandako informazio guztiz faltsu batean oinarrituak, zeinak, garai hartan, ezkertiar extremismo historiko bat inokulatu baitzion bere mentxebismo organikoari. (...)”

Trotsky-ren arabera Lenin-ek ez zituen bere mentxebike garaiko lan gehienak irakurri eta horregatik ez zuen “iraultza etengabearen” teoria ondo ezagutzen. Beraz, beraien arteko liskarrak “bere adostaile jarreragatik” ziren eta ez honengatik, berari buruzko Lenin-en baieztapenak izaera “puruki episodikoa” edota “okerrak” izanik (“iraultza etengabeak” “gainditu” zituenak), auzi erabakigarri guztietan bere kokapena Lenin-enarekin bat etorri...

Trotsky-k onartu egiten du “boltxebike” garaian bere teoria mentxebikea defendatzen jarraitu zuela “inork ez baitzion eskatu iraultza etengabearen akatsei muzin egitea” hauetara igarotzerakoan, eta aurrerago gaia atera ez zuela “Lenin gaixo zegoelako” eta ez alboratu zuelako. Bestetik, ukatu egiten du “behera tsarra, gora behargin-Gobernua!” aldarrikatu zuenik eta erru osoa Parvus bere kide ohiari botatzen dio. Laburbilduz, “iraultza etengabeak funtsezko ezaugarrietan boltxebismoaren ildo estrategikoarekin bat” egingo luke.

“(..) Hemen, inolako akatsik ez sortzeko, labur-labur esango dut: bere hutsune guztiak gorabehera, iraultza etengabearen teoria, nire lehen lanetan ere azaltzen den bezala, batez ere Emaitzak eta aukerak (1906) lanean, marxismoz neurtezinki gehiago blaituago dago, eta, ondorioz, neurtezinki gertuago Lenin-en eta alderdi boltxebikearen ildo historikotik, ez soilik Stalin-en eta Bukharin-en egungo dibagazioak baino, baizik eta Radek-en azken lana baino ere.”

Eta ez hori bakarrik, dirudienez “iraultza etengabearen” teoriak Urriko iraultza ere iragarri zuen:

“(..). Baina kontua da hau idazten duenak, bere ikusmoldeaz gidatuz hain zuzen ere, hots, etengabeko iraultzaren teoria oinarri hartuta, Urriko Iraultzaren saihestezintasuna iragarri zuela, iraultza hori egin baino hamahiru urte lehenago. (...)”

Trotsky-ren esanetan Lenin-ekin iraultzan nekazalgoaren paperaren inguruko eztabaidak eta honen nekazalgoaren gutxieste salaketak alderdi nekazari independentearen inguruan ziren batik bat, eta amaieran Lenin-ek onartu zuen “iraultza etengabearen” planteamendua... Gainera, Lenin-ek nekazaritzaren auziaren inguruan bera kritikatzeko zuenean “pseudonimo” gisa erabiltzen zuela dio, egia Bukharin eta Radek-i zuzentzen baitzitzaiei (!).

“Klase batzuen “koalizioak” ez du inola ere auresuposatzen alderdi boteretsu bat edo bestearen existentzia, ezta alderdikeria orokorrean. Hori klaseen arazoa alderdien arazoarekin nahastea da. Aipatutako klaseen “koalizioak” ez du inola ere auresuposatzen existitzen diren alderdi burgesetako batek nekazalgoa bereganatu behar duenik, ezta nekazalgoa alderdi independente boteretsu bat sortu behar duenik ere! (...) Hor duzue, formalizatuta, alderdien eta alderdirik gabeko antolakundeen koalizio politikoa! Hor duzue “proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura”, tsarismoari mehatxu forman aldarrikatua, herri osoari deialdi gisa, baina oraindik ez egia bihurtuta!”

Proletalgoaren borrokaren helburuak gure iraultzan (1909) – Lenin

“Iraultza etengabearen” bertsio honetan Trotsky-k berriro dio alderdi nekazari independentea gabe ezin dela ‘behargin eta nekazarien diktadura demokratikorik’ egon, eta hau sortzea ezinezkoa dela. Beraz nekazari-iraultza soilik burgesiaren ala proletalgoaren gidaritzapean burutu daiteke, krisi iraultzaile garaian nekazalgoak lehenen alde eginez.

“6. Proletalgoaren eta nekazarien diktadura demokratikoa, bere klase edukiagatik proletalgoaren diktaduratik desberdina den erregimen gisa, nekazarien interesak eta, oro har, demokrazia burges ttipia gorpuztuko lituzkeen alderdi iraultzaile independente bat posible balitz bakarrik gauzatu ahal izango litzateke, proletalgoaren laguntzarekin, Botereaz jabetzeko eta bertatik bere programa iraultzailea ezartzeko gai den alderdi bat. (...)”

Trotsky-k ukatu egiten du Otsaileko iraultza ondorengo botere bikoiztasunaren aldian behargin eta nekazarien diktadura demokratikoa egikaritu zenik sobieten oinarriaren gain, soilik “joera” bat izan zela dio, honek klaseen arteko korrelazio bat eta ez instituzio politiko zehatz bat aurreikusten zuen arren, Lenin-ek preseski bere ‘Taktikari buruzko gutunetan’ esan bezala.

“Ez, hau ez, barkatu! Lenin-en formula zaharra “algebraikotzat” jotzen badut, ez dut hori egiten, ezta gutxiagorik ere, hustasun batera murriztu ahal izateko zentzuan, Radek-ek hausnartu gabe egiten duen bezala. (...)”

Trotsky-k dio behargin eta nekazarien diktadura demokratikoaren formulak “izaera algebraikoa” zuela apropos, alderdi nekazari baten aukera zabalik utziz. Halere, Alderdi boltxebikeak Lenin-en “berrarmatze ideologikoa” behar izan zuen, berak dionez “iraultza etengabearen” onarpena zena,

“diktadura demokratikoaren” aldarria baztertzeko eta Trotski-ren teoria besarkatzeko, Urriko iraultza posible egin zuenak... “boltxebike zaharren” aurkako borrokan honetan bera “Lenin-en alde” egon zen, noski (orduan Alderdi boltxebikearen parte ere ez zenean). Iraultza demokratikoa bai egikaritu zen, baina ez botere bikoiztasunaren aldia baizik eta Urriko iraultza eta gero, proletalgoaren diktadura ezarri zenean.

“(..). Iraultza demokratiko-burgesa beharginen eta nekazarien koalizio moduan egikaritu zen. Kerenski-ren erregimenean? Ez, Urriaren ondorengo lehen aldia. Egia da? Hala da. Baina, orain dakigun bezala, ez zen diktadura demokratikoaren forman egikaritu, proletalgoaren diktaduran baizik. Horrekin batera, behin betiko desagertu zen formula aljebraiko zaharraren beharra.”

Honek ildo “etengabea” eta leninista funtseskoan berdina zirela frogatuko luke, nonbait.

“(..). Ulertzen dut gertaeren bilakaerak erabat berretsi zituela nik hogeita hiru urte lehenago ‘Emaizak eta aukerak’ lanean garatutako funtsezko ideiak, eta horrexegatik, hain zuzen, bat zetozeela boltxebismoaren ildo estrategikoarekin. (...)”

Ondorioz behargin eta nekazarien diktadura demokratikoaren kontsigna “akatsa” izan zen, boltxebikeak “kokapen atzerakoi bat hartzera” bultzatu zituenak eta “iraultza itoko” zutenak Leningatik izan ez balitz. Beraz “baztertu beharra dago” prozesu iraultzaile berrietan, eta batez ere nekazalgora gizartearen gehiengo zabala den garapen kapitalista urriko herrialde kolonialetan, India eta Txina bezala.

“(..). Bere betetasunari esker, 1905-1917ko esperientzia boltxebistak ateak hermetikoki itxi zizkion ‘diktadura demokratikoari’. Lenin-ek berak errotulu bat jarri zuen atean: “Ez dago ez sarrerarik ez irteerarik”. Hau hurrengo hitzekin formulatzen zuen: nekazariak burgesa edo behargina jarraitzen du. (...)”

Komintern-ak 1928.urtean ‘Matxinada armatua’ argitaratzen zuen bitartean (zeinen elaborazioan Ho Txi Minh-ek, Togliatti berak edota bere morroi Tukhatxevski-k hartu zuten parte), Estonia, Germania eta Txinako iraultza saiakeren porroten azterketaz Nazioarteko Mugimendu Komunistentzat irakaspenak ateratzeko helburuaz, Trotski-k hauen erru osoa “Stalin eta Bukharin porrot-antolatzaileena” dela dio.

“7. Nazioarteko Komunistaren joera gaur egun ekialdeko herriei proletalgoaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoaren kontsigna inposatzeko, historiak aspalditik behin betiko gaingitu duenak, izaera atzerakoia baino ezin du izan. Kontsigna hau proletalgoaren diktaduraren aurka dagoenez, politikoki azken hau masa burges ttipietan desegiten laguntzen du, eta, horrela, burgesia nazionalaren nagusitasunerako eta, beraz, iraultza demokratikoaren porroterako baldintza onuragarrienak sortzen ditu. Kontsigna horren eranstea Nazioarteko Komunistaren Programan berez adierazten du jada marxismoaren eta Urriko tradizio boltxebisten aurkako traizio zuzena.”

Trotski-ren aburuz Ekialdeko mugimendu iraultzaileetan etapa eta faseen teoria “txirriporro” eta “atzerakoia” baztertu behar da (hau ekoizpen-moduen etapen jauziekin nahasten du irakurlea nahasteko nahiean), burgesia ttipiak paper aurrerakoi oro galdu baitu (adibide gisa erdigune

inperialistan faxismoari babesa ipiniz) eta nekazariak beharginen ala burgesiaren atzetik joan behar dira ezinbestean, haien papera iraultza demokratiko-nazionallean mespretxatuz.

“Azkenik, Martov burkideak aipatzen dituen Trotski-ren iritzirik okerrena, eta honek “bidezkotzat” jotzen duena, hirugarrena da : “Ez dio axola berak (nekazalgoak) hori egitea (“behargin-demokraziaren erregimenari atxikitzea”), erregimen burgesari normalean gehitzen zaiona baino kontzientzia gehiagorekin”. Proletalgoak ezin du nekazalgoaren inkontzientzian eta aurreiritzietan konfiantzarik izan, mundo burgesaren subiranoek egiten duten bezala, ezta auresuposatu ere aldi iraultzailean zehar nekazalgoaren ohiko inkontzientzia eta pasibotasuna, gutxienez, mantenduko direnik. (...)”

Proletalgoaren borrokaren helburuak gure iraultzan (1909) – Lenin

Trotski-k ez du herrialde inperialista eta kolonialen arteko desberdintasunik egiten, guztietan zuzenean proletalgoaren diktadura aldarrikatuz. Honela gutxietsi egiten du (behargin eta nekazarien) diktadura demokratikoaren egitekoak beren gainegitura edota oinarri feudal-koloniarrak dela eta iraultza burgesa beharrezkoa den herrialdeetan. Honekin batera nekazalgoaren indar iraultzailea hondatzen du, proletalgoak soilik arrastaka eraman ahal izango balu bezala, bere ekinbide propio oro galduta lurjabeen edota atzeriko inperialisten aurkako borrokan.

“Proletalgoaren eta nekazarien diktadura demokratikoa – proletalgoaren diktadurari aurkakotasunean, nekazariak atzetik arrastaka eramaten dituenak eta demokraziaren programa gauzatzen duenak – fikzioa da, bere buruaren aurkako iruzurra, edo zerbait okerragoa, Kerenski edo “Kuomintang” erako politika;”

Demokratikotik sozialistara “zuzenean” eraldatzen den “iraultza etengabearekin” hainbeste bira eman ondoren, azkenean herrialde ekonomikoki atzeratuetan sozialismoaren eraikuntza ezinezkoa dela esateko:

“(...) Kasu honetan, nola hitz egin daiteke proletalgoaren diktaduraz herrialde batzuetan, Txinan, Indian eta abar. bezalakoak? Horri erantzungo diogu: historia ez da enkarguz egiten. Herrialde bat proletalgoaren diktadurarako “heldu” daiteke, ez bakarrik sozialismoaren eraikuntza independente baterako, baizik eta sozializazio-neurri zabalak aplikatzeko, ezta are gutxiago ere, heldu izan gabe. (...) Ez soilik Txina atzeratuak, bazik eta oro har, munduko herrialde bakar batek ere ezingo luke sozialismoa eraiki bere esparru nazionallean: ekoizpen-indarren garapen handiak, muga nazionalak gainditzen dituztenak, horri aurka egiten dio, nazionalizaziorako garapen eskasegiak bezala. (...)”

Ondorioz iraultza mundu osora “etengabe” hedatu arte ezingo da, bere garapen-maila edozein izanda ere, lehenago sozialismoa inon garatu eta bitartean kapitalismoa iraunarazi beharko da lanaren banaketa mantentzen duen ekonomia mundial horren parte izatera igarotzearen zain... hori bai, Trotski-k ez du argitzen sindikatuen militarizazioarekin ala gabe izango den hau.

Lanaren amaieran Trotski-k baieztatzen du Lenin-ek berak baino gehiago azpimarratzen zuela kanpo-laguntzaren beharra Europatik iraultza Errusian (demokratikoa ere) mantentzeko, honetarako

desitxuratutako edo zuzenean asmatutako zitak erabiliz, ez dutenak berak iradokitzen duena frogatzen ezta ere.

“(...) Iraultza proletarioaren garapen garaileak Mendebaldean soilik babestu dezake behargin-Estatua mehatxatzen duten arrisku hilgarrietatik, ez bakarrik militarretatik, baita ekonomikoetatik ere. Gai honetan bi kokapen aurkitzen saiatzea, nirea eta Lenin-ena, inkoherentzia teorikoa da. Irakurri ezazue Lenin berriro, behintzat, ez ezazue kalumniatu, ez gaitzazue elikatu nahi Stalin-en mamirik gabeko puska lehorrez. (...)”

ESSBren aurkako gerraren aurrean burgesiaren gaineko presioa defendatu ordez guda zibil iraultzailea aldarrikatzen du baita ere, berak I. Mundu Gerrate inperialistan preseski honen kontra agertu bazen ere (!).

Trotsky-k guzti hau idatzi zuenetik, gaur egun arte, trotskistek iraultza bat bera ere garaileki aurrera eraman ez dutela esan dezakegu (baina bai bat baino gehiago zapuzten lagundu). Nola da posible hain hizkera ezkertiarrez jantzitako teoriak hain emaitza eskuindarrak eman izana? Esan al daiteke “iraultza etengabearen” teoria, leninismoarekin “etengabe” kontraesanean egoteaz gain, “etengabe” garaitutako iraultzaren teoria dela?

1932. urtean Trotsky-k ‘Errusiar iraultzaren historia’ argitaratu zuen, non Urriko iraultzaren kontakizun guztiz faltsutua egiten duen, Alderdi boltxebikearen papera baztertuz, bere burua goretsiz eta gainontzeko iraultzaileen ekarpena gutxietsiz. Urte berean ‘Ekonomia sobietikoa arriskuan’ atera zuen ere, planifikazio ekonomikorako Bosturteko Planak jada abiatuta eta nekazaritzaren kolektibizazioa hasi zen unean (klase-borroka landa-eremura eramanez), non hau abenturerismotzat jotzen zuen eta ekoizpen-indarren azpigarapenaren eta “burokraziaren” erruz, gosea, krisia eta kalamitate ekonomikoa iragartzen zituen.

“Burokraziaren” aurkako borroka

Trotsky-k, sozialismoaren eraikuntzaren arrakasten aurrean, honen aurka lohia botatzeari ekin zion. Bere ildo kontrairaultzailea justifikatzeko asmoz, ESSBko egoera guztiz iluna aurkezten zuen, beldurretako ipuin bat izango balitz bezala. 1937ean argitaratutako ‘Traizionatutako iraultza’ lanean, Trotsky-k ikuskera faltsutzaile honetan oinarritutako gezur lotsagarri hauen bilduma aurkeztu zuen. Ametsgaizto honen erantzulea ESSBko “burokrazia” omen zen eta Stalin haren “pertsonifikazioa”, noski. Bera izan zen beste inor baino lehenago Estatu sobietikoa faxismoarekin parekatuz “totalitario” deitu zuena.

“Erregulazio- eta bitartekaritza-funtzioagatik, hierarkia sozialari eusteko duen arduragatik, helburu berberekin Estatuaren aparatua ustiatzeagatik, burokrazia sobietikoak beste edozeinen antza du, eta, batez ere, faxismoarena. (...)”

Baina zertan zetzan “burokrazia” Trotsky-rentzat? Honen arabera Alderdiko kide eta Estatuko enplegatu guztiak ziren (bere aldekoak izan ezik), “kasta burokratikoak”, klase zapaltzaile moduko bat eratu zutenak, baina klase bat izan gabe (bere propaganda sabotatzailerako beharrezko amarrua zen hau). Galdetu daiteke ea berak Alderdian eztabaida antzuak eragin ostean Kaukasoko erietxera ihes egiten zuenean, honen parte zen ala ez...

Beraz Trotsky-rentzat burokratismoa ez litzateke bulegoko langileen joera ideologikoa izango, lanaren banaketa sozialaren ondorioz forma hori hartzen duena eta sozialismoaren eraikuntzarentzat oztopo edota etsai bihurtu daitekeena, ezta burokrata bat (burokratista hobe esanda) egoera pribilegiatu baten bila masen ekimena zapaltzen duena, baizik eta Trotsky-ren aurka dagoena.

Egoera honen jatorria ESSBko “ekoizpen-indarren azpigarapena” zen, herrialde inperialistak baino gutxiago ekoizten zuenez, sozialismoaren eraikuntza ezinezkoa egiten zuenak. Hau justifikatzeko Marx-ek iraultza sozialista kapitalismoa gehien garatu zuten Mendebaldeko herrialdeetan lehenik ematea aurreikusitua zuela esaten du, eta nahiz eta ESSBko ekoizpen-indarrak Marx-en garaiko herrialdeenak baino altuagoak izan, hauek Estatu inperialista garaikideenak (AEB eta Europa) gainditu arte ezingo litzateke gizarte komunistaren behe-fasean sartu eta ondorioz kapitalismoa izaten jarraituko luke. Behin hauek gaindituta komunismorako bidea “automatikoa” izango litzateke, hori bai. Bere ikuspegi ekonomizista honek Sozialismoaren garapen-maila desberdinak nahastu eta nahita korapilatzen zituen.

“Baina sozialismoaren eta komunismoaren arteko desberdintasun zientifikoa argia da. Sozialismoa deitzen den honi, Marx-ek, gizarte komunistaren “lehen” fasea edo behe-fasea deitzen dio. Ekoizpen-baliabideak jabetza komun bihurtzen diren heinean, “komunismo” hitza erabil daiteke, betiere hau komunismo osoa ez dela bistatik galtzen ez bada. Marx-en azalpenaren esanahi handia, hemen ere dialektika materialista, garapenaren teoria, era kontsekuentean ezartzen duela da, komunismoa kapitalismotik garatzen den zerbait bezala hartuz. Definizio eskolastiko eta artifizialen orde, “irudizatutakoak”, eta hitzei buruzko eztabaida antzuen orde (sozialismoa zer den, komunismoa zer den), Marx-ek komunismoaren heldutasun ekonomikoaren faseak dei genitzakeenaren azterketa egiten du.”

Estatua eta iraultza (1917) – Lenin

Trotsky-ren esanetan proletalgoaren diktadura “gizarte burgesaren eta sozialistaren arteko zubia” da eta Sozialismoaren lehen fasean sartzerakoan hau desagertu beharko litzateke, Engels-ek esan zuen moduan “existentzia indibidualarengatik borroka” ezabatu eta gero. Honetan ekoizkin sozialaren banaketan ‘eskubide burgesak’ agintzen jarraitzen duenez (hots, egindako lanaren arabera jasotzen da), Marx-ek ‘Gotha-ko programari kritikan’ esan bezala, Lenin-ek Estatu sozialistak hau gainditu arte “burgesiarik gabeko Estatu burges” moduko bat izango zela esan zuela erabiltzen du ESSB Estatu burgesa zela esateko (?).

“Lenin-en arabera, Estatuaren agonia desjabetzaileak desjabetu eta berehala hasten da, hau da, erregimen berriak bere zeregin ekonomiko eta kulturelei ekin ahal izan baino lehen. (...) Baina esplotazioarekin “betirako” amaitu bada, herrialdea benetan sozialismoaren bidean sartu bada, hots, goiko fasera daraman komunismoaren beheko fasean, gizarteari Estatuaren alkandora hertsagarria, azkenik, bota baino ez zaio geratzen. Horren ordez — ia ez da sinesgarria —, Estatu sobietikoak itxura burokratiko eta totalitarioa hartzen du.”

Lehenik eta behin, Marx-ek argi utzi zuen proletalgoaren diktadura kapitalismotik komunismo osora iritsi arte beharrezkoa izango zela, eta ez “sozialismoa baino lehenago desagertu beharrezkoa”, inondik inora:

“(...) Gizarte kapitalistaren eta gizarte komunistaren artean, lehenengotik bigarrenerako eraldaketa iraultzailearen aldia dago. Aldi honi iragate-aldi politiko bat ere badagokio, zeinaren Estatu proletalgoaren diktadura iraultzailea besterik ezin den izan.”

Gotha-ko programari kritika (1875) – Marx

Lenin ere honetaz mintzatu zen, Estatu sozialistak, Estatu den heinean, burokrazia beharrezkoa izango zuela azpimarratuz, eta hau gradualki murrizten joan behar zela komunismora hurbiltzen joan ahala:

“Proletalgoak Estatuaren boterea behar du, indarraren erakunde zentralizatu, biolentziaren erakunde, bai esplotatzaileen erresistentzia zapaltzeko, baita ekonomia sozialista “martxan jartzeko” lanean, biztanleriaren masa ikaragarria, nekazariak, burgesia ttipia, erdi-proletarioak zuzentzeko ere.

(...) Burokrazia kolpetik, alde guztietan eta bere azken erroetaraino abolitzeaz hitz egitea lekuz kanpoko da. Hau utopia bat da. Baina makina burokratiko zaharra kolpetik suntsitzea eta jarraian, burokrazia guztia gradualki ezerezero murriztea ahalbidetuko duen berri batekin hastea, ez da utopia bat; Komunaren esperientzia da, proletalgo iraultzailearen berehalako eginkizun zuzena.”

Estatua eta iraultza (1917) – Lenin

Sozialismoaren aurrerapenean honen eragin moteltzailea eta gizartetik duen aldentze erlatiboaren ondorioz honetan sor daitezkeen fenomeno atzerakoi, endekatu, burges eta klasistak borrokatzeko, instituzio politikoaren demokratizazioa bultzatu behar da, sustatuz masen parte hartzea gauzen

gubernuan (atentzio berezia merezia dute Armadako goi-karguek, kontrairaultza prozesu guztietan egiteko erabakigarria izan dutenak).

“(...) Zergatik dira deskonposizio eta ustelkeria moralaren egitate lotsagarri horiek Alderdiko gure antolakundeen katebegi batzuetan? Alderdiaren monopolioa zentzugabekeriara eraman dela, oinarrizko militanteei ahoa estali zaiela, Alderdiaren barne-demokrazia suntsitu dela, burokratismoa ezarri dela. Nola borrokatu behar da gaitz horren aurka? Uste dut gaitz horren aurka borrokatzeko Alderdiaren masen kontrola behetik antolatzea baino, Alderdiaren barne demokrazia ezartzea baino beste bitartekorik ez dagoela eta ezin dela egon. Zer esan daiteke Alderdiko masek elementu endekatu horien aurka sumindura piztu eta ostikoka botatzeko aukera emateari? Nekez esan daiteke ezer horren aurka.”

Hitzaldia ESSBko GKL Baren VIII. Biltzarrean (1928) – Stalin

Honen endekapena ekiditeko neurri batzuk proposatzen zituen Lenin-ek, betiere azpimarratuz iragate-aldi sozialistan zehar klase-borrokak jarraitzen zuela eta proletalgoaren diktadura gabe ezinezkoa izango zela klaseak ezabatzea:

“Sozialismoa klaseen ezabatzea da. Proletalgoaren diktadurak bere eskura zegoen guztia egin du zentzu honetan. Baina ezin dira klaseak kolpe batez ezabatu.

Eta klaseak oraindik daude eta egongo dira proletalgoaren diktaduraren garaian zehar. Diktadura beharrezkoa izateari utziko dio klaseak desagertzen direnean. Eta proletalgoaren diktadura gabe klaseak ez dira desagertuko.

Klaseak oraindik badaude, baina haietako bakoitza aldatu da proletalgoaren diktaduraren garaian; aldatu dira era berean haien arteko harremanak. Klase-borroka ez da desagertzen proletalgoaren diktadurapean, egiten duena beste forma batzuk hartzea da.”

Proletalgoaren diktaduraren ekonomia eta politika (1919) – Lenin

Baina Trotski-ren esanetan ESSBko ekonomiak biztanleriari kontsumo arloan oinarrizkoa eskaintzen “ez zionez” eta “miseria gorrian bizi zenez”, errepresiorako sekulako Estatu-aparatua sortu behar izan zuen banaketa egin ahal izateko. Garapen ekonomikoak aurrera egin ahala, ordea, gutxiengo pribilegiatua osatzen zuen “burokrazia” honek gero eta gehiago jasotzen zuen eta herriak gero eta gutxiago, “txirotasun materialean” biziz. Beraz, Trotski-ren ustetan, ez zen “burokrazia” sozialismoaren eraikuntza zapuztu zuenak (nahiz eta honen garapena galgatu), baizik eta sozialismoa eraikitzeko oinarri ekonomikoaren gutxiegitasunak “burokrazia” sorrarazi zuenak.

Trotski-k ez zuen Sozialismoan diruaren desagerpena ekoizpen-baliabideen sozializazio osoarekin lotzen, baizik eta aberastasuna handitzearekin soilik. Honela, merkantzien zirkulazioaren “muturreko garapenak” soilik sar zezakeen ESSB komunismorako bidean.

Bere “azalpena” ekonomikoa izan arren, bere alde politikoa ere bazuen: Estatuaren “burokratizazio” hau “isolatuta” zegoelako eman zen, hots Mendebaldean (ekoizpen-indar garatuagoak zituen Germanian batez ere) iraultza eman ez zelako. “Burokratizazio” prozesu hau lehenik Alderdi boltxebikean hasi zen Trotski-ren esanetan, honen kausa eta “aldi berean” ondorio omen zena.

Ohiko eran, Trotski-k gezur eta manipulazio historikoa erabiltzen du bere ildo mentxebikea boltxebismoaz pasarazi nahian (hemen agerian uzten du bera zegoela Alderdi boltxebikean frakzioak berrezartzeko saiakeren atzean):

“(..) Boltxebismoa frakzioen existentziarekin bateraezintasuna aldarrikatzen duen egungo doktrina ez dator bat gertaerekin. Gainbeheraren mitoa da. Boltxebismoaren historia, egiatan, frakzioen borrokarena da. (...) Gerra zibilak ondorio larri bat ekarri zuen: oposizioko alderdiak bata bestearen ondoren ezabatuak izan ziren. Boltxebismoaren buruzagiek, neurri hauetan, demokrazia sobietikoaren izpirituarekin kontraesan nabarian, defentsaren behar periodikoak ikusten zituzten, eta ez printzipiozko erabakiak. (...) Alderdiaren X. Biltzarreak frakzioak debekatzera jo behar izan zuen, hau da, Estatuaren erregimen politikoa alderdi gidariaren barne-bizitzari ezartzera. Frakzioen debekua, errepika dezagun, egoeraren lehen hobekuntza errealarekin desagertzera bideratutako salbuespenezko neurri gisa ulertzen zen. (...)”

“Burokratizazio” honen hasiera 1923an eman omen zen (bere ‘Ibilbide berri bat’ atera zuen garaian), Lenin-en gaixotasuna bitartean, eta bere heriotzarekin finkatu, noiz eta Alderdiaren behargin-oinarria sendotzeko ‘Lenin-en promozioan’:

“Herrialde bakar bateko sozialismoaren teoriarekin batera, burokraziak erabiltzeko beste teoria bat formulatu zen; horren arabera, boltxebismoarentzat, erdiguneko batzordea dena da, alderdia, ezer ez. Nolanahi ere, bigarren teoria hau lehenengoa baino arrakastatsuagoa izan zen. Lenin-en heriotza aprobetxatuz, burokraziak “Lenin-en promozioa” izeneko erreklamendu kanpaina hasi zuen. Alderdiko ateak, ordura arte ongi zainduak, zabal-zabal ireki ziren mundu guztiari: beharginak, enplegatutakoak, funtzionarioak, pilan sartu ziren. Politikoki, abangoardia iraultzailea esperientziarik eta nortasunik gabeko, baina buruzagiei obeditzera ohitutako, giza-material batean xurgatzea zen helburua. Proiektu hau lortu zen. Burokrazia abangoardia proletarioaren kontrolatik askatzean, “Lenin-en promozioak” kolpe hilgarria eman zion Lenin-en alderdiari. Bulegoek beharrezko zuten independentzia lortu zuten. Zentralismo demokratikoak zentralismo burokratikoari eman zion lekua. Alderdiaren zerbitzuak erabat berritu zituzten, goitik behera; obediencia izan zen boltxebikearen bertute nagusia. Oposizioaren aurkako borrokaren banderapean, iraultzaileak funtzionarioengatik ordezkatuak izan ziren. Alderdi boltxebikearen historia bere endekapenarena bihurtu zen.”

Trotski-ren arabera Alderdi boltxebikeak klase esplotatzaileen hondarren irautea aitzakia bezala erabiltzen zuen bere “errepresio-makineria” justifikatzeko, egiatan bere esanetan Estatu sobietikoak aldarrikatzen zuen “klaseen ezabapena” (hau ere gezurra zelarrik, soilik esplotatzaileak baitziren ezabatutakoak) eta gero Estatua jada guztiz desagertuta egon behar zenean.

“(..) Lenin-ek klase esplotatzaileen likidazioa aparatatu burokratiko baten beharrik gabe posible zela uste zuen bitartean, Molotov-ek, makina burokratikoaren bidez ekimen herrikoi ororen itotzea justifikatzeko, klaseen likidazioaren ondoren, likidatutako klaseen “hondarrak” aipatzea baino gauza hoberik ez du aurkitzen.”

Lenin preseski honetaz mintzatu zen: nahiz eta klase esplotatzaileak garaituak izan eta beren berrindartzerako oinarri ekonomikoa kendu, haien hondarrak edota nostalgikoak beren egoera

pribilegiatua berreskuratzen saiatuko ziren. Beharbada Sozialismoaren indarrak hau era irekian esatea galaraziko zien baina haien baitan honengatik borrokan jarraituko zuten. Hau belaunaldi batzuetan zehar ere mantendu zitekeen.

“Kapitalismotik komunismorako iragateak garai historiko oso bat darama. Garai hau ematen ari den bitartean, esplotatzaileek euren boterea berrezartzeko itxaropena mantentzen dute, itxaropen hori euren boterea berrezartzeko saiakeretan gorpuzten delarik. Lehen porrota pairatu eta gero, uzkailitako esplotatzaileek, euren uzkailtzea espero ez zutenek, uzkailtze hau gertatuko zatekeen ideia bera ere onartzen ez zutenek, hamar aldiz indar gehiagorekin, sekulako grinarekin, ehun aldiz biderkatutako gorrotoarekin borrokara joko dute euren “paradisu galdua” berreskuratzeke, euren familiak, orain “jendaila madarikatu” horrengatik miseriarra (edo lanbide “madarikatu” batetara) kondenatuak izan direnak, lehen zuten bizi gozoa berreskura dezaten. Eta kapitalista esplotatzaileen atzetik burgesia ttipiaz osatutako masa handi oso bat abiatzen da; herri guztietako hamarkadetako eta hamarkadetako esperientzia historikoak erakusten duenez, zalantzatia dena, lehen momentuan langileriaren alde jar daitekeena baina langileen lehen porrot edota atzerapausoarekin batera zalantza egiten duena, urduri jartzen dena, intziri egiten duena, alde batetik bestera erraztasun handiz igarotzen dena.”

Iraultza proletarioa eta Kautski arnegaria (1918) – Lenin

ESSBko ekonomiak pairatzen zituen sabotai kasuak, ordea, hauei, burokratei edota kontrairaultzaileei egotzi ordez, Trotski-k “erregimenarekin ados ez zeuden beharginenak” zirela dio, ziurrenik bere lekaioen azpilana justifikatu nahiean. Gainera ale hauek Mundu kapitalistaren laguntza ideologiko, politiko, ekonomiko eta militarra zuten, setio inperialista bidez ekiten dutenak:

“Gure aurrerapausoen neurrian klase-borroka itzaliko dela, gure arrakasten neurrian klase-etsaia otzanduko dela dion teoria ustela eraitsi eta pikutara bidali behar da.

Ez da soilik teoria ustela baizik eta teoria arriskutsua ere, hark gure gizon-emakumeak lokartzen baititu, amarruan erorarazten ditu eta etsaiari indarberritzea ahalbidetzen dio sobieten boterearen aurkako borrokarako.

Kontrara, zenbat eta gehiago aurreratu, zenbat eta arrakasta gehiago lortu, are handiagoa izango da garaitutako klase esplotatzaileen hondarren grina, are gehiago baliatuko dira borroka-molde zorrotzagoez, gehiago kaltetuko dute Estatu sobietikoa, gehiago atxikiko dira borroka-bide etsiangoetara, porrotara kondenatutako gizakien azken bitarteko gisa. (...)

Ez da ahaztu behar klase garaituen hondarrak ESSBn ez daudela bakarrik. Haiek gure etsaien sostengu zuzena jasotzen dute, Sobiet-Batasuneko mugetatik haratago.”

Alderdiaren laneko akatsen eta troskisten eta beste faltsuen likidatzerako neurriei buruz (1937) – Stalin

Beraz, burgesiaren eta proletalgoaren arteko aurkakotasuna ez da soilik mantentzen, baizik eta areagotzen da nazioarteko mailan, Mundu Sozialistaren baitan ematen den klase-borrokan eragiten duena (eta alderantziz). Honen aurkako borrokak bi aldaera ditu: alde batetik, Estatu sozialisten

indar militarra areagotzea eta indartzea, esku-sartze inperialistaren aurka. Bestetik, eremu sozialistako herri langilearen eta kapitalismoaren esplotazio jasaten jarraitzen duen behargin-klasearen arteko elkartasuna sendotu eta antolakuntza-arloan estutzea, internazionalismo proletarioaren bidez, burgesia inperialistak Sozialismoaren aurka batzen diren bezala.

Hil ala biziko gatazka honek Estatu proletarioaren iraungitzea oztopatzen du, gutxienez setio inperialista setio sozialistagatik ordezkaturik den arte (Sozialismoaren hedapenagatik herrialde ezberdinetan), indar atzeratzaileen ezabatzea balaztatuko duena, horrek dakarren arriskuekin.

“Ikusten duzuen bezala, orain Estatu erabat berria, sozialista, daukagu, aurrekaririk gabekoa historian, eta kontuan hartzeko eran desberdintzen dena, bere forma eta egitekoengatik, lehen faseko Estatu sozialistaz.

Baina garapena ezin da hemen gelditu. Aurrera jarraitzen dugu, komunismorantz. Mantenduko al da gure herrialdean Estatu komunismoaren aldia baina ere?

Bai, mantenduko da, setio kapitalistarekin amaitzen ez bada, ez bada kanpoko eraso armatu baten arriskua ezabatzen. Argi dago kasu honetan gure Estatuaren formak berriro ere aldatuko direla, barne- eta kanpo-egoeraren aldaketaren arabera.

Ez, ez da mantenduko eta iraungituko da, setio kapitalistarekin amaitzen bada, setio sozialista batek ordeztu badu.”

SBAK(b)ko EBaren lanari buruzko Alderdiko XVIII. Biltzarrearen aurreko txostena (1939) – Stalin

Sozialismoaren garapen-maila honetara iristerakoan, klase esplotatzaileak ezabatuak izan ondoren, gizarte komunistaren garapen-egoera gorengo honetan, herri langilea 3 klase lagun nagusiz osatua dago: proletalgora, nekazalgora eta intelektualak.

Honek ez du esan nahi klase-borroka bukatu denik. Aitzitik, forma berriak hartzen ditu. Egoera honetan, kontraesan berriak, herri langilearen baitako kontraesanak, bihurtzen dira honen motorra. Gizarte komunistaren bidean lanaren banaketa soziala deuseztatzeko, sexu araberako zapalkuntzarekin amaitzeko, armada iraunkorra herri armatuarengatik ordezkatzeko, hiriko eta landa-eremuaren arteko desberdintasuna ezabatzeko, banakoen eta herrien arteko elkarkidetzaren harremanak errotzeko, lana lehen bizibeharra bihurtzeko... proletalgora izan behar da kontraesan hauen gainditzeko aurrera bultzatu behar duena, bere diktaturaz, Estatu sozialistaz, bere iraungipen propiorako baldintzak eratzen doan erdi-Estatuaz, arreta handia ipiniz kontraesan ez-antagonikoak antagoniko ez bihurtzean.

Nola aurkezten zuen Trotski-k ESSBren egoera, ordea, arlo guzti hauetan? Sozialismoaren eraikuntzan zailtasunak eta akatsak baldin bazeuden ere, berak margotzen duen koadroa guztiz eskizofrenikoa da:

Trotski-k ‘stajanovismo’-az (langileek sortutako emulazio sozialistarako mugimendua) mintzatzerako orduan hau “superesplotazioa” deitzen du (bere garaian berak talka-lanetan gainontzekoei bezainbesteko ordaina ematea babestu bazuen ere), baina aldi berean honek beste

langileak baino 20 edo 30 aldiz gehiago (!) kobratzen zuen langile aristokrazia sortu zuela dio... Teknikariek, alta, 100 aldiz (ehun aldiz!) gehiago kobratu zezaketela esaten du.

Nekazalgoaz mintzatzerakoan, ordea, Trotski-k landa-eremuko kolektibizazioa “lurraren nazionalizazioaren likidazioa” zela esaten du eta ‘kolkhoz’ (nekazal kooperatiba) aberatsek besteak esplotatzen zituztela eta hauen kontu bizi zirela, klase berri baten agerpena ekarriz...

Familiaren berrindartzea ere (prostituzioa ere berpiztu omen zuenak, “burokraziaren” baitan hau “elkarrekiko zerbitzuen” eta “auto-haren” forma hartzen bazuen ere) zerbitzu sozialen kalitate baxuaren ondorio zen, eta gizon eta emakumearen arteko berdintasuna bakarria “eskubide ooren gabezia” zen.

Gazteria sumisioan hezia zen, “aforismo pedagogiko asko Goebbles-etik kopiatutakoak izango zirenak Goebbles-ek Stalin-en laguntzaileetatik kopiatu izan ez balitu” eta “GPUa eskoletan” zegoen ezein kritiko “bala buruan” edo “kontzentrazio-esparru” bidez “fisikoki sarraskitzeko” prest. Honek “terrorismo indibidualaren” aldeko jarrera sortu omen zuen gazteriaren baitan. Trotski-ren esanetan, baina, artea eta zientzia “debekatuta” zeuden ESSBn. Edonola ere, oinarri ekonomikoa ez omen zen “nahikoa” kultura sozialista garatzeko...

Trotski-k ez du inongo daturik aurkezten gezur sorta eta zabor guzti hau frogatzeko, bere ohiko eran zurrumurru eta asmatutako konbertsazio pertsonaletan oinarrituz.

Trotski-ren esanetan herri-miliziak ekonomia aurreratu baten beharra zuen, baina gero kritikatu egiten du ESSBn ejertzito erregularrera bueltatu izana (bere esanetan “ekonomia atzeratua” izanik ere). Aurrerago “buruzagien” hautaketaren alde agertzen da Ejertzitoaren barnean. Esan beharrik ez dago bera boterean egon zenean ez bata eta ez bestea ezarri ez zituela...

Trotski-k 1936. urteko Konstituzio sobietikoan boto sekretua ezarri izana kritikatzeko, Hitler-ek ere mantendu zuena (?), eta hau Stalin-ek “herria burokraziatik babestu beharra zegoela” onartzen duela esan nahi omen zuen. Bere “demokratizazioaren” aldeko apustua, ordea, hurrengoa da: gainontzeko alderdi “sobietikoen” legeztatzea.

“Kontua ez da talde agintari bat beste batengatik ordezkatzea, baizik eta zuzendaritza ekonomiko eta kulturalaren metodoak aldatzea. Arbitrariotasun burokratikoak bere lekua utzi beharko dio demokrazia sobietikoari. Kritika egiteko eskubidea eta benetako hauteskunde-askatasuna berrezartzea beharrezko baldintzak dira herrialdea garatzeko. Alderdi sobietikoen askatasuna berrezartzea eta sindikatuen berpizkundea prozesu honetan inplikaturik daude. (...)”

Bere hipokresiak goia jotzen du Marx-ek gizarte komunistaren behe- eta goi-fasea desberdintzeko erabilitako formularen lehen zatia (‘bakoitzatik bere gaitasunen arabera’), era maneiatuan, hau “bakoitzak nahi duen lana egin dezala” bezala aurkezten duenean, eta komunismo osoaren formularen bigarren zatiarekin (‘bakoitzari bere beharren arabera’) nahita nahasten duenean (preseski honetan lan egiteko beharra gizarteko kide guztietan errotu behar denean) Estatu sobietikoaren beharra ukatzeko. Gatzduna da bere “lanaren militarizazioaren” inguruko ‘Lanaren antolakuntzari buruzko txostenean’ Trotski-k etorkizuneko gizakia “alferrontzi bikain eta zoriontsu” gisa irudikatzen zuela gogoraraztea...

“Gizarte komunistaren fase goren batean, gizabanakoen lanaren banaketari mendekotasun esklabizatzailea desagertu denean, eta harekin, lan intelektualaren eta eskulanaren arteko kontrastea; lana ez denean soilik ogibidea, lehen bizi-beharra baizik; alde guztietan gizabanakoen garapenarekin, ekoizpen-indarrak ere hazten direnean eta aberastasun kolektiboaren iturriek turrusta betera jariatzen dutenean, soilik orduan gainditu ahal izango da eskubide burgesaren horizonte estua eta gizarteak bere banderetan idatzi ahal izango du: Bakoitzatik bere gaitasunen arabera, bakoitzari bere beharren arabera!”

Gotha-ko programari kritika (1875) – Marx

Sozialismoan, soldaten banaketan eskubide burgesak agintzen jarraitzen du, hots, ‘egindako lanaren arabera’ kobratzen da eta ez ‘beharren arabera’ (zentzu zabalean).

“Horregatik, eskubide berdina, printzipioz, hemen eskubide burgesa izaten jarraitzen du, nahiz eta orain printzipioa eta praktika sesiotan ez ibili, merkantzien trukatzearen erregimenean baliokideen trukatzea batazbesteko gisa baizik ematen ez den bitartean, eta ez banakako kasuetan.

Aurrerapen hau arren, eskubide berdin honek muga burges bat darama bere baitan. Ekoizleen eskubidea egindako lanari proportzionala da; berdintasuna hemen, neurri beraz neurtzen direla da: lanaz.”

Gotha-ko programari kritika (1875) – Marx

Hau lanaren banaketa sozialaren iraunaraztearekin lotuta dago, eta langile aristokrazia baten agertzea dakar, barneko eta kanpoko klase-borrokaren gorabeheren arabera hazi daitekeena. Beraz honi aurre egiteko soldaten parekidetzara jo behar da, baina igualitarismo idealista burges ttipian erori gabe, hots, ekonomia sozialistaren egoeraren eta lan moten arteko desberdintasunen ezabapenak lortutako garapen-maila kontuan hartuz.

Guzti hauek gizarte kapitalistaren hondarrak dira, gizarte sozialistan ezin diotenak existitzeari utzi denbora luzez, nahiz eta bere papera etengabe murriztua izan. Denek klase burges berri baten berrateratzerako oinarria ematen dute eta horrekin kapitalismoaren berrezarpena. Baina honek ez du esan nahi Sozialismoan halabeharrez burgesia egotea, eta are gutxiago burokraziak ekoizpen-baliabideen gaineko “jabetza kolektiboa” duen antzeko klase bat osatzea.

Ez da ahaztu behar ezta ere ideologia burgesaren (klasistaren) biziraupenak gizakien garunetan, hauek eta haien arbasoek mende luzeetan zehar gizarte klasistaren menpe egon izanaren ondorioz, pisu handia duela. Ohitura eta aurreiritzi hauek bizitza sozialaren alor askoren aurrerapenerako oztopo bilakaten dira, oso garrantzitsua egiten duena ideologia sozialista indartzea hauek gainditzeko.

Baina ideologia klasista hau forma berrietan agertzen da baita ere gizarte sozialistan.

Alde batetik, burokratismoa dugu (bulegoko langileen joera ideologikoa dena), intelektualetan eta enpresetako zuzendaritzetan ematen dena gehienbat.

Bestetik, berrikuskeria (Sozialismo Zientifikoaren maneiua interes burgesetara moldatzeko), Alderdian eta Estatu sozialistaren erakunde guztietan agertzen dena. Honek forma ezberdinak

hartuko ditu klase-borrokaren bihurtuenean arabera, Sozialismoaren aurrerapen-mailaren arabera eta interes klasisten uneko beharren arabera. Honek etengabeko heziketa ideologikoa eskatzen du Alderdiaren kideen partez, jardunbide praktikoen berriztapena momentuko beharren arabera, eta edozein unean klase-etsaien aurka kolpatzeko prestatuak egotea.

Edozein arrazoigatik, edo hauen multzo batengatik, aipatutako indar atzerakoiak herrialde sozialistaren baitan nagusitzen badira eta Botere politikoa lortzen badute, kapitalismoaren berrezarpenari ekingo dion mota berriko burgesia sortuko da.

Burokratizazio honen aurkako borrokan garrantzia handia du Alderdia Komunistak. Nahiz eta troskistek Alderdia eta burokrazia gauza bera gisa hartu, erabateko aurkakotasunean daude. Honek ez du esan nahi behargin-klasearen abangoardia-destakamenduan ere eragiten ez duenik. Horregatik eraman ziren aurrera 30eko hamarkadan Alderdi boltxebikearen arazte-kanpainak, burokratak abangoardia proletarioaren lerroetatik kanporatzea bilatzen zutenak (nahiz eta balizko akatsen ondorioz kopuru jakin bat gero berronartua izan):

“Azkenik, Alderdiaren arazte kontsignaren zergatia. Irrigarria izango litzateke gure erakunde sobietiko, ekonomiko, sindikal eta kooperatiboak indartzeko posibilitatean pentsatzea, burokratismoaren zaborraz garbitzeko posibilitatean, Alderdi beraren sorbatza zorrotzu gabe. Eztabaidaezina da ale burokratikoak ez direla soilik habiarazten erakunde ekonomiko eta kooperatibo, sindikal eta sobietikoetan, baizik eta Alderdi beraren erakundeetan ere. Eta hau erakunde guzti horien indar gidaria bada, bistakoa da Alderdiaren araztea beharrezko premisa dela, zeina gabe ezin den burutu behargin-klasearen gainontzeko erakunde guztien suspertzea eta hobekuntza. Hortik Alderdia araztearen kontsigna.”

Eskuineko desbideratzea SBAK(b)an (1929) – Stalin

Aurrerago Trotski-k ESSB “burokratikoki desitxuratutako behargin-Estatua” baina oinarrian “osasuntsu” dagoenaren tesia plazaratu zuen. Zaila da jakitea Trotski-ren berrikuskeria bere ildo kontrairaultzailea justifikatzeko asmoz kontzienteki egindako manipulazioen ondorio soila ala sozialismoaren eraikuntzan gainegitura eta azpiegituraren arteko harremanaren inguruko bere ezjakintasun sakonaren ondorio den.

II. Internazionalari “buelta”

Trotsky eta enparauak Komintern-atik kanporatuak izan eta gero, “entrismoa” egiteari ekin zioten beste antolakundeetan, II. Internazionalako alderdi sozialdemokratetan nagusiki. Trotskistek hauen baitan frakzio bat osatzen zuten eta honen bitartez militanteak haien alderdira erakartzen edota antolakundea bera erradikalizatzen saiatzen ziren. 1933ko ‘Entrismoaren inguruko printzipiozko gogoetak’ gutunean Trotsky-k honela azaltzen zuen haien infiltrazioaren xedea:

“(...) Jakina, alderdi marxista batek bere independentzia osoa eta homogeneousun handiena izan behar du xede, baina bere eraketa-prozesuan sarritan alderdi zentrista baten edo are alderdi erreformista baten frakzio gisa jardun behar du. Horrela, urte askotan zehar boltxebikeak mentxebikeen alderdi berean egon ziren. Hirugarren Internazionala ere Bigarrenetik sortu zen gradualki.”

Gogoratu beharra dago bera III. Internazionalaren sorkuntzaren aurka egon zela, eta boltxebikeek mentxebikeak (bera barne) kanporatu zituztela, eta ez frakzio bat osatu... edonola ere, ez ziren inolako kasuan infiltrazioak izan, banaketak baizik.

“(...) Benetan iraultzailea den alderdi baten eginbeharra ez da konpromezu orori ukatze ezinezko bat aldarrikatzea, baizik eta konpromezu guztien bitartez –ekidinezinak direnean– fidelki bere printzipioak, bere klasearekin, bere misio iraultzailea, iraultzan garaitzeko herri-masak heztearen eta iraultza prestatzearen bere egintza betetzen jakitea.”

Konpromezuen inguruan (1917) – Lenin

Trotsky-k ez zuen erdigune inperialistan diktadura burgesaren menderakuntza-forma demokratikoa eta faxistaren artean desberdintzen borroka planteatzeko orduan, indar burgesekin Herri-Fronteen politika “ustela”, “doilorra” eta “traidorea” izendatuz. 1937an idatzitako ‘Gerrate mundial berri baten atarian’ liburuxkan adibidez, honela mintzo zen:

“Euren politika militarista eta txobinista justifikatzeko, Bigarren eta Hirugarren Internazionalak gerra berriaren eginkizuna askatasuna eta kultura defendatzea izango denaren ideia zabaltzen dute – herrialde “baketsuek” ordezkaturak, Mundu Berriko eta Zaharreko demokrazia handiak buru direla -, erasotzaile faxisten aurrean: Alemania, Italia, Austria, Hungaria, Polonia eta Japonia. Saillapen hori zalantzazkoa da, baita ikuspuntu formal hutsetik ere. Estatu jugoslaviarra a ez da hungariarra baino “faxista” gutxiago, Errumania ez dago demokraziatik gertuago Polonia baino. Diktadura militarra Japonian ez ezik, Txinan ere nagusitzen da. Stalin-en sistema politikoa Hitler-en sistematik gero eta gertuago dago. Frantzia, faxismoa demokrazia erraztatzen ari da, gerra oraindik deklaratu ez denean. “Herri-Fronteko” gobernuek ahalegin guztiak egiten dituzte iragatea errazteko. Ikusten dugunez, nagusi den munduko sisteman ez da erraza otsoak eta arkumeak bereiztea!”

Ez du hau kontuan hartzen ezta ere ESSBk, jada Sozialismoa eraikitzen ari zen Estatu proletario gisa, haien arteko kontraesan inter-inperialistetatik baliatzea Estatu burgesekin konpromezu-politika

ezartzeko orduan. Estatu nazionala eta autodeterminazio eskubidea ere “atzerakoitzat” jotzen zituen (kolonietan izan ezik) berriro ere Europako Estatu Batuak aldarrikatuz.

“Iraultza proletarioaren aldeko batek kapitalistekin edo klase kapitalistarekin konpromezuak kontzertatu ditzake? (...) Zinez bistako zentzugabekeria izango litzateke orokorrean ezetzarekin erantzutea galdera hau. Argi da iraultza proletarioaren aldeko batek konpromezuak edo akordioak hitzartu ditzakela kapitalistekin. Dena zein akordio eta zein balditzetan hitzartzen denaren arabera da. Honetan eta soilik honetan bilatu daiteke eta bilatu behar da, iraultza proletarioaren ikuspuntutik, akordio zilegiaren eta akordio entregista eta traidorearen (ikuspuntu beratik) artean.

Ondorioa bistakoa da: hain zentzugabea da bidelapurrekin akordio eta konpromezu orori uko egitea, bidelapurreria ekintza batean konplizitatea justifikatzea bezala, orokorrean batzuetan bidelapurrekin akordioak onargarriak eta beharrezkoak diren tesi abstraktutik abiatuz.”

Konpromezuei buruz (1920) – Lenin

Trotskistek faxismoaren aurka borrokatu behar zela demagogikoki esan arren, kontsigna “hiper-iraultzailez” mozorrotutako haien politika abenturazale eta probokatzaillearekin erreakzioaren zerbitzuan jarduten zuten, honen “ezker eskua” osatuz.

1935ean trotskistek POUM alderdia sortu zuten espainiar Estatuan, Herri-Frontean sartu zena. 1936. urtean hasi zen guda zibil antifaxistan hauek frankisten aldeko probokazio-lanetan ibili ziren ‘bostgarren zutabearen’ parte gisa: atzeguardian Generalitat-earen aurkako Estatu-kolpea ematen saiatu ziren hainbat anarkistekin batera (CNTk ez zuen babestu) “Errepublika burgesa zelako”. Trotski-k ez zuen inoiz haiekin harremana onartu, nahiz eta Andreu Nin buruzagia bere lagun ona zela esan (PCEk exekutatu zuena).

Frantziar Estatuan sozialdemokraziarekin ‘fronte bakarra’ eratu behar zela esan eta honen alderdian entrismoa egiten ibili ondoren, 1935ean Trotski-k Herri-Frontea “burgesia inperialistari azpiratzea” zela esaten hasi zen eta ESSBk Germania naziaren aurka honekin hitzartutako aliantza anti-faxista boikoteatzera deitu zuen.

Txinan eta Ekialdeko beste herrialde koloniarretan trotskistak, burgesia nazionalarekin aliantza oro baztertuz, Nazio-Fronteak boikoteatzen ibili ziren japoniar inperialismoaren inbasioa errazteko. Ho Txi Minh-ek, trotskistak “gaizkile” eta japoniar (eta nazioarteko) faxismoaren “ehiza-txakur” deitu ostean, honela deskribatu zuen haien jarduna:

“Herrialde guztietan, trotskistek izen onak hartu zituzten beren bidelapur lan zikina ezkutatzeke. Adibidez, Espainian, Bateratze Marxistako Behargin Alderdia (POUM) deitzen dira. Ba al zenekiten haiek osatzen dituztela espioien habiak Madrilen, Bartzelonan eta beste leku batzuetan, Franco-ren zerbitzura? Haiek antolatzen dute “bostgarren zutabe” ospetsua, italiar eta germaniar faxisten armadaren espioitza erakundea. Japonian Marx-Engels-Lenin (MEL) Liga izena dute. Trotskista japoniarrek gazteak haien ligara erakartzen dituzte, gero poliziarra salatzen dituzte. Alderdi Komunista japoniarrean sartu nahi dute, barrutik suntsitzeko helburuaz. Nire ustez,

trotskyista frantziarrek, gaur egun Iraultza Proletarioa taldearen inguruan antolatuak, Herri-Frontea sabotatzea helburu gisa finkatu zuten. (...)

Indotxinako Alderdi Komunistari gutuna (1939) – Ho Txi Minh

Gutxienez 1931tik jada existitzen bazen ere (eta aurretik, “nazioarteko ezkerreko oposizioa” izenarekin), 1938an trotskyistek “4. Internazionala” sortu zuten Paris-en, Trotski buru zuela. Jasotako babes urrien ondorioz ordezkari batzuek sinatzeari uko egin eta zenbait herrialdeetan haien antolakundeak hutsalak edo hainbat joeretan zatituta bazeuden ere, batzorde honek Trotski-k idatzitako “iragate-programa” onartu zuen.

Programa honetan, propaganda trotskyistaren ohiko gezurretaz aparte, “klase ertainarekin aliantza kapitala babestea” dela, “faxismoaren aurka borrokatzeko lehen baldintza Herri-Frontearen aurka” egitea dela eta “egiteko garrantzitsuena Komintern-aren aurka borrokatzea” dela esaten da. Baina 4. Internazionalak bazeukan beste helburu nagusi bat ESSBn:

“Ezinezkoa da programa hau egikaritzea indarkeriaren eta faltsifikazioaren bitartez mantentzen den burokrazia uzkaile gabe. Soilik masa zapalduen altxamendu iraultzaile garaileak onbideratu dezake erregimen sobietikoa eta sozialismoranzko aurrera egitea ziurtatu. Soilik IV. Internazionalaren alderdiak gidatu ditzake masa sobietikoak matxinadara. Behera Kain-Stalin-en aginte-talde bonapartista! (...)

AEBtan egin beharreko aurkezpenarentzat grabatutako hitzaldian, Trotski-k bere iragarpen igarleetako bat bota zuen:

“Baimendu iezadazue iragarpen batekin amaitzen: datozen hamar urteetan IV. Internazionalaren programa milioika lagunengana gida bihurtuko da eta milioika iraultzaile horiek jakingo dute nola buelta eman zeruari eta lurrari.”

Trotskyismo ezdeusaren sabotaia arren, Nazioarteko Mugimendu Komunistak mugimendu gerrillari antifaxista sendoa sortu zuen herriaren geruza zabalak bereganatuz eta ESSBko Ejertzito Gorriaren laguntza zuzenarekin (Bulgaria, Errumania...) edo gabe (Albania) Estatu sozialista mordoa eratu zituen, baita erdigune inperialistan (Frantzia, Italia) honetarako aukera sortu ere, nahiz eta bertako Alderdiak zuzendaritza likidazionistek zapuztu.

Derrotismo “iraultzailea”

Trotsky-k Stalin, Kremlin eta Komintern-aren politika “zital” eta “kriminalari” egozten zion Hitler boterera igotzearen erru osoa. Berarentzat “ESSBren defentsa Stalin-en aurkako borrokatik banaezina” zen eta ESSBren porrota eragiteko azpilanari ekin zion.

“Ez dago zalantzarik hau gerrarik arriskutsuena izango litzatekeela burgesiarentzat. Arriskutsuena izango litzateke, ez bakarrik ESSBko herriek hil arte borrokatuko luketelako iraultzaren lorpenengatik. Burgesiarentzat ere arriskutsuena izango litzateke, gerra gudu-fronteetan ez ezik etsaiaren atzeguardian ere egingo litzatekeelako. Burgesia ziur egon daiteke ESSBko behargin-klasearen lagun ugariak Europan eta Asian beren zapaltzaileei atzeguardian kolpeak ematen saiatuko liratekeela, hauek herrialde guztietako behargin-klasearen aberriaren aurkako gerra kriminala eragiten ausartuko balira. Eta jaun burgesek ez lukete gutaz kexatzeko eskubiderik izango, baldin eta gerra hau hasi eta hurrengo egunean beren gobernu maiteetako batzuk ez zirela existitzen aurkituko balute, gaur egun lasai asko “Jainkoaren graziaz” agintzen dutenak. (Txalo ozenak)”

ESSBko AK(b)aren EBaren aktibitatearen inguruko Alderdiaren XVII Biltzarreari txostena (1934) – Stalin

1937an jada (berak) ‘Traizionatutako iraultzan’ Trotsky-k ESSBk inperialismoaren aurkako gerra galtzea halabeharrezkoa zela hedatzen hasi zen:

“Espero al daiteke ESSB porrotik gabe aterako dela hurrengo gerratik? Erantzun diezaiozun argitasun osoz egindako galdera bati: gerra, gerra bat besterik ez balitz, ESSBren porrota saihestezina izango litzateke. Teknikaren, ekonomiaren eta arte militarren ikuspegitik, inperialismoa ESSB baino askoz ere boteretsuagoa da, eta, mendebaldeko iraultzak geldiarazten ez badu, Urriko Iraultzatik jaiotako erregimena eraman egingo du. (...) antagonismo inperialistak beti konponduko dira ESSBren garaipen militarra eragozteko. (...) Iraultzaren esku-hartzerik gabe, ESSBko oinarri sozialek behea joko dute, bai garaipena lortuz gero, bai porrota gertatuz gero.”

Trotsky-ren propagandaren arabera hau ekiditeko era bakarra iraultza Mendebaldean eta “iraultza” (kontrairaultza hobe esanda) ESSBn ematea zen, 1938ko ‘21. urteurrenean’ zioenez:

“Burokrazia sobietikoaren eta Komintern-aren etorkizunean ez da irtenbide edo itxaropen izpirik ikusten. Behargin aurreratuek amaiera eman behar diete. Bizkarroi berrien tirania doilorraren aurkako proletalgo sobietikoaren matxinada batek soilik salbatuko du Urriko konkistetatik oraindik geratzen dena. Herrialde kapitalista aurreratuetako iraultza proletarioak soilik lagundu ahal izango die behargin errusiarrei benetako gizarte sozialista eraikitzen Urriak jarritako oinarrien gainean. Zentzu honetan bakarrik defendatzen dugu Urriko Iraultza inperialismotik, faxista edo demokratikoa, Stalin-en burokraziatik eta bere “lagun” mertzenarioetatik.”

Gerra-arriskua gerturatu ahala bere propaganda derrotista areagotzen joan zen, Estatu sobietikoa erregimen totalitario gisa Estatu naziarekin parekatuz, “erregimen burokratiko bonapartista” izendapenarekin, eta honen uzkaizteraz deituz ‘Arestiko irakaspen bat’ artikuluan adibidez:

“Kremlin-eko aginte-talde bonapartista eraisteak soilik ahalbidetu dezake ESSBren botere militarra berreraikitzea. Komintern ohiaren likidazioak soilik utziko dio bidea internazionalismo iraultzaileari. Gerraren, inperialismoaren eta faxismoaren aurkako borrokak krimenez zikindutako estalinismoaren aurkako borroka nekazina eskatzen du. Estalinismoa zuzenean edo zeharka defendatzen duenak, bere traizioak isiltzen dituenak edo bere indar militarra puzten duenak, iraultzaren, herri zapalduen, sozialismoaren etsairik okerrena da. Langileen erasoaldi armatuaren ondorioz Kremlin-eko aginte-taldea zenbat eta lehenago uzkailia izan, orduan eta handiagoak izango dira ESSBren berroneratze sozialistarako aukerak, hurbilagoak eta zabalagoak nazioarteko iraultzaren perspektibak.”

Trotsky-ren ustez “burokrazia sobietikoak” bazekien ez zela gerratik bizirik aterako eta, 1939ko ‘ESSB gerran’ zioen bezala, honen suntsipenak “ekoizpen-baliabideen jabetza estatala” (Estatu-kapitalismoa) babestea bilatu behar zuen, eta hau aldi berean “iraultza proletario mundutarrera” (iraultza Germanian) azpiratu behar zen.

1939ko azaroan ‘Clemenceau-ren tesia’ mahaigaineratu zuen berriro, gerra-egoera baliatuz Estatu-kolpea ematearena, baina oraingoan inperialismo nazi-faxistaren eskutik. Honela mintzo zen ‘Max Shachtman-i gutunean’:

“(..). Gainera, badirudi ahaztu egiten duzula “Clemenceau-ren tesia”, ESSBren benetako defentsaren intereserako, abangoardia proletarioa Stalin-en gobernua suntsitzera eta haren ordeztua berea jartzera behartuta egon zitekeela esan nahi zuena. Hau guztia 1927an esan zen! Bost urte geroago, langileei azaldu genien gobernu-aldaketa iraultza politikoaren bidez soilik aurrera eraman zitekeela. (...)”

Stalin-en gidaritzapean Alderdia, Estatu eta Armada ale kolpistez garbitu ostean, ESSBk garaipena lortu zuen Aberri Gerrate Handian III. Reich-aren eta haren aliatu faxisten aurka, Behargin eta Nekazarien Ejertzito Gorriari esker eta okupatutako nazio eta lurraldeetan mugimendu gerrillari indartsu baten laguntzaz, Historiak ezagutu duen Komunitate Sozialista sendoena eratuz.

Moskuko “fartsa”-Epaiketak

1932. urtean Trotski-k, bere semea Sedov erabiliz, “oposizio-blokea” (edo “Trotski-ren blokea”) sortu zuen Alderdi boltxebikearen barnean zuzendaritza leninistaren aurka zeuden joera guztiak batzeko. Hasieran Zinoviev eta Kamenev batu ziren, eta aurrerago Bukharin-ek egin zuen (berak “eskuindarrak” deitzen zituenak). Bloke konspiratzaile hau gutun sekretu eta gako-hizkeraren bitartez komunikatzen zen. Italia faxista bisitatu ostean, 1933an Trotski japoniar militarismo eta germaniar nazismoaren zerbitzu sekretuekin kontaktuan jarri zen Tokio-Berlin Ardatzarekin elkarlanerako prestutasuna adieraziz.

1934.ean Kirov, boltxebikea 1905etik eta orduan zuzendaritzako kide zena, eraila izan zen tiroz Leningraden. Bere hiltzailea bere buruaz beste egiten saiatu zen baina unean bertan atzemaia izan zen. Honen epaiketan (fusilamendura kondenatua izan zena) konspirazio handiago baten parte zela agerian geratu zen, eta Zinoviev eta Kamenev atxilotuak izan ziren. Haien ardura politikoa onartu bazuten ere, ez zen frogatu erailketa agindu zutenik eta espetxera kondenatu zituzten.

Trotski (aurrerago Kirov “eskrupulurik gabeko diktadore abila” deituko zuen) hauek errugabetzeko nahian hau justifikatzen saiatu zen, bera “terrorismo indibidualaren aurka” zegoela esan arren, ‘Burokrazia estalinista eta Kirov-en erailketa’ artikuluan. Galdetu daiteke ea Fanni Kaplan eseristak (Gobernu probisionalaren aldeko populistak) Lenin hiltzen saiatu zenean honetarako “giro politiko onuragarria” zegoela uste zuen:

“Prentsa sobietikoak dio Nikolaev-ek alderdiko kidez osatutako erakunde terrorista batean hartzen zuela parte. Kableak egia esaten badu -eta ez dugu gezurrezkoztat jotzeko arrazoirik ikusten, burokraziari ez baitzitzaien asko poztu aitortzea-, garrantzi sintomatiko handiko gertaera berri baten aurrean gaude. Beti dago ustekabeko tiroa izateko posibilitatea, arrazoi pertsonalek eragindakoa. Baina alde aurretik eta erakunde jakin baten aginduei jarraiki prestatutako ekintza terrorista bat pentsaezina da, iraultzen eta kontrairaultzen historia osoak erakusten digunez, giro politiko onuragarririk ez badago. Boterean dauden agintariekiko etsaitasuna oso hedatuta egon behar du, eta formarik zorrotzenak hartu izan behar ditu, gazteria alderdikoiaren lerroetan edo, hobeto esanda, haren goiko geruzetan, burokraziaren behealdeko eta erdialdeko zirkuluekin estuki lotutakoak, talde terrorista batean gauzatu ahal izateko.”

Ikerketak aurrera jarraitu zuen eta Voroxilov, Kaganovitx, Stalin eta Alderdi boltxebikeko zuzendaritzako beste hainbat kide erailtzeko eta sabotai ekonomiko eta militarra aurrera eramateko planak agerian ipini zituen. ‘New York Evening Journal’ aldizkarirako egindako elkarrizketa batean, Trotski hau justifikatzen saiatu zen bere ohiko hizkera nahasgarriaz:

“Alderdiaren barnean, Stalin kritika guztien eta Estatuaren gaintik jarri da. Ezin da ordezkatu, hura erailez ez bada. Oposiziozile oro terrorista batean bihurtzen da ipso facto.”

Honek Moskuko Epaiaketei hasiera eman zien, 1936 eta 1938 urteen artean eman zirenak. Lehenik Zinoviev, Kamenev eta haien aldekoak epaitu zituzten, haien aurkako karguak aitortu eta gero fusilatua izan zirenak. Bigarrenean Radek (espetxeratua), Piatakov (fusilatua) eta beste batzuk epaitu zituzten, zeinetan Radek-ek Tukhatxevski-ren izena aipatu zuen, informazio asko eman nahi

izan ez bazuen ere. Ondorioz hau eta beste jeneral batzuk atxilotu, epaitu eta fusilamendura kondenatu zituzten. Azkenik Bukharin (fusilatua), zuhur jokatu zuenak bere aitomena aurkezteko orduan, Rakovski (espetxeratua) eta haren aldekoak eta Yagoda (1934tik NKVDren buru zena eta Maxim Gorki eta bere semea erail zituenak horretarako haien ikaraturiko medikuak erabiliz. Fusilatua izan zen) epaitu zituzten. Hari guztiek Trotski arnegarira eramaten zuten, erbestean egonik ere heriotz-zigorra jaso zuenak.

“Trotski, Zinoviev, Kamenev eta haien hiltzaile talde osoak, elkarrekin lan egin zuten faxismo germaniarrarekin eta aliantza bat osatu zuten Estatu germaniarreko Polizia Sekretuarekin. Hemendik aurrera, herrialde osoak eskatzen du aho batez: “Zakur amorratu hauek fusilatu egin behar dira!” Haiak nahasmena sortu nahi izan dute masetan. Stalin burkideari tiro egin nahi izan diote, iraultzaren bihotza eta burmuina, eta huts egin dute. Zitalen talde doilorra exekutatu dute. Masak estuago batu dira EBaren inguruan; Stalin-ekiko leialtasuna inoiz baino indartsuagoa da.”

Zergatik hartzen duen Bigarren Internazionalak Trotski bere babespean (1936) – Krupaskaia

Prozesu hauetan zehar frogatuta geratu zen, Trotski-k Rudolph Hess hierarka naziarekin hitzartutako akordioaren arabera, konspirazio trotskistaren asmoa gerran ejertzito inperialistei frontea irekitzea zela, eta une horretan, hitleriarren oniritziarekin eta masen parte hartzea gabe, militarren laguntzaz Alderdiko zuzendaritza hiltzea eta haiek boterea hartzea. Horren truke, Ukraina germaniarrei, Bielorrusia poloniarrei eta Itsasaldeko lurraldea japoniarrei emango zieten. Diktadura militarra ezartzeko Tukhatxevski-ren nahi gertagarrien aurrean, ordea, “politikoeak” militarrei porrotaren errua aurpegiratuko zieten, boterea haien eskuetan mantenduz. Trotski-k ‘Traizionatutako iraultzan’ plan hauek antzematen uzten zituen, “iraultza politiko” batez mintzatzen zenean baina “iraultza sozialik gabe”:

“(..). Iraultza politikoaren ondoren, burokraziaren erorketaren ondoren, proletalgoak ekonomian erreforma oso garrantzitsuak egingo zituen, iraultza sozial berririk behar izan gabe. (...) Ekintza hau prestatzea eta egoera historiko onuragarri batean masen buruan jartzea da IV. Internazionalaren atal sobietikoaren eginkizuna, oraindik ahula eta existentzia klandestinora murriztutakoa. (...)”

Epaiaketa hauek publikoak izan ziren (militarrena izan ezik) eta nazioarteko diplomatiko, legelari eta kazetari ugari ikusi zituzten, haien artean epaiketen egiazkotasunaren inguruko dudarik egon ez zelarik. Epaituek beren buruak defendatu eta haien aurkako akusazio ugari ukatzen zituzten, Vishinski fiskalak aurkeztutako frogan ebidentziak haien errua onartzera behartu arte. Ezarritako kondenak ere Estatu sobietikoaren legediaren arabekoak izan ziren. Honela Gestapoaren eta SSen alde azpilanean jarduten zuen herriaren etsaien bostgarren zutabea suntsitua izan zen. Trotski-k epaiketa hauek “GPUaren Inkisizioaren” eta Stalin-en “fartsa” bat zirela esan zuen eta epaituen aitormenak “torturaz”, “hipnosiz” edota “droga indartsuen erabileraz” lortu zituztela (batek baino gehiagok ukatu zutena).

1940. urtean Ramon Mercader, PSUCeko militante eta NKVDko agente kataluinarra, Mexikora iritsi zen POUMaren lerroetan ibili izandako trotskista kanadiar baten identitatea erabiliz. Honela Trotski-ren gertuko zirkuluan infiltratu zen eta abuztuko egun batean piolet batekin buruan joz exekutatu zuen. Hiltzerako orduan Stalin-en inguruko “biografia” bat idazten ari zen, buruzagi komunistaren aurkako gezur eta difamazio paranoidez betetakoa.

Trotsky-ren “ondarea”

Stalin-en heriotza eta gero Khrustxov-ek, Erdiguneko Batzordeko kide zenak, Estatu-kolpea eman zuen Zhukov mariskalaren laguntzaz. 1956. urtean SBAK(b)aren XX. Biltzarrean erakutsitako “informe sekretuan”, trotskistek eta inperialistek urteetan zehar barreiatutako Stalin-en aurkako gezurrak mahaigaineratu zituen.

Honi “desestalinizazio” kanpaina ofizial batek jarraitu zion, kapitalismoaren berrezarpen prozesuari ekiteko beharrezkoa zena (honetarako Trotsky-ren teoria bat baino gehiago erabili zutelarik).

Honek indar handia eman zion propaganda trotskistari, eta prozesua nahiko era baketsuan eraman zen aurrera (Georgian zapalduetako matxinadaz aparte), Trotsky-k ‘Burokrazia estalinista eta Kirov-en eraiketa’ artikuluan iragarri zuenaren aurka (ESSBren aurkako bere sabotai-lana justifikatzeko erabiltzen zuena):

“Erabateko ergel batek bakarrik pentsa dezake harreman kapitalistak, hau da, ekoizpen-baliabideen jabetza pribatua lurra barne, ESSBn modu baketsuan berrezar daitezkeela eta demokrazia burgeseko erregimen batera eraman. Izan ere, orokorrean posible izango balitz ere, kapitalismoa ezin izango litzateke Errusian berrezarri Estatu-kolpe kontrairaultzaile basati baten ondorioz izan ezik, Urriko Iraultza eta Gerra Zibila baino hamar aldiz biktima gehiago eragingo litzuzkeenak. (...)”

Halere trotskistek “estalinismoa” erabiltzen jarraitu zuten ESSBko gainegitura burges-berrikustzailea izendatzeko orduan. 80. hamarkadaren amaieran Gorbatxov-ek Perestroika abiarazi zuenean (Trotsky birgaitu zuenak), mundu osoko trotskismoak hau babestu zuen. Azkenean honek bai ESSBn bai Eremu Sozialista osoan kapitalismoaren berrezarpen osora eraman zuen (askoz ere hildako gutxiago eragin zituzten hainbat Estatu-kolpeen bitartez), baina ez zen trotskisten “iraultza berritailerik” etorri, kapitalismo gordina baizik (beharbada hori zelako haien benetako helburua...).

Ordutik hona, trotskista asko kapitalismoan integratu baziren ere (beti egon ziren moduan, bestalde), sarritan Unibertsitateko “marxismo” irakasle porrokatu gisa, trotskismoa hamaika korronteetan zatitzen joan da haien muturreko frakzionalismoaren ondorioz. Guzti hauen ezaugarri komunak, ostera, prozesu iraultzaileetan fase edo etapa desberdinen beharrari ezinikusia eta hauetan zehar proletalgoak beste klaseekin eraiki beharreko aliantzen ukapena dira, trotskismoa marxismo-leninismoarekin guztiz bateraezina bihurtzen duena. Burgesia ttipiaren potentzialitate iraultzaile oro baztertzeko, nekazalgoaren papera gutxiesten eta burgesia nazionalaren aurkako herra puzten duen ideologiaren bitartez, trotskistek beti burgesia inperialistaren alde egiten dute lan, honen ezker-muturra osatuz: esku-sartze militarrek justifikatzeko (Libia, Siria...), guda antifaxistak zapuzteko (Ukraina) edota nazio-askapen borroka ukatzeko (Euskal Herria, kasu). Inor baino “ezkertiarra” (hitzez behintzat) izateko nahiean, ultraeskuinaren aldean bukatzen dute beti (nahiz eta indar iraultzaile eta herrikoien bizkarrean ekin).

ONDORIOAK

Lan honetan zehar ikusi ahal izan dugunez, Trotski-k Lenin-en aurkako ildo mentxebikearen aldaera bat, frakzionalista eta adostailea aldi berean, defendatu zuen bere bizitza osoan zehar.

Boltxebikeek boterea hartuko zutela ikusita Trotski-k hauetan infiltratzea erabaki zuen eta bere ildo sozialdemokrata eta burokratikoaren ezartzen saiatu zen, benetako leninistek galarazi bazioten ere.

Hauetatik kanporatua izan ostean bere botere-nahia asetzeko propaganda gezurti eta demagogikoa barreiatzera ekin zion, inperialismoaren intereskin bat eginik, azkenean nazi-faxismoarekin elkarlanera ere eraman zionak.

Bere “profezietatik” bat bera ere ez zen gauzatu, hainbat ezbehar eta porrot pairatuta ere, komunistek kritika eta autokritika eginez sozialismoaren eraikuntzan eta nazioarteko iraultzan garaipena sendoak lortu zituzten bitartean.

Trotski-ren ideologia hainbat intelektualetan ohikoa den “iraultzailetasun” burges ttipia da, hizkera ultraezkertiar baten atzean ezkutatzen den praktika eskuindar batena alegia, berrikuskeria azken finean.

Lan honek, trotskismoa ideologia kontrairaultzaile eta antikomunista gisa azalerrarazi eta honen maneiak suntsitu ostean, nazioarteko langileriaren, gazte eta intelektualen eta munduko herri borrokalarien artean marxismo-leninismoaren zabalpen eta errotzean lagunduko duenaren ziurtasun irmoa daukagu, Nazioarteko Mugimendu Komunistaren berrindartzerako eta prozesu iraultzaile berrien erronkei aurre egiteko berebiziko garrantzia izango duena.

Aurrera langileria!

Bake faltsuari gerra!

Iraultza ala hil!

AMAIA